

BAPATEAN 2003

Grabaketak: Amaia Agirre, Martin Aramendi,
Laxaro Azkune, Eneko Bidegain, Xabier Begiristain,
Unai Elizasu, Xabier Enbeita, Felix Irazustabarrena,
Aitor Mendiluze, Oihane Perea.

Hautaketa eta transkribaketa: Amaia Agirre
eta Martin Aramendi

Irizpideak eta koordinazioa: Bertsozale Elkartea

Doinuen izendapena: Martin Aramendi
Bertso Doinutegian oinarrituz.

Azken orrazketa: Arkaitz Goikoetxea
eta Juanjo Respaldiza.

EHBE

Liburu honek Eusko Jaurlaritzaren laguntza jaso du.

© EUSKAL HERRIKO BERTSOZALE ELKARTEA

Maketazioa: LANKU Bertso Zerbitzuak, S.L.

Argitaratzaileak:

ELKARLANEAN S.L.

Portuetxe kalea, 88 bis

Donostia

BERTSOZALE ELKARTEA

Igeldo pasealekua, 25

Donostia

I.S.B.N.: 84-89283-35-4

I.S.B.N.: 84-9783-149-7

L.G.: SS-0589/04

AURKIBIDEA

Bat-bateko bertsoak idatziz emateko irizpideak	7
Bertso saioen mugimendua	21
Tauletako kontzeptuen azalpena	23
Zenbait azalpen	27
Txapelketa eta sariketak	29
1. Herralde mailako txapelketak	31
2. Eskolarteko txapelketak	38
3. Bat-bateko sariketak	43
4. Bertsopaper lehiaketak	49
Bat-bateko bertso hautatuak	57
Bat-bateko sariketak	271
Saioen aurkibidea	297
Bertso hautatuak - KD	299
Bertsolarien aurkibidea	301
Izen eta izengoitien deskribapena	303

BAT-BATEKO BERTSOAK IDATZIZ EMATEKO IRIZPIDEAK

SARRERA

Bertsozale Elkartek 1991n eman zituen argitara “Bapateko bertsoen transkribapenerako erizpideak”. 2003an berriz heldu nahi izan dio lan horri; ez, ordea, orain arteko irizpideak txartzat edo desegokitatzat jo dituelako. Irizpide horiek laguntza handia eman diete azken urteetan bat-bateko bertsoak idatziz ematen aritu direnei, baina lanak erakutsi du zenbait alderdi doitu beharra dagoela, beste zenbait osatu egin behar direla, eta, beste batzuetan, ikuspegia moldatzea komeni dela, jokabideak argitze aldera.

Sortzez da kontraesankorra ahoz kantatua idatziz ematea. Beharrezko lana da, hala ere. Irizpide hauek emateko orduan, kantatua ahalik eta ongien gordez, irakurlearentzat lana zailegi gerta ez dadin saiatu gara. Bertsolariak kantatu duen hartara ahalik eta gehien hurbiltzea izan da helburua.

Bertsoak bere-bereak dituen ahozko hizkeraren ezaugarriak gordez garrantzitsua iruditzen zaigu, eta hala, lehen atalean, bertsolariak kantatu bezala idatziko direnak azaldu ditugu. Bigarren atalean, berriz, dela hizkuntza arauak beraiek ahozkoa lehenesten dutelako, dela irakurketa errazten dutelako, aldaketak egin beharreko zenbait kasu azertu ditugu.

Hemen eman ditugun irizpide hauek bertsoak argitaratzeko eta artxibatuzko daude pentsatuta. Horregatik, testuari bete-betean dagozkion irizpideez gain, bertso saioak eta bertsoaldiak nola kokatu behar diren ere zehaztu beharra ikusi dugu.

Nolanahi ere, beti fintzen joan beharreko alorra da irizpideena. Ahaleginak eginda ere, irizpide hauek ez dute egia osorik. Aurrera begira moldaketak etor daitezke, eta etorriko dira. Gure asmoa ez da atea erabat ixtea, aro berri bat irekitzea baizik.

Bertsozale Elkarteko Iker taldea

TESTUARI DAGOZKION IRIZPIDEAK

0-. **Gai-emailearen hitzak** euskara batuan idatziko dira, non eta euskalki Zazpieuskalki ñabardura horiek ez diren bertso-gai bihurtzen.

1-. Bat-bateko bertsoak, ahoz sortua baita –eta inprobisatua, gainera–, ezinbestean, ahozko hizkeraren ezaugarriak erakusten ditu. Ahal den neurrian, horiek gordetzen saiatuko gara. Horregatik, **bertsolariak kantatu bezala** emango dira:

1.a) **Hiztegia**: “parkatu” kantatuz gero *parkatu* idatziko da, eta ez *bar-katu*, edo “apez” esanez gero, *apez*, eta ez *apaiz*.

Gauza bera, hitz beraren aldaera fonetiko bat baino gehiago agertzen bada bertso edo bertsoaldi batean. Adibidez, batean *sekula* eta hurrengoan *sekulan*; batean *zena* eta hurrengoan *zana*; batean *alperra* eta hurrengoan *alferkeria*... Aldi bakoitzean, bertsolariak esan bezala aldatuko da papere ra.

1.b) **Deklinabidea**: Bertsolariak “lagunagaz”, “lagunarekilan” edo “lagunarekin” esan, kantatu bezala aldatuko da, eta berdin deklinabideko gainerako kasuetan ere: nondik/nondikan/nondio edo norentzat/norendako eta abar.

1.c) **Aditza**: *zerate*, *gira*, *dautsut*, *niz* edo *zagozie* kantatuz gero, bere horretan emango dira.

1.d) **Bokal elkarketak**. Euskalki eta azpieuskalkiek kasuistika zabala erakusten dute, eta guztiak, esan bezala idatziko dira. Honela,

[e + bok]. Beste bokal baten aurrean e > i bilakatzen da hizkera askotan. *Etxia*, *atia*, *semiengatik* edo *gaziok* idatziko da.

[o + bok]. Beste horrenbeste bokal aurreko o > u bihurtzen denean: *gogua*, *juan* edo *gaiztuekin*.

[i + bok]. I-ri bokal bat jarraitzen zaiolarik [j], [ɲ] nahiz [ʎ] tartekatzen da zenbaitetan. *Biyek*, *egixa* edo *serijjo* idatziko da.

[u + bok]. U-ri beste bokal bat jarraitzen zaionean, zenbaitetan

-b- tartekatzen da (*buruba*), beste zenbaitetan u > i bilakatzen da (*eskiekin, akitia*). Esan bezala idatziko dira.

[u/i + a]. Aurreko silabako bokala u edo i izanik, a > e bihurtzen da zenbait hizkeretan (*egie, apur bet*).

[a + a > ea/aia]. Bertsolariak esan bezala idatziko da (*elizea*).

1.e) **Bokal arteko kontsonante galerak**: bertsolariak kantatu bezala idatziko dira honelakoak: *konponbideai* (<konponbideari), *mendian* (<mendiaren), *in* edo *ein* (<egin), *errain* (<erranen)...

1.f) **Nafarroako euskalkitzat** jotzen direnetan, singularreko bigarren pertsonan, “yaiz”, “yuke”, “yitzan”.... esaten dute, eta halaxe idatziko da.

1.g) **Txokokeriak edo** Euskal Herria osotasunean hartuta **ulermenerako eragozpen** izan daitezkeen formak oin-oharretan argituko dira.

2-. Badira, ordea, hainbat arrazoiengatik, **aldaketak egin beharreko zenbait kasu**:

2.a) **EZ partikula**. Aditzaren aurreko ez partikulak, aldaketa fonetiko ugari sortzen du: *ez zara*=etzara; *ez dut*=eztut, *ez da*=ezta, *ez zen*=etzen. Adibide hauek guztiak, ahozko hizkeran aldaketa fonetiko horiekin ahoskatu behar dira, eta idazterakoan bereizita eman. Horregatik, oin izan nahiz ez, bereiz idatziko dira, eta irakurlearen esku geratzen da dagokien bezala irakurtzea.

2.b) **-Z GERO partikularen** kasuan, ohikoa da [aditza+ezkero] for mulara jotzea. Neurrian aldaketarik eragiten ez den heinean, behar den bezala idatziko dira. Honela, bertsolariak “joan ezker” esaten badu, *joanez gero* idatziko da; edo “egin ezker” esan badu, *eginez gero*. Badira, ordea, zuzenduz gero neurrian aldaketak izango lituzketen kasuak. Horiek, aldaketarik egin gabe idatziko dira. Beraz, bertsolariak esan bezala idatziko da *etorri ezker*, “etorri ezker” esan eta *etorritz gero* jartzen bada, silaba bateko aldea egongo baita.

2.c) **BAIT- partikulak**, aditzari erantsita joan behar du, eta aldaketa fonetikoak, ahoz nahiz idatziz, markatu egin behar dira. Honenbestez, oin izan nahiz ez, *baita*, *baitugu*, *baikara* edo *baitziren* idatziko da.

2.d) **Aditzetan, bi bokal berdín ondoan** doazenean, aukera izaten da silaba bakar batean ebaki ala bitan egin. Osorik idatziko da hitza: *nukeren*, eta *ez nuken*. Irakurleari dagokio bertsolariak nola esan duen interpretatzea, neurriak lagunduko baitio horretan.

2.e) **Aspirazioarekin**, Euskaltzaindiak euskara baturako emaniko arauak beteko dira, kasu guztietan. Bokal artean edo diptongo haustaile modura erabiltzen diren *h*-ekin sor litezkeen neurri gorabeherak, irakurleari dagokio interpretatzea. Esaterako, *zahar* hitzak bi silaba izango ditu “etxe zahar hau ikusi eta” esaten badu bertsolariak, eta silaba bakarra, “amona zahar hau ikusi eta” esan badu.

2.f) **[i + kontsonante] inguramenduan**, euskalki askotan **bustidura** gertatzen da. Horietan, Euskaltzaindiak euskara baturako onartu dituen formak erabiliko dira. Hala, “egiña” esan bada *egina* idatziko da; “miña”, *mina*; “habill”, *habil*; “mutilla”, *mutila*; eta “attatu”, *aitatu*.

Gauza bera **eremu murritzeoak** diren beste zenbait **bustidurekin** ere: “lauña”, “killo”, “zaindu” bezalako hitzak, *launa*, *kilo* edo *zaindu* idatziko dira.

Besterik da, **adierazkortasunaren** amorez egiten den **bustidura**. Adierazkor izan daitekeen bustidura oro, bertsolariak esan bezala aldaketuko da: *gixon*, *nexka*, *moñoña*, *muxu*, *xixtrin*, *kuttuna*...

Bustidurekin amaitzeko, badira sortzez adierazkorak ziren eta egun forma neutroan koka ditzakegun zenbait hitz: *muxu*, *xamarra*, *ixilik*, *kitto*... Horiek, bertsolariak ahoskatu bezala emango ditugu: bertsolariak “muxu” esan badu, *muxu* idatziko da, eta “musu” ahoskatu badu, *musu*.

2.g) **Nahasketak**: bertsolariak hitzen bat gaizki ebakitzen badu edo gaizki ahoskatzen badu, zuzendu egingo da. Adibidez, “langa” esan beharrean, “landa” esaten badu, edo “sua” esan beharrean “zua” esaten badu, bertsolariak oker esana zuzen jartzea da egokiena. Zenbait adibidek ez dute uzten dudarako tarterik; beste zenbaitetan, interpretatu egin beharko da, eta horretarako, bertsolariarekin berarekin egitea litzateke egokiena.

Bertsolariak lapsusen bat izaten badu, ordea, argibideak oin-oharrean emango dira. Esaterako:

Ez det damurik gazte denboran
pauso gozoak emana
horixe baita mundu honetan
oso berezko dan lana
hortikan datoz haurtxo gozoak
hortik aita eta asma
bikote batek ezin lezake
bide hoberikan asma
baina galdua daukat oraingoz
ordun egin nuen plana
gauz bat badaukat oraindik ere
sekulan ahazten ez dana
haritz zahar honen azpian gozo
nik hartu nuen laztana.

Lehen oinaren kasuan, bertsolariak “asma” esan zuen,
baina argi dago “ama” esan nahi zuela. Beraz, *asma* jarriko da, baina
oin-oharraren bidez adieraziko da lapsusa.

3.- **Idazketa zeinuak:** irakurlearentzat lagungarri eta ondo ulertzeko ezin-
besteko direnean baizik ez dira erabiliko idazkera zeinuak. Helburua bikoitza
da: zeinu-ekonomia batetik, eta gehiegizko interpretazio subjektiboak saihes-
tea bestetik. Bigarren honi dagokionez, transkribatzailearen esku geratzen da,
ezinbestean, bertsoren interpretazioa. Transkribatzailea irakurleari laguntzen
saiatuko da, beharrezko denean eta zeinuak garbi daudenean. Baina interpre-
tazio lan horretan irakurleak ere zuzeneko parte-hartzea izango du. Horregatik,
behar beharrezkoak eta nabarmenak diren zeinuak bakarrik jarri-
ko dira.

3.a) Lerro hautsia esaldiak banatzeko modu bat gehiago
denez idatzian, ez da beharrezkoa **lerroaren amaieran koma** edo
puntu eta koma jartzea. Adibidez:

Bastoiarekin ere ez da hain
segurua karnabala
lehengo urtean ere izan zen
nahikoa giro petrala
kalera irten ta gogoan dut
dena plastikoa zala
laban eginda erori nintzen
mezetara nindoala.

3.b) **Puntuaren barruan** ez da **komarik** edo **puntu** eta
komarik erabiliko, non eta esanahia argitzeko ezinbestekoa ez den.

Adibidez:

Egia da bai gustokoa dut
kolpetara jolastea
baina hortarako erabiltzen dut
hemengo jende gaztea.
Kostatu zaizu nire aurpegia
hori ez dela sinestea!
Aizu neskato ez dezu nahiko
arrautsak erakustea?

Hori zerri galanta
ez dabil brometan!
Hori putasemea!
Ta diot benetan.
Ta, Maialen, horrekin
ez jarri penetan
konfesatuko bainaiz
biharko mezetan.

3.c) **Puntua**. Behar denean, beti jarriko da puntua.

Adibidez:

Egun ta gauzez kalabozean
gure barruak ozpintzen
egondu gera. Hola errexa da
lur pareraino berdintzen.
“Irtengo zera” pentsatzen nuen
zerbait sinistu premi zen
baina halere ziur ez nekin
zutik irtengo al nintzen.

3.d) **Harridura eta galdera ikurrak** beti jarriko dira.
Elkarren segidan bi galdera edo harridurazko bi esaldi baldin bada-
toz, biei jarriko zaie ikurra, eta maiuskulaz idatziko da hurrengo
hitzaren lehen letra. Adibidez:

Holako eztabaidari
zertarako ekin?
Zergatik katiatu
metal kontuekin?
Hainbeste burni zati
dezunez zurekin
sartuko zera baina
ekipaiarekin.

**Hori zerri galanta
ez dabil brometan!
Hori putasemea!
Ta diot benetan.**

Ta Maialen horrekin
ez jarri penetan
konfesatuko bainaiz
biharko mezetan.

3.e) **Aipuak**. Esaldi kate baten barruan bertso zati bat txertatzen denean, **komatxoak** erabiliko ditugu, eta lerroak bereizteko, honako ikur hau erabiliko dugu, alde banatan tartea utzita: /.

Bertso osoa zitatzen ez denean, kendutako testuaren tokian honako ikur hau jarriko da: (...). Baita bertsoa esaldi katean txertatzen denean ere. Adibidez:

Umea zuri zenbat goraintzi
oroimenak du mila garrantzi
(...)

(...)
Bere argazki bat badago gelan
sekula ez dizut utzi
ta ze marrazki egin diozun
zoaz eta erakutsi.

(...)
zuri barrutik atera zaizu
zenbat maitasun ta antsi!
(...)

“Eta Irazuk 2001eko Txapelketa Nagusiako finalean kantatu zuen pasarte hau: “(...) Aita gabe ezin etsi / ta marraztera iritsi / (...) bere argazki bat badago gelan, / sekula ez dizut utzi / ta ze marrazki egin diozun / zoaz eta erakutsi”. Zeresan ugari sortu zuen bertsoaldi honek”.

Komatxoekin emaniko bertso zatiak estilo zuzenean egini-ko aipuren bat baldin badu, atal hori komatxo sinpleekin (‘’) idatziko dugu. Adibidez:

“Txirritarena da beste adibide hau ere: “Leihotikan ujuka / ama ta bi atso / ‘Ez dek harrapatuko / uste bezin mantso!’(...)”.

Bertsoak edo bertso zatiak esaldi katetik kanpo doazenean, ez da inolako komatxorik erabiliko horiek emateko. Adibide horietan ere estilo zuzeneko aipurik baldin bada, komatxoekin idatziko dira.

Puntuazio ikurrak ?puntuak (.), kakotxak (,), puntu eta kakotxak (;), bi puntuak (:) eta galdera (?) eta harridura ikurrak (!)?, komatxoaren aurretik edo ondotik jar daitezke, aldian-aldian zeri dagokion: edo koma arteko zatiari, edo koma artekoaz gaindikoari.

3.f) **Bi puntuak** erabili egingo dira, eta hurrengo hitza letra xehez idatziko da. Adibidez:

(...)
Gauza bat garbi esan nahi diot
pertsona degun orori:
bizitza denok merezi degu
gauza jakina da hori.

Bertsoaren barneko aipuak kakotx artean sartuko dira, bi puntuen beharrik gabe, baina aipuaren lehen letra maiuskulaz idatziko da. Adibidez:

(...)
Esan zidan “Mesedez
etor zaitetz hona”
(...)

(...)
Leihotikan ujuka
ama ta bi atso
“Ez dek harrapatuko
uste bezin mantso!”

3.g) **Apostrofeak:** (‘) apostrofeak, elipsiaren adierazletzat onarturik, erabilera zehatz hauek izan ditzake:

3.g.1) **ERE** hitzarekin egin ohi diren kontrakzioen adierazle: *lo’re* (lo ere), *hi’re* (hi ere), *bat’e* (batere edo bat ere), *gaur’e* (gaur ere)... Bertsolariak kontrakzioa egin da kantatu badu, apostrofearekin transkribatuko da.

3.g.2) **Zenbait aditz elkarketaren adierazpide** ere apostrofea erabiliko da: “pentsatzeu” kantatu duenari,

pentsatze'u transkribatuko zaio, “ateratzeizkio” esan duenari, *ateratze'izkio*, edo “ekartzazu” kantatu duenari, *ekar'zazu*.

3.g.3) Ondoko kasu hauek, berriz, **lotuta** idatziko dira: *begiraiogun* (begira diezaiogun), *emaidazu* (eman iezadazu), *esazu* (esan ezazu)...

3.g.4) **Aferesiak** ere apostrofearekin transkribatuko dira: *'torri*, *'karri*, *'makume*...

3.g.5) **Laburdurak** ere apostrofearekin transkribatuko dira: *gerra'* (=gerrara), *ganbara'* (=ganbarara)...

3.h) **(bis)**. Bertsolariak errepika egiten duenean, (bis) ikurra jarriko da errepikatzen duen lerro edo puntuaren ondoan. Adibidez:

(Doinua: *Uso xuria errazu I*)

Galdera egin dezu zinez
ta ni erantzun ezinez. (bis)
Bakarrik zaude laguntza eske
bakardaderik haundinez.
Laguna edo ni behar nauzun
argitu zazu gutxinez. (bis)

4.- Jaialdien leloak, liburuen izenburuak, hitz arrotzak eta hitz arrunten adiera bereziak **letra etzanez eta jatorrizko grafian** idatziko dira. Adibidez:

Bai Euskarari aldarripean
elkartu gara gaur hemen
(...)

Obabakoak baino lehenago
idatzi zuen *Bi anai*.
(...)

- *ruleta*, *revolver*, *feedback*, *in vitro*, *Jean Paul deux*, *statu quo*, *no comment*, *mobbing*, *de guay*, *allez*, *carrefour*, *portable*, *colle*, *tennisak*, *pouce* eta antzekoak.

- *txokolatea*, *segapotoa*, eta abar.

5.- **Bertso lerroak banatzeko bi tradizio** daude: Ipar Euskal Herrikoa (puntu osoa lerro bakarrean) eta Hego Euskal Herrikoa (hemistikioak lerro bakarrean). Irizpide hauetan bigarrena jarraitzen bada ere, biak dira egokiak.

6.- Bertsozale Elkarteak jakinarazten du transkribatzen diren gai eta bertsoek **autoreak** dituztela, eta saioek antolatzaileak. Edozein saio, bertsoaldi edo bertso publikatzerakoan beharrezkoa izango da bakoitzari dagokion aitortza egitea. Hedapen publikoari dagokionez, librea da informazio funtzio-tarako legeak ezarritako irizpideen baitan; gainerako funtzio-tarako bertsolarien baimena beharrezkoa izango da.

KOKAPEN IRIZPIDEAK

Saioa noiz eta non izan den eta partaideak zein izan diren argitzeko nahiz bertso sortaren inguruko zenbait argibide emateko dira kokapen irizpideak.

1.- Bertsolarien izen-deiturak:

1.1.- Bertsolaria **lehenengo deitura eta izenaren lehen hizkiarekin** izendatuko da. Adibidez: A.M. Peñagarikano, S. Colina, J. Maia, J.M. Irazu, U. Iturriaga, A. Mendiluze, M. Mendizabal...

1.2.- **Deitura eta izenean lehen hizki bera duten bertsolariak egonez gero**, izenaren inisialari bigarren hizkia gehituko zaio. Lehentasuna, lehendik plazan dagoenari emango zaio: bertsolari bat bestea baino askoz berriagoa bada, lehenengoaren izenari hizki bakarrarekin eutsiko zaio, eta bigarrena izango da bi hizki eramango dituen. Adibidez: J. Agirre (<Joxe Agirre), Jn. Agirre (<Jon Agirre), Js. Agirre (<Joseba Agirre). Garai beretsukoak badira bi bertsolariak, biei jarriko zaizkie lehen bi hizkiak. Adibidez: As. Otamendi, An. Otamendi.

1.3.- **Ezizena izena baino ezagunagoa** den kasuan ezizena erabiliko da. Adibidez: Mañukorta, Txiplas, Loidisaletxe II...

1.4.- Dena den, gomendagarria da argitalpenaren amaieran aurkibide bat gehitzea. Aurkibide honek, ezizen eta inisialak bertsolari bakoitzaren izen-deitura osoekin nahiz beharrezko irizten diren gainontzeko datuekin lotuko ditu.

Bestalde, Bertsozale Elkarteak bertsolari, gai-jartzaile eta gainontzeko eragileen autoritate-zerrenda osatzen ari da. Lana amaitzean jarriko da edonork eskuratzeko moduan.

2.- **Bertso sorta kokatu** egin behar da. Transkribatutako bertsoak bere kontestuan ulertu ahal izateko gomendagarria da ondorengo informazioa ematea: lekua / garaia / gai-emailea (aurkezlea, gai-jartzailea) / gaia / neurria / doinua / bertsoak.

2.1.- **Lekua:**

Herria, Euskaltzaindiaren izendegi ofizialean onartutako moduan idatziko da. Adibidez: Oiartzun, Durango, Gasteiz, Lesaka, Markina-Xemein...

Auzoa denean, herriaren izena lehenengo, eta jarraian, parentesi artean auzoa adieraziko da. Adibidez: Bilbo (Santutxu), Ataun (Aia), Mutiloa (Liermi), Azpeitia (Landeta)...

2.2.- **Data:**

Eguna: uuuu-hh-ee. Adibidez: 2002-10-26

Grabazio zahar **batzuetan ez da erraza data zehazten**. Horrelakoetan ahalik eta gehien hurbiltzen saiatuko gara. Bertsoak entzuteak informazio asko ematen du: San Juan jaiak direla, halako langileak greban daudela, urte sasoi...

Adibidez: 1966ko San Pedro jaiak, 1977ko udaberria...

2.3.- **Gaia** letra biribilez idatziko da, eta irizpideetan adierazi bezala (ikus 0 puntua). Adibidez:

Gaia: Espetxean jaio eta hazi den haurra dugu Jon. Murua haren ama. Mundua ulertzeko zailtasunak ditu semeak eta amari galdezka hasi zaio.

2.4.- **Neurria** letra biribilez idatziko da. Zenbait estrofen izena aski finkatua badago ere, beste zenbait izendatzeko eredu bat baino gehiago erabiltzen dira. Finkatzen direnean, irizpide hauetan txertatuko dugu zerrenda osoa.

2.5.- **Doinua** letra etzanez idatziko da eta *Bertso Doinutegian* izendatutako moduan. Doinua beste izen batekin ezagunagoa denean, lehena eta bigarrena jarriko dira. Adibidez: *Aranora joan ziran I / Sastarretik hasita*.

3.- Saioko aurkezlea, gai-emailea eta gai-jartzailea bereizi egingo dira. Aurkezleak, bertso ekitaldi bat inguratzen duten xehetasunen berri ematen du;

gai-emaileak, bertsolariei saioan gaiak ematen dizkie; eta gai-jartzaileak, saioaren aurretik gaiak jarri, prestatzen ditu. Funtzio ezberdinak pertsona ezberdinek betetzen badituzte, hala adieraziko da. Bestela, lan denak pertsona berak egin dituela ulertuko da, hau da, gai-emaileak. Guztiak letra biribilez idatziko dira. Adibidez:

Aurkezlea: Mikel Taberna
Gai-jartzailea: Bertsozale Elkarteko gai-jartzaile taldea
Gai-emailea: Bernardo Mandaluniz

Gai-jartzailea: Herriko Bertso Eskola
Gai-emailea: Jon Zaldua

Gai-emailea: Laxaro Azkune

4.- Hona hemen kokapen irizpideez esandakoa biltzen duen adibidea:

DONOSTIA (2001-12-16)

Aurkezlea: Mikel Taberna
Gai-jartzailea: Bertsozale Elkarteko gai-jartzaile taldea
Gai-emailea: Saroi Jauregi

A. Mendiluze – M. Lujanbio

Gaia: Zuek nortasun agiri edo identifikazio kartak zarete. Aitor, ENA edo Euskal Nortasun Agiria zara, eta Maialen, Espainiako nortasun agiria. Biok zaudete pertsona beraren karteran. Hiruna bertso, zortziko handian, Aitor hasita.

Neurria: zortziko handia
Doinua: *Ludi bititza abesti gozoz I*

A. Mendiluze: Gaur bi agirik topo egin degu
 baina zer demontre da hau?
 Bistakoa da: bere buruan
 aurretik eginak dirau.
 Nahi ez duela heldu zaizkio
 hainbat lege hainbat arau.
 Zu jarrarazi egin zaituzte
 eta ni berak jarri nau.

- M. Lujanbio: Baina bidea nik libre daukat
ta zuk bete-bete trabaz
ni gazteleraz inprimatua
eta zu berriz euskaraz...
Gure jabea beti dabil zu
beste baterako lagaz.
Argazia ere munituta dezu
izango zuen dardaraz!
- A. Mendiluze: Biak batera zeuzkan ordea
dardara eta zentzuna.
Ni egitea izan da beraz
zurekiko erantzuna.
Nik azaltzen det jabeak duen
berearen maitasuna
zuk bere izena azaltzen dezu
ta nik bere nortasuna.
- M. Lujanbio: Biak patrika berean gaude
biak elkarren hurrean.
Ni zurekin ez baina zu zaude
nerekiko haserrean.
Zu nortasuna omen zerala
diozu modu errean.
Nortasuna ere galtzen du batek
goardia zibilen aurrean!
- A. Mendiluze: Goardia zibilen aurrean nahiz ta
susto bat duen hartua
ni atera nau nahiz eta izan
zuregatik galdetua.
Jarrera horrek ni indartzen nau
ta zeu zera kaltetua.
Indarra dezu baina horrela
kenduko dizut lekua.
- M. Lujanbio: Neri lekua kendu nahiean
al da zure jo ta kea?
Oraindik indar haundia daukat
beharko dezu tartea.
Nere aurpegiak sortarazten du
patxara eta pakea
zure aurpegiak irekitzen du
kalabozoko atea.

BERTSO-LANEN IZENAK

Bertso-lanak honela izendatuko dira:

Hasierako agurra

Bukaerako agurra

Agur berezia. Sail honetan sartzen dira bertso bidez egiten diren: sari har-tzeak, sari emateak, hileta agurrak, eskaintzak, omentzeak, eskertzeak eta aur-kezenak.

Bakarka, azken-aurreko puntua emanda

Bakarka, azken puntua emanda

Bakarka¹, gaia emanda

Bakarka¹, gauza gaitzat emanda

Bakarka¹, hitza gaitzat emanda

Bakarka, lau² oinak emanda

Bakarka, lehen puntua emanda

Bakarka, oina emanda. Bertsolariari, bertsoan erabili beharreko oin bat ematen zaionean.

Binaka³, gai librean

Binaka³, puntutan gai librean

Binaka³, puntutan gaia emanda

Seinaka⁴, gaia emanda batek besteei. Bertsolari batek banan-banan beste bertsolari guztiei kantatzen dienean. Bertsokideen erantzunak jasotzen baditu, horiek ere bertsoaldi berean sartuko dira.

Seinaka⁴, gaia emanda besteek bati. Bertsolari guztiek banan-banan ber-tsolari bakarrari kantatzen diotenean. Bertsolari honen erantzun-bertsoak ere bertsoaldi berean sartuko dira.

***Kartzelako lana.** Edozein delarik ere ariketa, adierazi egingo da kartze-lako lana bada. Adibidez:

kartzelako lana: bakarka, gaia emanda

kartzelako lana: binaka, puntutan gaia emanda.

...

(1) Bakarka / Binaka / Hirunaka / Launaka / Bosnaka / Seinaka / ... izan daiteke.

(2) lau / bost / sei / zazpi / zortzi / bederatzi / ... izan daiteke.

(3) Binaka / Hirunaka / Launaka / ... izan daiteke.

(4) Hirunaka / Launaka / Bosnaka / Seinaka / .. izan daiteke.

Bertso-saioen mugimendua

2003. URTEAN ANTOLATU DIREN BERTSO-SAIOAK

2003KO BERTSO-SAIOAK

PROBINTZIAK	Jaialdia	Plaza librekoa	Lagun artekoak	Sari- ketak	Hitzal- diak	Ekital- dipekoak	Bereziak	Txapel- ketak	Didak- tikoak	Gainera- koak	Denera
Gipuzkoa	77	102	143	29	9	27	106	24	17	13	547
Bizkaia	63	52	176	12	7	7	52	5	0	8	382
Nafarroa	12	11	53	25	1	5	19	4	0	0	130
Araba	16	15	10	7	0	4	16	10	1	0	79
Iparraldea	5	16	18	0	1	4	8	5	27	1	85
Denera	173	196	400	73	18	47	201	48	45	22	1223

GIPUZKOA

PROBINTZIAK	Jaialdia	Plaza librekoa	Lagun artekoak	Sari- ketak	Hitzal- diak	Ekital- dipekoak	Bereziak	Txapel- ketak	Didak- tikoak	Gainera- koak	Denera
Bidasoa Beherea	1	8	7	0	0	2	7	1	7	0	33
Deba Beherea	6	10	15	4	0	2	11	1	3	1	53
Deba Garaia	6	9	13	0	0	0	13	5	1	1	48
Donostialdea	20	22	31	6	6	11	19	4	2	2	123
Errenterialdea	4	7	12	8	1	3	7	2	1	2	47
Goierrri	14	21	21	8	1	4	11	3	1	4	88
Tolosaldea	15	12	27	0	0	3	19	2	2	2	82
Urola Kostaldea	1	13	17	3	1	2	19	6	0	1	73
Denera	77	102	143	29	9	27	106	24	17	13	547

BIZKAIA

PROBINTZIAK	Jaialdiak	Plaza librekoa	Lagun artekoak	Sari- ketak	Hitza- diak	Ekital- dipekoak	Bereziak	Txapel- ketak	Didak- tikoak	Gainera- koak	Denera
Arrati-Nerbioi	5	4	13	1	0	0	1	0	0	0	24
Bilbo Handia	39	18	67	4	3	1	26	1	0	2	161
Durungaldea	9	13	37	3	0	3	8	0	0	3	76
Enkartzazioak	0	0	5	0	0	0	0	0	0	0	5
Gemika-Bermeo	2	4	22	1	1	1	1	1	0	1	34
Markina-Ondarroa	5	10	13	3	3	1	12	2	0	1	50
Plentzia-Mungia	3	3	19	0	0	1	4	1	0	1	32
Denera	63	52	176	12	7	7	52	5	0	8	382

NAFARROA

PROBINTZIAK	Jaialdiak	Plaza librekoa	Lagun artekoak	Sari- ketak	Hitza- diak	Ekital- dipekoak	Bereziak	Txapel- ketak	Didak- tikoak	Gainera- koak	Denera
Bidasoa	5	8	26	9	0	1	5	3	0	0	57
Erdalgunea	3	1	8	5	1	2	10	0	0	0	30
Mendebaldea	4	2	18	10	0	2	4	1	0	0	41
Pirinioak	0	0	1	1	0	0	0	0	0	0	2
Denera	12	11	53	25	1	5	19	4	0	0	130

ARABA

PROBINTZIAK	Jaialdiak	Plaza librekoa	Lagun artekoak	Sari- ketak	Hitza- diak	Ekital- dipekoak	Bereziak	Txapel- ketak	Didak- tikoak	Gainera- koak	Denera
Aiaraldea	1	3	2	2	0	0	1	0	0	0	9
Errioxa Arabarra	1	2	1	0	0	0	1	0	0	0	5
Gorbeia inguruak	3	1	2	2	0	2	1	1	0	0	12
Ibarrak	0	1	0	0	0	0	0	0	0	0	1
Kantauri arabarra	3	1	2	2	0	1	5	1	1	0	16
Lautada	8	7	3	1	0	1	7	7	0	0	34
Mendialdea	0	0	0	0	0	0	1	1	0	0	2
Denera	16	15	10	7	0	4	16	10	1	0	79

IPAR EUSKAL HERRIA

PROBINTZIAK	Jaialdiak	Plaza librekoa	Lagun artekoak	Sari- ketak	Hitza- diak	Ekital- dipekoak	Bereziak	Txapel- ketak	Didak- tikoak	Gainera- koak	Denera
BAM	0	1	2	0	0	2	0	1	6	1	13
BNafarroa-Zuberoa	2	3	6	0	0	0	3	1	8	0	23
Lapurdi barne	3	12	10	0	1	2	5	3	13	0	49
Denera	5	16	18	0	1	4	8	5	27	1	85

Tauletako kontzeptuen azalpena

Jaialdiak:	lau bertsolari edo gehiago eta gaiak emanda.
Plaza librea:	bi-hiru bertsolari, librean, plazan, jaietan...
Lagunartea:	jatordu giroan edo antzekoetan gehienbat.
Txapelketak:	Bat-batekoak: Euskal Herrikoa, herrialdeetakoak edo eskolartekoak.
Sariketak:	Bat-batekoak: elkarteek, udalek edo motibo jakin baten inguruan antolatuak.
Hitzaldiak:	Bertsolaritza gai izanik edozein markotan antolatuak.
Ekitaldipekoak:	Bertsotarako ez den ekitaldian egindako saioak (omenaldi, ezkontza...)
Bereziak:	Saio musikatuak, esperimentalak eta bertso jarriekin eginak.
Gainerakoak:	Aurreko sailetan sartzen ez direnak.

Herrialdeak:

Herrialdeetako sailkapen berritua, azken urteetan, euskararen azterketa soziolinguistikoak egiteko erabiltzen den sailkapenean oinarritu da.

GIPUZKOA

Bidasoa Beherea:	Hondarribia eta Irun.
Deba Beherea:	Deba, Eibar, Elgoibar, Mutriku, Soraluze, Mendaro eta Gatzaga.
Deba Garaia:	Arrasate, Antzuola, Bergara, Elgeta, Leintz-Gatzaga, Errigoiti, Oñati, Eskoriatza eta Aretxabaleta.
Donostialdea:	Lasarte-Oria, Donostia, Astigarraga, Hernani, Andoain, Urnieta eta Usurbil.
Errenterialdea:	Pasaia, Lezo, Erreterria eta Oiartzun.

- Goierri: Mutiloa, Ordizia, Beasain, Lazkao, Itsasondo, Idiazabal, Zegama, Urretxu, Zumarraga, Legazpi, Segura, Gabiria, Altzaga, Zaldibia, Zerain, Ataun, Olaberria...
- Tolosaldea: Aduna, Tolosa, Alkiza, Amezketza, Altzo, Anoeta, Bidegoyan, Ibarra, Larraul, Ikaztegieta, Lizartza, Zizurkil, Villabona, Irura, Albiztur, Asteasu, Abaltzisketa...
- Urola Kostaldea: Azkoitia, Azpeitia, Zestoa, Beizama, Getaria, Orio, Zarautz, Zumaia, Aizarnazabal, Errezil eta Aia.

BIZKAIA

- Arrati-Nerbioi: Areatza, Artea, Dima, Igorre, Zeanuri, Zeberio, Orozko, Otxandio, Ugao-Miraballes, Arakaldo, Arantzazu, Ubide, Urduña...
- Bilbo Handia: Arrigorriaga, Berango, Muskiz, Bilbo, Deio, Erandio, Galdakao, Getxo, Larrabetzu, Leioa, Lezama, Portugalete, Sondika, Etxebarri, Loiu, Basauri...
- Durungaldea: Durango, Abadiño, Berriz, Elorrio, Mallabia, Ermua, Iurreta, Mañaria, Igorre, Amorebieta-Etxano, Zaldibar, Zornotza, Atxondo, Lemoa...
- Enkartzioak: Galdames, Balmaseda, Zalla, Gordexola, Gueñes, Karrantza, Lanestosa, Sopuerta...
- Gernika-Bermeo: Arratzu, Bermeo, Gernika-Lumo, Muxika, Nabarniz, Busturia, Ea, Elantxobe, Ereño, Gerrikaitz, Sukarrieta, Morga, Ibarrangelua, Kortezubi, Forua...
- Ibarrak:
- Markina-Ondarroa: Amoroto, Berriatua, Lekeitio, Markina-Xemein, Ondarroa, Aulesti, Mendexa, Ispaster, Gizaburuaga, Etxebarria, Munitibar-Arbatzegi, Gerrikaitz.
- Plentzia-Mungia: Gatika, Mungia, Plentzia, Sopelana, Urduliz, Lemoiz, Gorniz, Bakio, Laukiz, Gamiz-Fika, Arrieta, Barrika, Fruiz, Maruri-Jatabe, Meñaka.

NAFARROA

- Bidasoa: Oitz, Donamaria, Ituren, Eratsun, Beintza-Labaien, Arizkun, Elizondo, Anitz, Arantza, Bera, Etxalar, Lesaka, Amaiur, Doneztebe, Irurita, Igantzi...
- Erdalgunea: Iruñea, Brañain, Burlata, Berriozar, Zizur Nagusia, Tutera, Antsoain, Arre, Etxauri, Atarrabia, Gares, Noain, Tafalla, Lizarra, Uxue...
- Mendebaldea: Altsasu, Urdiain, Bakaiku, Etxarri-Aranatz, Arbizu, Lizarraga, Lakuntza, Uharte Arakil, Etxarren, Gartzaron, Leitza, Areso, Goizueta, Arano, Uhitzi, Lekunberri...
- Pirinioak: Garralda, Orreaga, Orbaitzeta, Aribere, Hiriberri, Izaba, Erronkari, Burgi, Agoitz, Zangoza, Zubiri, Erro, Eugi, Otsagi...

ARABA

- Aiaraldea: Izarra, Aiala, Arrespaldiza eta Artziniega.
- Errioxa Arabarra: Bilar, Oion, Eskuernaga, Elciego, Kripan, Labastida, Lantziego, Laguardia, Lapuebla de Labarca...
- Gorbeia inguruak: Aramaio, Legutiano, Zigoitia, Urkabustaiz eta Zuia.
- Ibarrak: Zanbrana, Añana, Armiñon, Berantevilla, Kuartango, Lantaron...
- Kantauri arabarra: Amurrio, Artziega, Aiara, Llodio eta Okondo. Lautada: Agurain, Gasteiz, Alegria-Dulantzi, Iruraiz-Gauna, Asparrena, Barrundia, Iruña Oka, Donemiliaga, Burgelu...
- Mendialdea: Arraia-Maeztu, Bernedo, Kanpezu, Harana, Lagran eta Urizaharra.

IPARRALDEA

- BAM: Baiona, Angelu eta Miarriz.
- Behe Nafarroa-Zuberoa: Jatsu, Irulegi, Baigorri, Sohüta, Amikuze, Donaixti, Urdiñarbe, Donibane-Garazi, Aiziritze, Ortzaize, Izpura, Arroza, Banka...
- Lapurdi barnealdea: Hendaia, Urruña, Ziburu, Sara, Azkaine, Senpere, Uztaritze, Ezpeleta, Kanbo, Itsasu, Basusarri, Hazparne, Bidarria, Lekorne, Larresoro...



*Bixente Barandiaran
Itsasondo (1917 - 2003)*

Argazkilaria: J.Egaña



*Sebastian Salaberria
Oiartzun (1915 - 2003)*

Argazkilaria: J.Sorozabal




*Joxe Usabiaga "Zamalbide"
Errenteria (1928 - 2003)*

Argazkilaria: A. Elozegi

ZENBAIT AZALPEN

1.- Orain arteko Bapatean liburuek 600 bertso inguru jaso dituzte, 1995koa ezik, hau 300 bertsokoa izan baitzen. 2003ko honek 628 bertso dakartza.

2.- Azkeneko urteetako esperientziari jarraituz, liburua 2 KD gehigarri osatzen da, bertan liburuko hainbat sorta entzun daitezke. Horretarako liburuan musika ikur () bat itsatsi zaie entzungarri dauden bertso sortei.

3.- *Bapatean 2003* osatzeko irizpideak, aurreko liburuetan ibilitako berberak izan dira.

4.- Liburu hau antologia bat dela esan daiteke hein batean, baina ez bere osotasunean. Liburuaren korpus nagusiak, herritarrek antolatutako bertso-saioetan bat-batean kantatutako bertsoak jasotzen ditu, bertsolariak eta hauen saio kopuruak kontutan harturik. Beraz, liburu honek, plazaz plaza dabiltzan bertsolarien ekarpena islatzen du.

5.- Jakin badakigu egiten diren mota guztietako bertso-saioen informazioa biltzea ia ezinezkoa dela, baina ziur gaude ehuneko handi batean jasota dagoela. Besterik da grabatzen dena: 2003an 230 saio grabatu dira entzuteko euskarrian, 345 bat ordu.

6.- 2003. urtean bat-batean kantatutako bertsoak ditu kontuan liburu honek, baina Arabako Txapelketa, Nafarroako Txapelketa, Gipuzkoako Txapelketa eta Eskolartekoan kantatuak ez. Bertso-papereen alorrekorik ere ez da jasotzen, baina bai Gazte Sariketetakoak.

7.- Liburu hau osatzeko oinarria, Xepelar Dokumentazio Zentroan jasotako informazioa, entzutezko grabazioak eta hauei dagozkien fitxak izan dira.

8.- Lan hau burutzeko, modu batera edo bestera esku hartu dute:

- Oihana Aranburu, Nere Erkiaga eta Arantza Mariskal XDZko kideak.
- Amaia Agirre, Martin Aramendi, Laxaro Azkune, Eneko Bidegain, Xabier Begiristain, Xabier Enbeita, Felix Irazustabarrena, Oihane Perea, grabaketa eta bilketa lanetan.
- Transkribaketa lanetan Martin Aramendi eta Amaia Agirre.
- Azken orrazketa lanetan Arakaitz Goikoetxea eta Juanjo Respaldiza.

9.-Guzti hau burutu ahal izateko, oso garrantzizkoa izan da jasotako diru-laguntza: Jaurlaritzako Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailordetzarena, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamentuko Zuzendaritza Nagusiarena eta Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara Sustapenerako Zuzendaritzarena.

Bertsozale Elkarte

**TXAPELKETAK,
SARIKETAK,
LEHIAKETAK...**

TXAPELKETAK, SARIKETAK, LEHIAKETAK...

1.- Herrialde mailako txapelketa

II. Arabako Bertsolari Txapelketa

Txapelketa hiru fasetan burutu da: kanporaketak, finalaurreak eta finala.

Kanporaketak: 2003-04-05 Dulantziko frontoian

Ekaitz Elorriaga
Irati Anda
Karla Santisteban
Iker Agirre
Serapio Lopez
Lander Meaza

2003-04-12 Bastidako Kultur Etxean

Zigor Enbeita
Andere Arriolabengoa
Alberto Martinez
Iñaki Viñaspre
Iker Ibarrola
Ane Zelaia

Finalaurreak: 2003-05-10 Legutioko Kultur Etxea

Iker Agirre
Iñaki Viñaspre
Andere Arriolabengoa
Asier Otamendi
Oihane Perea
Ruben Sanchez

2003-05-17 Amurrioko Zarobe Institutoko Ekitaldi
Aretoan

Manex Agirre
Rikardo Gonzalez de Durana
Juan Mari Juaristi
Zigor Enbeita
Alberto Martinez
Irati Anda

Finala: 2003-06-01 Gasteizko Printzipal Antzokian
Zigor Enbeita (txapel-dun)
Oihane Perea (bigarren)
Asier Otamendi
Ruben Sanchez
Manex Agirre
Juan Mari Juaristi

Epai-mahaia:

Felix Irazustabarrena, Mirari Azula, Xabier Ormaetxea, Patxi Aizpurua. Idazkariak: Jose Luis Ormaetxea eta Karmele Madinabeitia.

Gai-jartzaileak:

Iñaki Gurrutxaga, Iñigo Izagirre, Lierni Altuna, Nagore Soroa, Naroa Sasieta, Irati Lotina.

Antolatzailea:

Arabako Bertsosale Elkarte

VIII. Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa

Txapelketa lau fasetan burutu da: eskualdeetako kanporaketak, kanporaketak, finalaurreak eta finala.

Eskualdeetako kanporaketak:

2003-09-26 Aia: Nahikari Gabilondo, Ibai Esoain, Aritz Lasa, Urko Egaña, Aitor Usandizaga, Gorka Iribar.

2003-09-26 Astigarraga: Manex Mujika, Ander Lizarralde Jimeno, Ibon Miner, Jon Iraola, Iker Alustiza Gorka Etxeberria.

- 2003-10-03 Zestoa: Xabier Astigarraga, Jokin Labayen, Joseba Barandiaran, Asier Iriondo, Migel Anjel Aiertza, Ander Lizarralde Lizarralde.
- 2003-10-03 Pasaia: Aritz Zerain, Jose Luis Urdangarin, Iker Osa, Juanito Mitxelena, Josu Oiartzabal, Arkaitz Oiartzabal.
- 2003-10-03 Zaldibia: Iban Urdangarin, Alfontso Jimenez, Alaitz Sarasola, Iker Zubeldia, Bixente Gorostidi, Joxe Munduate.
- 2003-10-03 Mutriku: Iñigo Manzisidor “Mantxi”, Iñigo Izagirre, Iñaki Gurrutxaga, Felix Zubia, Julen Zulaika, Iñaki Petxarroman.
- 2003-10-10 Bergara: Jokin Uranga, Ainhoa Agirreazaldegia, Leire Ostolaza, Mikel Arrillaga, Beñat Lizaso, Oskar Alberdi, Gorka Ojanguren, Enaitz Alustiza.
- 2003-10-10 Oiartzun: Jon Martin, Estitxu Eizagirre, Agin Rezola Joxe Angel Aranburu, Aitor Albistur, Jon Ansa.
- 2003-10-10 Legorreta: Ekaitz Goikoetxea, Amaia Agirre, Iñaki Apalategi, Antton Fernandez, Gorka Azkarate, Uxue Fernandez.
- 2003-10-10 Orío: Unai Muñoa, Andoni Otamendi, Xabier Sukia, Egoitz Eizagirre, Zigor Iriondo, Imanol Lizarazu.

Kanporaketak: 2003-10-25 Oñatiko Santa Ana antzokian
 Estitxu Eizagirre
 Jokin Uranga
 Iñigo Izagirre
 Nerea Elustondo
 Xabier Sukia
 Iban Urdangarin

2003-10-26 Ordiziko Herri antzokian

Iker Zubeldia
Unai Agirre
Alfontso Jimenez
Leire Ostolaza
Unai Muñoa
Felix Zubia

2003-11-01 Hernaniko Sandiusterrri aretoan

Ekaitz Goikoetxea
Nahikari Gabilondo
Iñigo Manzisidor “Mantxi”
Iñaki Gurrutxaga
Jose Luis Urdangarin
Agin Rezola

2003-11-02 Zumaiko Maria eta Jose ikastetxean

Arkaitz Goikoetxea
Jon Martin
Bixente Gorostidi
Ainhoa Agirrezaldegi
Andoni Otamendi
Xabier Astigarraga

2003-11-09 Andoaingo Basatero kultur etxea

Aitor Sarriegi
Amaia Agirre
Aritz Zerain
Mikel Arrillaga
Iker Osa
Alaitz Sarasola

Finalurreak: 2003-11-16 Eskoriatzako kiroldegian

Maialen Lujanbio
Aitor Mendiluze
Amaia Agirre
Arkaitz Goikoetxea
Estitxu Eizagirre
Bixente Gorostidi

2003-11-23 Zarauzko kiroldegian

Ekaitz Goikoetxea
Iñaki Gurrutxaga
Iñaki Zelaia
Jokin Uranga
Aitor Sarriegi
Nahikari Gabilondo

2003-11-30 Tolosako Leidor antzokian

Jexux Mari Irazu
Jon Maia
Jon Martin
Iker Zubeldia
Iñigo Manzisidor “Mantxi”
Iñigo Izagirre

Finala:

2003-12-14 Irungo Artaleku kiroldegia

Maialen Lujanbio (txapeldun)
Jon Martin (bigarren)
Aitor Mendiluze
Jon Maia
Iñaki Gurrutxaga
Jexux Mari Irazu
Ekaitz Goikoetxea
Amaia Agirre

Epai-mahaia:

Jon Agirre, Mikel Aizpurua, Martin Aramendi, Aitzol Astigarraga, Urtzi Bastarrika, Migel Mari Imaz, Felix Irazustabarrena, Mikel Iturbe, Joxe Kruz Labaka, Zigor Leunda, Jon Marcos, Asier Oiarbide, Jose Anjel Oiartzabal, Patzi Perurena, Bakarne Urreaga.

Gai-jartzaileak:

Manuel Arruti, Egoitz Aizpuru, Laxaro Azkune, Unai Elizasu, Irati Goikoetxea, Saroi Jauregi, Maria Asun Oteiza, Xabino San Sebastian, Gorka Tolosa eta Jon Zaldua.

Antolatzailea:

Gipuzkoako Bertsozale Elkarte. Babeslea Gipuzkoako Kutxa eta Gipuzkoako Foru Aldundia.

XXXII. Nafarroako Bertsolari Txapelketa

Txapelketa hau hiru fasetan burutu da: lehenik, Nafarroako bertso liga, eta ondoren, finalaurreak eta finala.

II. Nafarroako bertso liga

- 2003-02-08 Iruñea: Iñigo Olaetxea, Aritz Saragueta, Eneko Lazkoz, Beñat Taberna.
- 2003-02-14 Iraizoz: Xabier Silveira, Mikel Altzuart, Julen Zelaieta, Jon Barberena.
- 2003-02-15 Atallu: Xabier Legarreta, Oskar Estanga, Josema Leitza, Oskar Goñi.
- 2003-02-15 Urdiain: Bittor Elizagoien, Iñigo Ibarra, Joseba Beltza, Josetxo Etxenike.
- 2003-02-15 Leitza: Estitxu Arozena, Jose Juan Zubieta, Nerea Bruño, Jon Elizetxe.
- 2003-02-21 Etxarri Aranatz: Xabier Legarreta, Iñigo Olaetxea, Eneko Lazkoz, Josetxo Etxenike.
- 2003-02-22 Amaiur: Bittor Elizagoien, Jose Juan Zubieta, Josema Leitza, Jon Barberena.
- 2003-02-22 Tutera: Mikel Altzuart, Iñigo Ibarra, Nerea Bruño, Oskar Goñi.
- 2003-02-22 Berriozar: Estitxu Arozena, Oskar Estanga, Julen Zelaieta, Beñat Taberna.
- 2003-02-22 Lakuntza: Xabier Silveira, Aritz Saragueta, Joseba Andoni Beltza, Jon Elizetxe.
- 2003-02-28 Arbizu: Xabier Silveira, Josema Leitza, Iñigo Ibarra, Jon Elizetxe.
- 2003-02-28 Zizur Nagusia: Estitxu Arozena, Mikel Altzuart, Joseba Beltza, Oskar Goñi.
- 2003-02-28 Lesaka: Iñigo Olaetxea, Jose Juan Zubieta, Julen Zelaia, Beñat Taberna.
- 2003-03-01 Astiz: Xabier Legarreta, Aritz Saragueta, Nerea Bruño, Jon Barberena.
- 2003-03-01 Garralda: Bittor Elizagoien, Oskar Estanga, Eneko Lazkoz, Josetxo Etxenike.

Txapelketarako sailkatuak:

Bittor Elizagoien, Julen Zelaieta, Nerea Bruño, Oskar Estanga, Estitxu Arozena, Jose Juan Zubieta “Etxabe”, Joseba Andoni Beltza, Xabier Silveira, Xabier Legarreta, Aritz Saragueta, Iñigo Olaetxea, Iñigo Ibarra.

Nafarroako Bertsolari Txapelketa 2003

Finalaurreak: 2003-03-09 Elizondoko Antxitonea trinketean
Sustrai Colina
Bittor Elizagoien
Julen Zelaieta
Nerea Bruño
Oskar Estanga
Egoitz Zelaia

2003-03-16 Baigorriko zinema aretoan
Amets Arzallus
Estitxu Arozena
Jose Juan Zubieta “Etxabe”
Joseba Andoni Beltza
Femin Mihura
Eneritz Zabaleta

2003-03-23 Goizuetako kultur etxean
Xabier Silveira
Xabier Legarreta “Arano”
Aritz Sargueta
Iñigo Olaetxea
Miren Artetxe
Iñigo Ibarra

Finala: 2003-03-30 Lesakako Zambra aretoa
Amets Arzallus (txapelduna)
Sustrai Colina (bigarren)
Xabier Silveira
Estitxu Arozena
Xabier Legarreta “Arano”
Julen Zelaieta
Bittor Elizagoien
Miren Artetxe

Epai-mahaia:
Jon Abril, Eneko Bidegain, Mikel Bujanda, Patxi Larretxea, Saioa Mitxelena, Beñat Soule eta Joxe Urroz.

Gai-jartzaileak:
Alaitz Rekondo, Miren Bidarte, Manu Legarra, Manolo Arozena eta Josu Etzanobe.

Antolatzailea:
Nafarroako Bertsozale Elkarte. Babeslea Nafarroako Gobernuko Vianako Printzea erakundea eta laguntzaile nagusia Nafarroako Aurrezki Kutxa.

2.- ESKOLARTEKO TXAPELKETAK*

Urtero bezala udaberrian burutu ziren Eskolarteko Txapelketak, lehenik herrialdez herrialde eta gero Euskal Herri mailakoa. Hona emaitza:

VIII. Arabako Eskolarteko Txapelketa

Kanporaketak: 2003-05-30 Aramaio
2003-05-30 Gasteiz
2003-05-23 Aiara-Kanpezu

Finala: 2003-06-07 Gasteiz (Gaztetxoak)
Maialen Berasategi (txapeldun)
Maite Celestino (bigarren)
Ander Lertxundi
Ieltzu Ibarra
Iker Errasti
Iraia Beitia
Jagoba Apaolaza
Kepa Jorge
Olatz Ezpeleta
Txomin Elortza

2003-06-06 Gasteiz (Gazteak)
Ane Zelaia (txapeldun)
Iker Agirre (bigarren)
Gillen Agirre
Hodei Lopez de Arkaute
Idoia Beitia
Markel Becares
Uxue Diaz de Cerio
Xabier Lasa

Antolatzailea: Arabako Bertsozale Elkartea eta Arabako Ikastolen Elkartea.

(*) Eskolarteko herrialdeetako bertso idatzen emaitzak bertso-paper lehiaketan atalean daude.

XXX. Bizkaiko Eskolarteko Txapelketa

Kanporaketak: 2003-05-23 Bermeo
2003-05-24 Ondarroa
2003-05-26 Markina-Xemein

Finala: 2003-06-06 Bilbo El Carmen aretoa
Gaztetxoak:
Miren Amuriza (txapeldun)
Eñaut Uruburu (bigarren)
Arrate Illaro
Xabier Solaguren
Jone Uria
Itsaso Amaia Paia
Beñat Romero
Maialen Berekoetxea

Gazteak:
Josu Martinez (txapeldun)
Jon Agirre (bigarren)
Joanes Igeregi
Amaia Jauregizar
Ander Elortegi
Iker Gangoiti
Manex Sagarna
Beñat Vidal

Antolatzailea: Bizkaiko Ikastolen Elkarte

XXIII. Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketa

Kanporaketak: 2003-05-09 Donostia
2003-05-16 Zarautz
2003-05-23 Eskoriatza
2003-05-30 Urretxu

Finala: 2003-06-06 Lazkao
Gaztetxoak:
Zumaiako taldea (txapeldun)
Gazteak:
Beñat Gaztelumendi (txapeldun)
Alaia Matin (bigarren)

Antolatzailea: Gipuzkoako Ikastolen Elkarte

X. Iparraldeko Eskolarteko Txapelketa

Kanporaketak: 2003-05-19 Baiona
2002-05-20 Hazparne

Finala: 2003-06-06 Aiherra (Gaztetxoak)
Talde txapelduna:
Hendaia: Maddalen Arzallus, Kristiñe
Txoperena, Marga Berra
Finaleko beste partaideak:
Garaziko taldea
Hazparneko taldea
Kanboko taldea
2003-05-30 Itsasu (Gazteak)
Miren Artetxe (txapeldun)
Xumai Murua (bigarren)
Gillen Hiribarren
Mizel Mateo
Odei Barroso
Patxi Iriart

Antolatzailea: Iparraldeko Bertsularien Lagunak

XVII. Nafarroako Eskolarteko Txapelketa

- Finala:** 2003-05-24 Elizondo
Gaztetxoak:
Alazne Untxalo
Garazi Taberna
Igor Gurrutxaga
Iraia Mujika
Itsaso Zenotz
Joana Lopez
Maialen Huizi
Saio Baleztena
Unai Artieda
- Gazteak:
Aitor Arangoa
Aitor Zubiria
Ander Bayano
Ekaitz Astiz
Erkuden Mujika
Julio Soto
Oier Lakuntza
Xabi Salvador
- Antolatzailea:** Nafarroako Bertsozale Elkartea

XV. Euskal Herriko Eskolarteko Txapelketa

- Finala:** 2003-06-21 Mungia
- Gaztetxoak (14 urte arte):
Hodei Iruretagoiena (txapelduna)
Alazne Untxalo
Eñaut Uraburu
Garazi Taberna
Maialen Berasategi
Maialen Velarde
Maite Celestino
Miren Amuriza

Gazteak (15-18 urte): banaka
Beñat Gaztelumendi (txapelduna)
Alaia Martin
Ane Zelaia
Iker Agirre
Jon Agirre
Josu Martinez
Julio Soto
Miren Artetxe
Mizel Mateo
Oier Lakuntza
Xumai Murua

Epai-mahaia: Ekintza Landa, Juan Mari Juaristi, Beñat
Gaztelurrutia, Mikel Aizpura, Eneko Bidegain.

Gai-jartzailea: Igor Elortza

Antolatzailea: Ikastolen Elkartea Bertsozale Elkartearen laguntza
rekin.

3. Bat-bateko bertso sariketak:

II. Abra saria

Herria: Algorta (Getxo)
Antolatzailea: Algortako Bertsolari eskola
Mailak: Bakarra
Finala: 2003-03-29
Finalistak: Miren Loizaga, Ekaitz Larrazabal, Miren Ibarluzea,
Jon Martin (lehenengo), Manex Agirre eta Iñigo
Izagirre (bigarren).

VI. Argi Berri saria

Herria: Ordizia
Antolatzailea: Argi Berri elkarte
Mailak: Bakarra
Finalistak: Iñaki Gurrutxaga, Miren Artetxe, Unai Muñoa,
Miel Anjel Aierza, Xabier Astigarraga, Joseba
Otaegi
Finala: 2003-04-12
Lehen biak Osinalde sarira pasa ziren: Iñaki Gurrutxaga eta Miren
Artetxe.

VI. Axari saria

Herria: Idiazabal
Antolatzailea: Axari elkarte
Mailak: Bakarra
Finalistak: Manex Agirre, Ruben Sanchez, Iñaki Apalategi,
Antton Fernandez, Beñat Lizaso, Egoitz Eizagirre
Finala: 2003-03-28
Lehen biak Osinalde sarira pasa ziren: Iñaki Apalategi eta Beñat
Lizaso.

IV. Aztiri saria

Herria: Gabiria (Aztiria auzoa)
Antolatzailea: Aztiri elkarte
Mailak: Bakarra

Finalistak: Iñigo Izagirre, Oihana Bartra, Gorka Ostolaza, Eneritz Zabaleta, Jose Anjel Aranburu, Jokin Labaien.
Finala: 2003-04-05
Lehen biak Osinalde sarira pasa ziren: Iñigo Izagirre eta Oihana Bartra.

XI. BBK saria

Herria: Bizkaia
Antolatzailea: BBK, BBE, BIE
Mailak: A maila: 18 urte arte (1984an jaiok barruan)
B maila: 18-23 urte (1979an jaiok barruan)
Kanporaketak: 2003-03-18 Durango: Durangaldea eta Bilboaldea
2003-03-19 Markina-Xemein: Lea-artibai eta Ipar-Uribe
2003-03-24 Ipar-Uribe: Ipar-Uribe eta Busturialdea
2003-03-25 Bilbo: Bilboaldea eta Arratia
2003-04-02 Gernika-Lumo: Busturialdea eta Lea-artibai
2003-04-03 Igorre: Arratia eta Durangaldea
Finala: 2003-04-12
Sailkapena: 1. Arratia
2. Busturialdea
Finalistak: Arratia:
A: Manex Sagarna, Jurek Zienkiewicz, Jon Agirre
B: Aritz Arrizabalaga, Iñaki Iturrioz, Javi Olivares
Busturialdea:
A: Amaia Jauregizar, Amaia Uribe, Jon Rementeria
B: Iker Belaustegi, Ander Elortegi, Igor Muniategi

VIII. Berritxu saria

Herria: Berriatua
Antolatzailea: Herriko bertsozale taldea
Mailak: Bakarra
Finala: 2003-06-28
Finalistak: Lander Ibarluzea, Oier Azula, Iker Agirre, Naiara Arresigor, Miren Ibarluzea (bigarren), Jurgi Garitagoitia, Oier Lakuntza, Xumai Murua (lehenengo).

II. Bertsotan Bagare Bertsolari Gazteen Arabako saria

Herria:	Araba
Antolatzailea:	Bagare Euskal tokia, Arabako euskal kantuzaleen elkarte, Arabako Bertsozale Elkarte
Mailak:	Bakarra
Kanporaketak:	2003-10-31 Araia 2003-11-03 Amurrio 2003-11-21 Urbina
Finala:	2003-12-04 Gasteiz
Finalistak:	Enaitz Alustiza, Iñigo Izagirre (lehenengo), Miren Artetxe, Ander Lizarralde, Julen Zulaika (bigarren), Xabier Paia.

V. Bortzirietako Bertso-eskolaren Txapelketa

Herria:	Lesaka
Antolatzailea:	Bortzirietako bertso-eskola
Maila:	Bakarra
Kanporaketak:	2003-01-03 Lesaka: 1. kanporaketa eta 2. kanporaketa 2003-01-05 Lesaka: 3. kanporaketa , 1. finalerdia eta 2. finalerdia.
Finalistak:	G taldea: Xabier Silveira, Jon Silveira, Erika Lagoma. D taldea: Jose Juan Zubieta “Etxabe”, Manolo Arozena, Xabier Terreros.
Finala:	2003-01-05 Bera
Sarituak:	1. D taldea 2. G taldea

V. Iurretako Txapelketa

Herria:	Iurreta
Antolatzailea:	Bertso-eskola
Mailak:	Bakarra
Kanporaketak:	2003-03-22
Finalistak:	Gorka Lazkano, Txomin Magdalena, Peru Magdalena, Juan Mari Areitio.

- Sarituak: 1. Peru Magdalena
2. Juan Mari Areitio

XXVII. Lizardi saria

- Herria: Zarautz
Antolatzailea: Udala
Mailak: Bakarra
Kanporaketak: 2003-08-28 Zarautz
2003-08-29 Zarautz
Finala: 2003-09-05
Finalistak: Iñigo Izagirre, Julen Zulaika, Jon Martin, Ekaitz Goikoetxea, Jokin Uranga, Iker Zubeldia (bigarren), Beñat Lizaso, Aritz Aranburu (lehenengo).

II. Oarsoaldeko Bertsolari Txapelketa (Binaka)

- Herria: Pasaia, Errenteria, Oiartzun
Antolatzailea: Oiartzungo Bertso-eskola, Xenpelar Bertso-eskola
Mailak: Bakarra
Kanporaketak: 2003-03-08 Lezo
2003-03-14 Pasai Donibane
2003-03-15 Oiartzun
Finala: 2003-03-29 Lezo
Sailkapena: 1. Asier Bergaretxe, Jon Martin
2. Arkaitz Goikoetxea, Ander Lizarralde
3. Juanito Mitxelena, Jose Juan Zubieta "Etxabe"
Finalistak: Asier Bergaretxe, Jon Martin / Juanito Mitxelena, Jose Juan Zubieta "Etxabe" / Arkaitz Goikoetxea, Ander Lizarralde.

Oharra: Miren Artetxe finalerako sailkatu zegoen, baina biharamonean Nafarroako Txapelketan (finalean) kantatu behar zuelako, bere postua Juanito Mitxelenari utzi zion.

IX. Orixe saria

Herria: Donostia (Añorga)
Antolatzailea: Añorga Kultur eta Kirol elkarte
Mailak: Bakarra
Kanporaketak: 2003-02-21
2003-02-28
2003-03-07
Finala: 2003-03-16
Finalistak: Aritz Zerain, Iñigo Manzisidor “Mantxi”, Andoni Otamendi, Asier Otamendi, Iñaki Zelaia, Estitxu Eizagirre (lehenengo).

XXXII. Osinalde saria

Herria: Gabiria
Mailak: Bakarra
Kanporaketak: 2003-03-28 Axari
2003-04-05 Aztiria
2003-04-12 Argi Berri
Finala: 2003-04-26
Finalistak: Estitxu Eizagirre, Oihana Bartra, Iñaki Apalategi (lehenengo), Beñat Lizaso, Iñaki Gurrutxaga, Miren Artetxe.

II. Plazatik gaztetzera saria

Herria: Gipuzkoa
Antolatzailea: Mutrikuko bertso eskola
Mailak: Bakarra
Kanporaketak: 2003-05-09 Soraluze
2003-05-16 Deba
2003-05-23 Elgoibar
Finala: 2003-05-31 Mutriku
Finalistak: Iñaki Apalategi (lehenengo), Julen Zelaieta (bigarren), Eneritz Azkue, Xabier Astigarraga, Eneko Abasolo, Mikel Arrillaga.

V. Txantxangorri saria

Herria: Errenteria
Antolatzailea: Ereintza elkatea. Xenpelar Bertso-eskola
Mailak: Bakarra
Kanporaketak: 2003-07-04
Finala: 2003-07-18
Finalistak: Aitor Albistur, Jon Ansa (lehenengo), Josu Oartzabal, Arkaitz Oartzabal (bigarren), Iker Goñi, Haritz Casabal.

VII. Xalto saria

Herria: Nafarroa
Antolatzailea: Nafarroako Bertsozale Elkartea
Mailak: Bakarra
Kanporaketak: 2003-11-21 Barañain
2003-11-22 Leitza
Finala: 2003-11-28 Goizueta
Finalistak: Julio Soto, Joseba Barberena (lehenengo), Aritz Saragueta, Oskar Estanga (bigarren), Eneko Lazkoz, Jon Elizetxe, Oier Lakuntza.

4. – Bertsopaper Lehiaketak

VII. Arabako eskolarteko txapelketa: bertso-papera

Heria:	Araba
Antolatzailea:	Arabako Bertsozale Elkarte eta Arabako Ikastolen Elkarte.
Mailak:	A maila: 14 urte arte B maila: 15-18 urte
Sarituak:	A maila: LH: 1. Eneko Bustamante 2. Maite Celestino DBH: 1. Hodei Lopez de Arkaute 2. Andoni Saez de Ibarra B maila: 1. Irati Mendiguen 2. Uxue Diaz de Cerio

XIX. Basarri saria

Heria:	Zarautz
Antolatzailea:	Zarauzko udala. Euskara zerbitzua
Mailak:	Bakarra
Sarituak:	1. Ekaitz Goikoetxea "Nunca más!!!" 2. Jesus Lopetegui "Amatxo baina... non dagoaitatxo?"

XX. Bizkaiko eskolarteko txapelketa: bertso idatziak

Heria:	Bilbo
Antolatzailea:	Bizkaiko Ikastolen elkarre
Sarituak:	LH 5. maila: 1. Oihane Garmendia LH. 6. maila: 1. Xabier Iturrazpe DBH 1. maila: 1. Jone Uria DBH 2. maila: 1. Arrate Ilaro DBH 3. maila: 1. Enea Pinillos DBH 4-18 urte: 1. Beñat Vidal

II. Erriarraitz bertso paper lehiaketa

- Herria: Azpeitia
Antolatzailea: Erriarraitz Bertsozale Elkartea
Mailak: A: 18 urte artekoak
B: 18 urtetik gorakoak
Sartuak: A: 1. Silvia Etzaniz “Jipoituak, matxismoa...?
Ez, mesdez!”
2. Ainitze Urbietta “Denboran zehar”
B: 1. Juan Mari Odriozola “Kontzientzi garbitzen”
2. Urko Egaña “Pasamontañas baten atzean”

XVII. Garriko eguna

- Herria: Muxika (Areatza)
Antolatzailea: Garriko bertso-eskola
Mailak: A: 11 urte artekoak
B: 12-13 urte artekoak
C: 14-18 urte bitartekoak
Sartuak: A: 1. Gurutz Uruburu
2. Eneko Magunazelaia
B: 1. Idade Ordorika
2. Maite Orbe
C: 1. Amaia Jauregizar
2. Amaia Uribe

XXII. Gipuzkoako eskolarteko bertsolari txapelketa

- Herria: Lazkao
Antolatzailea: Gipuzkoako Ikastolen Elkartea
Mailak: A: LH 2. zikloa
B: LH 3. zikloa
C: DB lehen zikloa: 12-14 urte bitarte
D: DBH bigarren zikloa eta A DBHO: 14-18 urte
Sartuak: A: Ainhoa Begiristain
B: Kepa Matxain
C: Aritz Garin
D: Beñat Gaztelumendi

V. Ibon Zavala bertso-paper lehiaketa

Herria: Errenteria
Antolatzailea: Lau Haizetara. Xenpelar bertso eskola
Mailak: Bakarra
Sartuak: 1. Karmele Mitxelena “Asko maite zaitudala!”
2. Alaia Martin “Oroimenaren udazkena”

VI. Joanito Dorronsoro bertso-paper lehiaketa

Herria: Zumaia
Antolatzailea: Zumaiko bertso-eskola
Mailak: A: 14 urte artekoak
B: 14 -18 urte bitartekoentzat
Sartuak: A: 1. Maddi Gallastegi
2. Oihan Iribar
B: 1. Gorka Iribar
2. Eneko Dorronsoro

XII. Lazko Txiki bertso paper lehiaketa

Herria: Ordizia
Antolatzailea: Argi Berri elkarte
Mailak: A: 13 urte arte
B: 14-18 urte
C: 1984an edo aurretik jaiotakoentzat
Sartuak: A: 1. Mikel Dorronsoro Gaia: Egunkaria irakurtzen dut
2. Amaia Iturrioz. Gaia: Egunkaria irakurtzen dut
3. Hutsik
B: 1. Aitor Urbieta “Pilota partida eskuko minez”
2. Mirari Martiarena “Bizitza alua”
3. Josu Martinez “Goiko pisuko bizilagunaren bertsoak”
C: 1. Nikolas Zendoia “Astoa jo diñagu”
2. Alaitz Sarasola “Erdizka”
3. Nikolas Zendoia “Kaioa”

XVII. Nafarroko eskolarteko bertsolari txapelketa

Herria:	Nafarroa
Antolatzailea:	Nafarroako Bertsozale Elkarte
Mailak:	A maila: LH 3. eta 4. B maila: LH 5. eta 6. C maila: DBH 1. eta 2. D maila: DBH 3. eta 4.
Sarituak:	A maila: Oihan Olaizola B maila: Xumar Bakero C maila: Saioa Baleztena D maila: Gari Etxeberria

I. Neguko bertso-paper lehiaketa

Herria:	Beasain
Antolatzailea:	Arrano Kultur Elkarte eta Bertsoaren Beasaingo lagunak.
Mailak:	A maila: 2003an 18 urte baino gutxiago. B maila: 2003an 18 urte edo gehiago.
Sarituak:	A maila: 1. Aitzol Munduate “Gazte gara gazte” B maila: 1. Iñaki Gurrutxaga “Etortzen ez bada”

III. Okelar saria

Herria:	Mutriku
Antolatzailea:	Mutrikuko bertso-eskola
Mailak:	A gazteak: 16 urte arte B helduak: 16 urtetik gora
Sarituak:	A: 1. Ainhoa Mendibil “Belarrondoko joaldi haiek” 2. Hutsik B: 1. Jose Luis Urdangarin “Azken eskutiza” 2. Nikolas Zendoia “Kaxkagorri”

IV. Oñati hiria literatur saria: ipuinak, olerkiak eta bertso-paperak

Herria:	Oñati
Antolatzailea:	Udala

Mailak: Bakarra
Sartuak: 1. Ekaitz Goikoetxea "Itsasertzetik, zuri Kaxiano!"

I. Sabino Arana bertso paperen lehiaketa

Herria: Bilbo
Antolatzailea: Sabino Arana Kultur Elkargoa
Mailak: A: LH 2. zikloa 3. eta 4. mailak
B: LH 3. zikloa 5. eta 6. mailak
C: DBH 1. ETA 2.
D: DBH 3.A ETA 4.A
Sartuak: B: Amaia Iturrioz
C: Nekane Zinkunegi
D: Arrate Ilaro

VI. San Antontxu bertso-paper lehiaketa

Herria: Mungia
Antolatzailea: Mungiako Taket Bertsolaritza Alkartea
Mailak: A: Gazteak (18 urte arte)
B: Helduak (18 urtetik gora)
Sartuak: A: 1. Alaia Martin "Xuxurlatuko dizut aitona..."
2. Jone Amezaga "Preso batek bere bi urteko alabari bertso sorta"
3. Maialen Madariaga "Krabelin minez..."
B: 1. Karlos Ibarzabal "In Memoriam"
2. Santxo Joseba "Zapi egun"
3. Julen Zelaieta "Hogeitabira bidean"

XXIX. Santixabel bertso paper lehiaketa

Herria: Usurbil
Mailak: Bakarra
Sartuak: 1. Xabier Aranburu "Isolamenduko bizipenak"
2. Arantzazu Aranburu "Nolako Usurbil nahi det nik?"

II. Urretxindorra bertso paper sariketa

- Herria: Bilbo
Antolatzailea: Errekaldeko lagun artea kultur taldea
Mailak: A maila: 12 urte arte
B maila: 13-18 urte
Sariak: A: 1. Aitziber Ramirez “Txiroak”
2. Gizanre Laisexa “Euskal Herria dago”
3. Oihane Ramirez “Kutsadura”
B: 1. Josu Martinez “Bertso sex”
2. Txaber Fernandez “Nunca más!!!”
3. Imanol Martinez “Bihotza ala burua?”

XII. Xabier Munibe Bertso Paper lehiaketa

- Herria: Azkoitia
Antolatzailea: Udaberri eta indarlan guraso elkarte
Mailak: A maila: DHB lehen zikloa
B maila: DHB bigarren zikloa
Sariak: A: 1. Sandra Pozori eta Silvia Etxaniz
“Euskaldunak txarrak omen gara”
2. Naiara Orbegoza, Amaia Alkorta
“Euskararen egoera”
B: 1. Manu Goiogana “Hau bizitza tristea”
2. Oier Aizpurua “Gaztainak”

XV. Zapirain anaiak bertso-paper lehiaketa

- Herria: Errenteria
Antolatzailea: Lau Haizetara. Xenpelar bertso eskola
Mailak: Bakarra
Sariak: 1. Xanti Zabala “Lexo” Ia guriak egin du?
2. Julian Albistur “Xabier Oleagari ongietorria”



*Bertozale Elkartek ohorezko bazkide izendatu zituen Mixel Lekuona eta Eugenio Arraiza.
(Etxarri-Aranaz, 2003-02-23)*

Argazkilaria: A. Elozegi

**BAT-BATEKO
BERTSO HAUTATUAK**

OÑATI (2003-01-05)

Bertsolariak: U. Iturriaga, A. Mendiluze, S. Colina, J. Maia, J.M. Irazu eta A. Arzallus.

Gai-emailea: Egoitz Aizpuru.

Errege egunaren bezperan urtero antolatzen den jaialdia da. Bertsolari gazteak eraman arren, batez ere jende heldua joaten da saioa entzutera. Frontoian izan zen, gaueko hamar eta erdietan.

J.M. Irazu-A. Arzallus

Gaia: Zuk, Irazu, etorkin marokoarrak, Ametsen enpresan egiten duzu lana. Azken egunotan Amets haserre dabil Irazurekin, lan orduetan erreztatzen ari delako.

Neurria: zortziko handia

Doinua: *Uso zuri bat inguratu zait I*

J.M. Irazu: Marruecostik etorri nintzan
zure lantegi ertzera
konstrukzioan hor ibiltzen naiz
batera eta bestera.
Zure jainkoa nunbait dirua
hortik kontuak atera
ni esplotatzen egun osoan
erreztatzen aitzen zera.

- A. Arzallus: Belaunikatu ta errezatzen
pasa ohi dezu eguna
Ala batera, Ala bestera
Ala du bere kuttuna.
Baina errezoak utzi beharko
dituzu nere laguna
Ala ez baita gure enpresa
aurrera aterako duna.
- J.M. Irazu: Beste jainkon bat izango dezu
hori ez da nobedade
gu musulmanak maiz errezatzen
horretan ohituta gaude.
Alak enpresa ezin atera
pixka batean hor zaude...
Ezin nezake lanik egin nik
Alaren laguntzik gabe.
- A. Arzallus: Jator ustetan hartu nuen ta
atera zait erdi kirten
egun osoan hor jarduten da
buruari eragiten.
Zenbat laguntzen ote dizun hark
ez dago zaila jakiten
ahal dezun dena lagunduta're
ez baitezue ezer egiten.
- J.M. Irazu: Nik ez dedala asko egiten
esan modu alaiean
itxuraz noizbait zuk egin zendun
lana behar zan garaiean.
Nere errezua ukatu dezu
hemen aiean-aiean!
gero elizara joango zera
dena zuritu nahiean!

(1) arian-arian

A. Arzallus: Honek etxean uzten du indarra
etxean uzten du funtsa.
Hara ederki ulertzen dezu
nagusiaren hizkuntza.
Kale gorria hortxe daukazu
ta segiozu haruntza
eta orduan nahi dezunari
galdetuiozu laguntza.

A. Mendiluze-U. Iturriaga

Gaia: Senar-emazteak zarete. Duela hogei urte zuen semea zena
hil egin zen. Zuk, Aitor, urtero-urtero eskelak jartzen dizkio-
zu. Zuk, Unai, nahiago duzu betiko ahaztea.

Neurria: zortziko handia
Doinua: *Ludi bizitza abesti gozoz I*

A. Mendiluze: Galdu genuen, aldegin zigun
orain dago apartean
baina buruan gorde genuen
geure ondotik joatean
ta pentsatzen det gu biontzako
ez dela izango kaltean
semearekin gogoratzea
urtean egun batean.

U. Iturriaga: Nik ulertzen dut zure asmoa
intentzio onez dala
ezagutzen dut zure gogoa
ta zure bihotz zabala
baina eskela bat urtero-urtero
da sufrimendu itzala
iruditzen zait hori ez ote dan
urtero hiltzea bezala.

- A. Mendiluze: Gaur hogei urte jaso genuen
halako berri tristea
eta ez da ez urtero-urtero
hura berritzen hastea
baina neretzat gogorregia
litzake hura ahaztea
ta ez ukatu ezina baita
maitatzeari uztea.
- U. Iturriaga: Maitatzeari ezin zaio utzi
hori biontzat argi da
baina semea joan zenetik
hogeia bat urte badira.
Nik ere faltan soma nezake
haren begien dirdira
baina ezin da aurrera egin
beti atzera begira.
- A. Mendiluze: Beti atzera begira ez nago
beti alde ilunean
ni egunero ahalegintzen naiz
eguneko jardunean
baina zer da ba eskela hori
datak agintzen dunean?
Behin betirako galduko degu
ipintzen ez degunean.
- U. Iturriaga: Ez nago ados zurekin lagun
hor esana esatean.
Hogeia bat urte joanak dira
egon dadila bakean!
Munduai berdin izango zaio
guretzat maite-maite han.
Gure artean bizi dadila
ta ez egunkari batean!
- A. Mendiluze: Baina barruan gordetzen denak
ezin lezake hartu su.
Nik pentsatzen det: lehen izan zenak
ez al zaitu hunkitzen zu?
Eskela hori alper-alperrik
dela pentsatzen baduzu
hogeia urtetan kajoi batean
zergatik gorde dituzu?

U. Iturriaga: Hogei urteak pasatu zaizkit
zurretat besteko ilun
baina ordezkorik nola ezin dan
harentzat aurkitu inun
kajoian dauzkat denak gordeta
zu ere horren jakitun
jakin dezagun *Diario*-i zenbat
diru pasatu diogun.

U. Iturriaga-S. Colina

Gaia: Zuek biok bi euskal arrantzale zarete. Petroleoaren gorabeherak direla-eta, Unaik, hemengo lanak utzita, Galiziara joatea erabaki du, laguntzera. Sustraik ez du horretarako asmorik.

Neurria: sei puntuko motza

Doinua: *Aresoarren bandera / Aizak hi mutil mainontzi*

U. Iturriaga: Ez da hipokresia hutsa
nahi nuke zeozer bultza
Galiziara joateko eskatzen
buru ta gorputza.
Noizbait igual honuntza
heldu leike kaka putza
eta orduan nola eskatu
beraiei laguntza? (bis)

S. Colina: Baduzu nahiko adore
ta nahiko giza balore
halan ta guztiz ez derizkiot
nik horri dotore.
Indarrak geuretzat gorde
eta ez joanda hobe
ez bailirake hona etorriko
eskatuta ere. (bis)

U. Iturriaga: Joan eta nahi dut ikusi
ahal dala eurekin ikasi
nola galegoz egin litekeen
nunca más karrasi.
Zu berriz lanean hasi
gura ez ta ondo bizi...
Geratu zaite hemen begira
Josu Jon Imazi. (bis)

S. Colina: Galizian zenbat desgrazi
ez ote diren ikusi!
Haien marea belztu egin da
malko eta guzi.
Begira nago Imazi
horrela hobe da kasi
Fraga agintzen duen herriak
ez gaitu merezi. (bis)

U. Iturriaga: Hori izango zan broma
ez dut gustoko gizona
baina Galizia gehiago bada
hor punto ta koma;
betoz eurek ere hona
apur dezagun han horma
itsasoa baita bertatik bizi
garen guztiona! (bis)

S. Colina: Dabiltz sustotik sustora
ta ni begira gustora
horrela joan behar baitzaie
hangoei denbora.
Galiziarren ondora
ez joatea mejora
txapapotea daukatelako
uretik kanpora. (bis)

ONDARROA (2003-01-10)

*Bertsolariak: P. Aranburu, G. Ostolaza,
U. Iturriaga eta M. Lujanbio.*

Gai-emailea: Kirmen Uribe.

“*Ahozkotik idatzizkora*” izenburupean, Ondarroako Kafe Antzokian, bertso-saio berezia antolatu zuten. Kirmen Uribe idazlea izan zuten gidari, eta gaiak modu berezian jarri zituen.

U. Iturriaga-M. Lujanbio

Gaia: “Taberna. Esnatu txarrekoa zen oso. Batzuetan, orduak ematen zituen mundua onartzen. Horregatik, nahiago zuen gosaldu errepedeko taberna hartan, non inor ez zen atsegina. Izaki zakarrak hurbiltzen ziren bezero, begietan biharamuna zutela, eta nagusiak kafea kikaratik at isurtzen zuen, inolako barkamenik eskatu gabe. Eginez gero, barregarria zatekeen, ehun kilo baino gehiago pisatzen baitzuen gizonak. Jabez aldatu zuten lokala. Ugazaba berriak galderak egiten zituen irribarretsu. Ez itzultzea erabaki zuen”.

Manuel Rivas idazle galziarraren poema bat zen hori.

Galizian laminei “meigas” deitzen diete. Meigen artean ederranak, eta era berean arrisksuenak, “as mouras” dira. Moura mairutik dator. Baina berbak berak esaten ez badu ere, ez dira larruazal beltzekoak, rubiak eta begi argidunak baizik. Halako laminek madarikazio bat dakarte, jartzen dizuten zigorra edo madarikazioa gauza bitxi bat da: sekretu bat kontatzen dizute, eta sekretu hori ezin diozu inori esan; esaten badiozu, hil egingo zara. Bata lamina izango da eta bestea sekretua jaso duena.

Neurria: hamarreko txikia
Doinua: *Hamalau heriotzena*

M. Lujanbio: Gizon hau nere albotik
pasatzen da usu
mila arraien karraio
portura jo ta su...
Oihu egin nahi diot
beti “Aizu, aizu
arrokatan ezkutun
hementxe naukazu
nere kantu doinua
entzuten al duzu?”.

U. Iturriaga: Alde banatan deukot
nik belarri bana
eta bai entzuten dot
ai moura laztana
beharra badot eta
entzuteko esana
kontaidazu apur bat
baina ez kontau dana
erdi hilda egotea
da nik nahi dodana.

M. Lujanbio: Ikusten zaitut nola
poliki zatozen
ikusiko gaituzte
ez hitz egin ozen.
Sekretutxo bat daukat
hasi naiz kontaktzen:
aizu ba al dakizu
egi bat hain zuzen
itsaso haundi zabal hau
behin nola sortu zen?

U. Iturriaga: Galdera gatx xamarra
deuko zu aukeran
baina erantzungo deusut
nik dakidan eran:
nik ez dot ez sinisten
ez Adan ez Eban
nik ez dakit bizia
zeinek eutsen eman
nik neuk bakarrik dakit
zelan desegin dan.

M. Lujanbio: Nere ondolik pasa da
gizonezko andana
inor ez da hurbiltzen
sekula nigana
hargatik aspaldi naiz
negarrai emana
jakizu itsasoa
hortik sortu zana
lehenbizikoa zera
hurbildu zerana.

U. Iturriaga: Hurbildu naz ta bertan
hemen nago jada
damutzeko berandu
dogu beharbada.
Itsasoaren dama
ai moura zu zara
eta orain zelan joan
jakun pikutara
zerua ikusi nahi dot
besterik ez bada!

M. Lujanbio: Sekretu bat daukazu
zeru ta lurretan
beste inork ez dakina
mundu zahar honetan.
Itsasoa sortu zan
beraz modu horretan
ez ezazue galdu
zuen zakarretan
edo itoko zerate
zuen negarretan.

U. Iturriaga: Lehendik be badakigu
zer dan itotzea!
Guk itsasorik barik
alperrik etxea!
Eskertzen deusut berba
horrek eskaintzea
kostako jat sekretu
zahar hau mantentzea!
Kontatzea izango da
plazerrez hiltzea.

DONOSTIA (2003-01-25)

Bertsolariak:

A taldea (“bertsolari sofistikatuagoak”):

*I. Elortza, A. Egaña, M. Lujanbio,
X. Amuriza eta F. Paia.*

B taldea (“bertsolari naturalagoak”):

*S. Lizaso, J.M. Irazu, J. Sorozabal,
A.M. Peñagarikano eta X. Silveira.*

Gai-emaileak: Joxerra Garzia eta Unai Elizasu.

Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak urtero antolatzen duen Bertso Eguneko jaialdi berezia. Kursaaileko aretoa ia beterik zela, giro onean egin zen saioa.

M. Lujanbio 

Gaia: Sarri kantatu izan zaio ispiluari, baina ispilua beti mutu.
Bada garaia zer edo zer esan dezan. Hi haiz ispilua.

Neurria: zortziko handia

Doinua: *Haurtxo txikia negarrez dago I*

Batzuk ipurtalde zabalegik
ta begizulo sakonak
batzuek galtzak estuegiak
besteek juxtu antxa gonak...
Oaindik ez zerate konturatu
ai pareko lagun onak
berak nahi duna ikusten dula
neri begira dagonak.

Ispilua ta espejismoa
parekotasun gogorra
ispilu aurren irakurketak
egin ditzakegu sobra
zuek hor ta ispilua hemen
adibide on bat horra:
batzuk herri bat ikusten dute
besteek bidetxidorra.

Norbanakoek neri begira
zer-nolako apurua!
Norbere barrua sentitzea
ez al da hori helburua?
Neri begira dagon pertsonak
gauza bat da segurua
bere azala ikusiko du
baina ez bere burua.

X. *Silveira*

Gaia: Hiru bertso botatzeko moduko gaia da, baina gehiago ez.
Eta sei puntuko bertsoak izatea ez legoke gaizki. Prest?
Zertarako hago prest?

Neurria: berezia

Doinua: *Munduan libre bizi izatea*

Orain lanetik bota nautela
soberan daukat denbora
ta kirolean egin nahi nuke
lehendabiziko aproba:
Unai¹ ta biok traineratxoan
ibil gintezke gustora
hori da egungo moda
denak doaz itsasora.
Ni esertzean nahiz ta trainerak
igual egingo dun gora
aurreko errueda altxatzen duen
lehen trainera izango da. (bis)

Castrokoeri sortuko nien
ziur hainbat enbarazu
Kortak hor goitik oihuka esan du
“Ezta okurritu’re aizu!”
Ba lasai Korta, ez naiz hasiko
Jauna izango zara zu.
Zenbat hitz huts eta faltsu
egin al didazue kasu?
Ikusten denez Unai bertsoan
edozertako naukazu
eta probatu nahian bazabiltz
beste gai bat jarridazu.(bis)

(1) Unai Elizasuk jarri dio gaia, eta hari buruz ari da. Unai arraunean aritzen da.

Unai zutitu egin da eta beste gai bat jarri dio.

Gaia: Ez da apologia egiteagatik, baina zer esango zenioke sekula mozkortu ez den bati?

Neurria: bederatziko txikia

Doinua: *Betroiarena*

Hau gertatzen zait lehen
joateagatik *de guay!*
Beste gaia jarri ta
orain ai, ai, ai!
Mozkortu ez denari
esango diot bai
galtzen duena ez daki
eta dago nonahi
ni aste eta jai
mozkortzen naiz alai
alai eta lasai
hortako dut dohai
nik bi taberna dauzkat
han naukazu zai. (bis)



*Bertso Eguna 2003. J. Agirre eta J. Uranga
(Zubieta, 2003-01-25)*


Argazkilaria: A. Elozegi

DONOSTIA (ZUBIETA) (2003-01-25)

Bertsolariak: J. Agirre, J. Uranga, I. Murua, I. Ibarra, A. Arzallus, S. Colina, I. Gurrutxaga, I. Lazkano, U. Iturriaga, M. Agirre, O. Perea, R. Sanchez, I. Viñaspre, I. Anda, P. Etxeberria, A. Mendiluze, J. Azpillaga eta M. Mendizabal

Aurkezlea: Jon Zaldúa

Bertso Eguneko afaria Araeta sagardotegian izan zen. Jantokia erabat bete zen, eta hainbat bertsozalek kanpoan geratu behar izan zuten. Afalondoan, bat-bateko saioak ez ezik bertso musikatu eta bertso antzerkiek ere izan zuten tokia.

J. Uranga-J. Agirre 

Gai-emailea: Laxaro Azkune

Gaia: Joxe Agirreren gazte garaitik hona denbora pixka bat pasa da, eta gauzak ez ezik ohiturak ere aldatu egin dira. Nik zera jakin nahi nuke: Joxe Agirreren garaitik hona zer gauza aldatu dira? Nik adibide bat jarriko dizuet. (Bakoitzari txapel bana jantzi die, baina modu desberdinetara. Joxe Agirreri baserritarrek jazten duten modura, eta Jokin Urangari atzekoz aurrera).

Neurria: zortziko handia

Doinua: *Zeru altuan zegoen jaunak*

- J. Uranga: Honen garaia eta nerea
biak daude hain aparte
biok batera ikusi eta
danak testigu zerate.
Txapel polit hau erabiltzeko
badet nahiko borondate
nere aitonari hortz postizoak
erortzen zaizkion arte.
- J. Agirre: Zure aitona hortzakin dago
nahiko arlote neurrian:
jarri nituan eta berriro
nago jarri beharran.
Eta ohiturak aldatu dira
aspaldi Euskal Herrian!
Lehen buruan zan balorea
orain berriz belarran.³
- J. Uranga: Aitona honen ondoan gaude
oraindik latzak aitzeko
baina lotsarik ez dut batere
nik honekin aritzeko;
eta txapel hau zertarako den
izan nahi nuke hitzeko
ez zikintzeko izaten zen lehen
eta orain luzitzeko.
- J. Agirre: Behar baldin bada pentsako dezu
ondo ematen dizula!
Seguru asko gaur arteraino
ez dezu jantzi sekula
baina aitortzen det lehengo bertso hortan
egi bat esan dezula:
esan gabe're nik banekian
lotsarik ez daukazula!

(3) Jokin Urangak belarritakoak daramatza, eta horri egiten dio Joxe Agirrek erreferentzia.

J Uranga: Lotsarik banu ni ez nintzake
orain tabladu honetan
baina behin igo naizenez gero
jardun nahi nuke benetan.
Ta bi txapelen diferentzi bat
argitu nahi nuke bertan:
lehen ximaurretan erabiltzen zan
eta orain diskotekan.

J. Agirre: Behar baldin bada gauzak izango
dirade gazte horrela
ikusten degu gaur moda asko
indarrean datorrela
belarritako alu hoiekin...
entzun behar dezu epela:
buru gehiago ez dun gizonak
alperrikan du txapela!

J. Uranga: Txapelarekin alper-alperrik
ez gera hemen jardunak
eta zeoze esan dezake
buruan txapela dunak.
Guztiek garbi izango dute
hemen bildu zaizkigunak
Joxe ta Jokin izan direla
Araetako txapeldunak.

J. Agirre: Behar baldin bada kantatu dezu
nahiko bertso egokia
txapeldunantzat tristea dago
aitonaren bekokia
erretiroa laister hartzeko
dadukat erabakia
ia itxuraz betetzen dezun
nik utzitako tokia!

- J. Uranga: Zure tokia betetzen oso
errez ez dago Oranda
zu izan zeran neurri hortako
bertsolaria izanda!
Gure txapela pasatzen hasi
behar dia Joxe ta Uranga
eta botatzen dutenarekin
egingo degu parranda.
- J. Agirre: Ni parrandako zahartuta nago
gaztetan ere zintzua...
Lagun maitea goguan hartu
entzuten dezun bertsua:
borondatea badaukat baina
almazena dut antzua
hontaz aurrera zuk lana egin
neretzako deskantsua.
- J. Uranga: Gaurkuan ondo senti naiteke
ni zure aldamenean
oraindik ere ikusten zaitut
Joxe onen-onenean
baina omen zabiltz erretiroa
ere hartzeko planean
baina mesedez hartu ezazu
gu hobetzen geranean.
- J: Agirre: Berriro ere bota didazu
bertso bete-betekua
ta orain ere gazte ez zaude
oso nolabaitekua!
Esaten dezu nik irauteko
zu mejorau artekua
eta bizirik pasako al det
nik bien bitartekua?

J. Uranga: Joxek eta nik gustoko izan
degu gaur zuen harrera
horrexegatik eduki degu
era hontako jarrera.
Honenbestian bukatua da
bertsolarien karrera
nahi dezutena egin zazue
une hontatik aurrera!

J. Agirre: Arrazoi dezu kalteko leike
hemen gehiegi aria
beraz hementxe bukatuko da
gaurko bertso komeria
eta norbaiti eskatzen diot
komeni zaigun saria:
hurrengo urtean guztiok hemen
elkartutzeko zoria.

BERGARA (2003-02-15)

Bertsolariak: X. Amuriza eta U. Iturriaga. 

Gai-emailea: Ainhoa Agirreazaldegi.

Urtero antolatzen dute Artatse elkartean bertso-afaria. Ez zen erabat bete baina oso giro polita eta egokia zegoen. Bertsolariak librean aritu ziren denbora luzean, eta jendearengana iristea lortu zuten. Gero gaiak jarrita aritu ziren. Libreko zati bat jaso dugu hemen.

Neurria: zortziko handia

Doinua: *Txoriak eta txoriburuak*

X. Amuriza: Doinua ere aldatuko dut
 hori ez baita bromia
 zuk badakizu kezka horrekin
 neu're nola nagon ia.
 Artatse hontan zurezko habe
 eta harrizko hormia
 dana diagu argitasuna
 hau duk hau plataformia.

U. Iturriaga: Zuk plataformez¹ entzun dudanez
 zeozertxu badakizu
 irail aldean hasita sarri
 eman diguzu abisu
 baina berriak dantzan dabiltz ta
 Xabier galdera bat aizu:
 hauteskundeotan listan joaten
 Balzak utziko al dizu?

(1) Autodeterminazioaren Biltzarraren (AuB) bultzatzaileetako bat izan zen Xabier Amuriza.

- X. Amuriza: Oraintxe honek erantzunen bat ipini dit benetan gaitz Balza jaun horren deklarapenak irakurriak ditut maiz zer egingo dut lista hoietan? pentsatu beharko garaiz: agintzen badit insumiso naiz uzten ez badit joango naiz.
- U. Iturriaga: Bat egiten dut zure gogoan eta bat erabakian baina ardura sortu zitzaidan sailburuan aitzakian: “Señor Amuriza” esaten zuen behin ta berriz irratan nik Amuriza bat ezautzen nun *señor* zenik ez nekian.
- X. Amuriza: Harritua naiz neu ere nola aldatu ohi dan bizitza urte batzuek badituz eta oraindik hemen gabiltza. Badakizue ofizio bat izan nuen apaizgintza lehen *Don Javier* izan nintzan ta orain *Señor Amuriza*.
- U. Iturriaga: Kuriosoa da bai batzutan Xabier bertsolaritza zeure bizitzan errepasoa ematen hemen zabilta; “gintza” atzizkiak dakidanez nik adierazten du langintza beraz zehatzago azalduiguzu zer dan Xabier apaizgintza.

X. Amuriza: Beltza izena halakoa du
kolore bat da munduan
kolore horrekin nik umetatik
gusto pixkat hartu nuan
ni apaizgaia nintzen garaian
edo ninduten orduan:
ni garai hartan beltz jazten nintzen
zu jazten zeran moduan.

U. Iturriaga: Ta ze bitxia gerora neuk be
kolore beltza begiko.
Gogoratzen dut behin irratian
nintzela oindino mutiko
zelan Xabierrek kantatzen zuen
bere “Aita izena”² tinko
zure bertsoak entzuteagatik
trastornau nintzen betiko.

X. Amuriza: Triste-tristerik ibiltzen nintzan
ni hain beltz jantzi nintzana
pentsatzen nuen baneramala
patu txar baten izana
ta orain Unaik kolorea du
nire apaizgaia zana
oraindik honek jantzi lezake
nik utzi nuen sotana!

U. Iturriaga: Ez, nik nahiago dut jertse honek
berez duen etiketa
gainera ohituta nago eukitzen
nire praktetan brageta.
Zu lasai, Xabier, zure sotana
ez diot emango buelta
miresmenetik zoramenera
tartetxoa dago-eta.

(2) Xabier Amurizak bere Euskal Herriko lehen txapela jantzi zuen 1980an. Gai bezala
“aita” jarri zieten, eta horrela eman zion hasiera. Historiara pasa diren bertsoak dira.

X. Amuriza: Miresmena ta zoramena da
hitz gozoenen musika
imajinatzen ari naiz Unai
neure sotana jantzita.
Hura zan prenda goitik beheraino
Jaungoikoak ikusita!
Berrogei botoi zituan harek
ta danak ondo josita!

U. Iturriaga: Ia korse bat, ia txaketa
ez zan izango hain bigun
baina ez zinen zu sentiduko
haren barnean hain ilun.
Botoiak oso ondo josita
zelan zeunden zu jakitun
bat askatzeko asmoaz hasi
ta denak soltau zenitun.

X. Amuriza: Ai zer nolako fedea eman
zigun Jainkoan ogiak!
Barre-algarak ere baditu
hortaz nire memoriak;
sotana haren botoiak ziran
danak kolpez eroriak
hau milagroa bere tokian
segitzen dula txoriak!

U. Iturriaga: Itxi zenduan sotana hori
alboan badaezpada
eta ordutik bertsozaleok
zorionekoak gara.
Orain txorian kontuak Xabier
lasai albo baten laga
lehenago esan duzun moduan
oilarren liderra zara.

ZEGAMA (2003-02-22)

*Bertsolariak: S. Colina, A. Egaña,
A.M. Peñagarikano, I. Zubeldia,
J.M. Irazu eta S. Lizaso.*

Gai-emailea: Laxaro Azkune.

Urte sasoi honetan Zegaman urtero antolatzen duten jaialdia. Gaueko hamar eta erdietan, pilotalekuan, entzule asko biltzen duen saioa izaten da honakoa.

A. Egaña-J.M. Irazu

Gaia: Andoni Ana Botella da, eta Irazu Aznar. Gerraren aurkako manifestazioak ikusten ari zarete telebistan.

Neurria: zortziko handia

Doinua: *Zeru altuan zegoen jaunak*

J.M. Irazu: *Cariño mío* sofán exeita
biok batekoz besteko
aukera ere izan degu bai
oain telebista pizteko
hainbat milaka gerraren kontra
Ana ez dezu usteko
paseatzera atera dira
kolesterola jeisteko.

A. Egaña: Jende pila bat ikus liteke
kaleetan parez pare
eta zuk dezun ospearentzat
mesedegarri da hau're
“Guerra no” eta “Guerra no” denak
ta sozialistak alde...
ai Jose Mari ni bezelaxe
denak zure alde daude.

J.M. Irazu: Nunbait nere alde daudela denak
gainerakoan akabo
zuk badakizu Ana maitea
gu gera yankin esklabo.
Milaka lagun kalean baino
guk ezin hortik igaro
Bushen *toque de queda* hartuta
etxian sartuta nago.

A. Egaña: Ai Jose Mari karakterrekin
nahiko biguna zera, ai!
Nik zerbait esan eta sekula
ez zera azaltzen lasai
orain gainera Ameriketan
ibilia zaude *porái*
hemen Anaren menpeko zera
ta han Bushena ere bai.

J.M. Irazu: Beti menpeko, beti menpeko
hori're ez zait gustatzen
botila ere aldamenean
eta kortxoa tragatzen.
Nahiz ta jendea hasia dagon
kale guztiak betetzen
nere entrebistak izango dira
CNN ta BBCn.

A. Egaña: Hainbeste jende, hainbeste jende
ikusteko ere gozagaitz
hamar t'erdia oraintxe dira
ta izanagatik garaiz
zure ondoan beroa ere
pasatu izandu det maiz
ai Jose Mari zoaz ohera
ni geroxio jungo naiz.



*Nafarroako Bertsolari Txapelketa 2003. A. Arzallus.
(Lesaka, 2003-03-30)*

Argazkilaria: A. Elozegi

ARRASATE (2003-03-08)

*Bertsolariak: A. Agirreazaldegi,
J. Maia eta J.M. Irazu.*

Gai-emailea: Lierni Altuna.

Emakumeen aldeko taldeak Martxoaren 8aren inguruan urtero antolatzen duen jaialdia. Hirurogei entzule inguru elkartu ziren, Sebero Altube plazan, eguerdian.

J. Maia-A. Agirreazaldegi

Gaia: Jon Ainhoa lagunarekin elkartu da. Begia ubel-ubel eginda dauka, eskaileretatik erori omen delako.

Neurria: hamarreko txikia

Doinua: *Lagundurikan danoi I*

J. Maia: Begia ubelduta
kontu bat bitarte
zerbait pentsatzeraino
bizkor naramate.
Senarra badaukazu
hori zure kalte
eskaileran aitzakiz
ez sinistu bat'e
eskailera horiek
ze izen daukate?

A. Agirreazaldegi: Izen ta abizenak
nahi dituzu jakin
eta nik izkututzen
hainbeste ahalegin.
Bihotzean dadukat
begian aina min
zuri esanda ere
berriz nago berdin
mesedez ez zaidazu
galderarik egin!

J. Maia: Ez dezu nahi ikusi
kolpeen tamaina
bat gogor jo dizute
bai kolpe bikaina!
Hori al da mutilen
lehenengo *hazaina*?
Bergia ubelduta
daramazu baina
ez luke izan behar
itsutzeko aina.

A. Agirreazaldegi: Beste jende asko da
nere antzekoa
eta nirea ez da
aintzat hartzekoa.
Gizarteko jarrera
dugu hutsekoa
eta arazoa da
gure mundukoa
hola konponduko da
nere etxekoa.

J. Maia: Horrela konpontzea
dituzun ametsak
ta bien bitartean
bi begiak beltzak.
Etikak ere noski
ditu bere ertzak
salatu zazu gogor
ta ez hartu aintzat
izan zaite eredu
beste guztientzat!

A. Agirreazaldegia:

Salatu nitzakeen
hemengo ta hango
barruan izan badut
salaketa frango
baina oraingoz ez dut
ezertxo esango
nere senarrarekin
sentitzen naiz ondo
agindu dit berriro
ez duela egingo.

J. Maia:

Hori esanda nola
zabiltza lasaio?
Kalean dabil hainbat
giza txar arraio
kolpez egingo ditu
berriz mila saio
nahiz ta senarra izan
nahiz ta garbi jaio
kabroiari kabroia
esan behar zaio!

DIMA (2003-03-22)

*Bertsolariak: A.M. Peñagarikano, U. Iturriaga,
J. Olibares “Orue”, E. Intxaurreaga,
I. Elortza eta M. Lujanbio.*

Gai-emailea: Karmelo Uriarte.

Arratiako Bertso Eskolak eta AEK-k Dimako Udalaren babesean antolatutako saioa, Arratian urtero egiten dena, Sanjosetan. Hamar eta erdietan hasi zen, ehun bat entzule bertan zirela. Ez zen saio ona izan, nahiz eta bertsoaldiren bat edo beste politak atera.

I. Elortza-U. Iturriaga

Gaia: Esaera batzuk emango dizkizuet, eta egia edo gezurra diren esan beharko duzue.

1.-Nazio bat gara.

Neurria: berezia

Doinua: *Sorlekua utziz gero*

I. Elortza: Nazio bat ete garen
hor galdera geuregana
lurralde bat badaukagu
ta euskara geure ama.
Beraz egia dogu Karmelo
zuk mikro hortatik esana
baina amets bat be izan leike
egi bihurtu behar dana.

U. Iturriaga: Nazino bat bagara bai
duda hori ba ote da inun
Konstituzino hortan be
agertzen da nahiz ta ilun.
Beste galdera bat egon leike
galdera horretan lagun:
nazino hori ze eratara
antolatu gura dogun.

2.- Maitasuna aldakorra da.

Neurria: hamarreko txikia

Doinua: *Espainian behera*

I. Elortza: Maitasunak be badau
mila esamesa
hori egia ete dan
ez dogu erreza.
Pentsatuta bakarrik
sortzen jat estresa
maitasunak ekarri
leike bai sorpresa
batzutan dana da ta
gero ezebeza.

U. Iturriaga: Galdera gatzegia
dogu beharbada
igual erantzungo dot
gallegoen erara
baina hortarako egoki
izaten da gaba
maitasuna hor dago
ta perfektua da
baina denborarekin
geu aldatzen gara.

3.-Demokrazian *Estado de Derecho* oinarria da.

Neurria: zortziko handia

Doinua. *Basatxoritxu mokoluzia*

I. Elortza: Demokraziak gaurko munduan
ba ei dau bere distira
baina askotan gerra izaten da
horrek dakarren segida.
Hori gezurra edo egia dan
Karmelo ez dakit, tira!
Baina hori esaten daben guztiak
gezurtero hutsak dira.

U. Iturriaga: Guzurra edota egia dan
nahiz oindino ez ikasi
hemen bakoak aho bat deuko
ta hainbeste demokrazi.
Demokrazia Bin Laden bat dan
zalantza dekot nagusi:
mundu guztiak berba eiten dau
ta inok ez dau ikusi.

ZARAUZ (2003-03-29)

*Bertsolariak: X. Amuriza, S. Colina, A. Arzallus,
A. Mendiluze, U. Iturriaga, I. Elortza,
S. Lizaso eta A. Egaña.*

Gai-emailea: Josu Goikoetxea.

Egunkariaren alde antolatutako jaialdia. Kiroldedia bertsozalez mukuru, eta oso giro ona. Antolatzailea Bertsolarien kolektiboa izan zen. Arratsaldeko seietan hasi zen saioa.

S. Colina-A. Mendiluze

Gaia: Zuk, Sustrai, gauzak ahazteko joera duzu. Mendiluzek gauzak gogoratzeko joera.

Neurria: hamarreko txikia

Doinua: *Lagundurikan danoi*

A. Mendiluze: Pertsona maiz ipini
izan da trantzean
ta sumina pizten da
zeozer galtzean
ta ahazten da denbora
pixkat pasatzean.
Halere nere aldean
zu zaude atzean
buruan zaudelako
ta ni bihotzean.

- S. Colina: Zu omen zara oso
jatorra, azkarra
ni berriz desastre bat
eskasa, kaxkarra
ahaztea baita egin
ohi dudan bakarra.
Baina ai oroimena
aitortu beharra:
ahaztura ez da beti
memoria txarra.
- A. Mendiluze: Baina gogoratzea
sarri da atsegin
zerikusia baitu
maitasunarekin.
Norbait galtzen denean
hamaika ahalegin
egiten dezu! Baina
ez zazula egin
alperrik da burua
hartaz ahaztu dedin.
- S. Colina: Negar malkoz ari da
preso baten ama
begira iheslarien
alaba laztana...
Herri puta honetan
bada nahiko drama!
Nik ahazten dut guztia
nik ahazten dut dana
baina ez dut barkatzen
ahazten dudana.
- A. Mendiluze: Tristea da onartzea
baina arrazoi dezu
ni bezela horrekin
haserre zaude zu.
Kasu hoietan giltza
zeure esku dezu
ni haietaz oroitzen
ariko naiz aizu
ta zuk sufrimentua
ezabatuiezu.

S. Colina: Nola jokatuko dut?
Ez dakit zer esan
jendeak nere traza
behingoz hartu dezan.
Herri honetan gabiltz
jasan beti jasan...
Ahaztu zazu guztia
egin nere gisan
bestela ezingo nuke
zoriontsu izan.

A. Egaña-A. Mendiluze

Gaia: Zuek biok zirujanoak zarete: esperientzia handikoa Andoni; Mendiluze, berriz, lehen ebakuntza duena. Moto istripu bat izan ondoren, oso larri ekarri dute gazte bat, eta ebakuntza mahaian hil da. Gelatik irten eta eskuak garbitzen ari zarete-la oso zurbil ikusi duzu Aitor.

Neurria: hamarreko txikia
Doinua: *Lagundurikan danoi I*

A. Mendiluze: Zeuzkan hamasei urte
edo hamazazpi
behintzat hola hiltzeko
ez zituen aski.
Laguntzeko ez nuen
behar aina asti
hala're saiatzeko
asmoz nintzen noski.
Ahal dedana egin det
zer egin det gaizki?

- A. Egaña: Gazteak zekarrena
nolako kaltea!
Bere burua zegon
zauritan betea
bueltarik ez zuena
zan bere kolpea
Gaizki zer egin dezun
ai kide maitea
orain, joan ta gero
bueltak ematea.
- A. Mendiluze: Bueltak emate hori
neuk ez det atsegin
baina neure barruan
badet hainbeste min.
Etorri den bezela
hamaika ahalegin
egin det erdi hila
berriz piztu zedin.
Zergatik ezin degu
beste ezer egin?
- A. Egaña: Nere postura ez da
horren zinikoa
nik ere sentitzen det
barne zimikoa.
Horra hor erantzun bat
kategorikoa:
biok egin deguna
izan da nahikoa
zirujaua zera zu
ez zera Jainkoa!
- A. Mendiluze: Nahiz ta kontseju hoiek
eskerrez aditu
ai, nik neuk ere zure
barrenak banitu!
Nahiz eta ondo egin
dela iruditu
guztia egin al dezu
guztiz fin aritu?
Sekula ez al zaizu
dudarik gelditu?

- A. Egaña: Nere barruan dudak
ohi zuen kemena
baina uxatzea zen
irteera onena.
Hil berriak gozatu
beza atsedena
eta zuk ahaztu zazu
pasatako dena.
Hurrengo gaixoa da
inporta duena.
- A. Mendiluze: Hurrengo gaixoari
nik neure arreta
jarriko diot baina
honena gordeta.
Honek ezin bazion
denai eman buelta...
Ama hor du buruaz
hormari kolpeka
arren esaiozu zuk
nik ezin det-eta!
- A. Egaña: Tristurarikan ezin
barrutik ezaba
amaren abisua
nere esku laga.
Lehen nik ere banuen
horrenbeste traba
pozgarria zait zure
kontzientziko karga
bihotz bat salbatzeko
beste bat behar da.

U. Iturriaga-S. Colina

Gaia: Zuk, Unai, atzekoen lehenengo maitasun aitortza imajinatu-ko duzu. Sustraik, berriz, lehenengo borroka fisikoa.

Neurria: zortziko handia

Doinua: *Nafarroako mendi gainetan*

U. Iturriaga: Taberna baten festaren baten...
Aitor hautatu beharko
ez zuen trago larregi edan
beraz ez zegoen txarto
neskato bati ziotson “zera,
hau da, maite zaitut asko
ta maite zaitut, ba, gizakiak
gizakiak garelako.” (bis)

S. Colina: Txikitatikan Aitor izan da
zuzentasunan almatzen:
bost urterekin bati esan zion
“Motel ez zabilta zuzen!”.
Bestea haserre jarri zen eta
hor hasi zitzaion jotzen
gero iletik tira zion ta
bat’e gabe geratu zen. (bis)

U. Iturriaga: San Pelaioak izango ziren
Andoni ligan gogor
bi neska zeuzkan ta biak behar
bat hemen ta bestea hor.
Deklarazio biak batean
ibili zen oso bizkor
“Nik maite zaitut, zuk’e bai ezta?
Itxoin orain berriz nator.” (bis)

- S. Colina: Andoni beti mingain-gizona
nola izandu den berez
eskuak beti dauzka patrikan
eta mintzatzen da artez.
Andonik bere bizitzan ez du
borrokarik egin batez
amodioa egiten zuen
gerra egiteko partez. (bis)
- U. Iturriaga: Amets horretan imajinatzen
lan ederrak dauzkat ba nik
atal horretan sekula ez dut
imajinatu hau lehendik.
Igual frantsesez esango zuen
ta nik ulertu ez tutik;
argi ta garbi esanda Amets
ez da deklaratu oraindik. (bis)
- S. Colina: Hiru urtekin Errealaren
txandala lapurtu nion
gero mutila sutu egin zen
ta haserrea zerion
“Kauen la rusia!” Osti bat eman
ta geroakoak hor konpon
baina tamalez huts egin eta
hortzak puskatu nizkion. (bis)
- U. Iturriaga: Orain behar dut gure Igorren
kanpoko itxura ezaba
berataz izan ditzakezuen
aurreiritzi denak laga.
Zigarrotxo bat ahoan zula
esan zion “Neska, hara:
zuk nahi baduzu edo ez baduzu
nirea izango zara”. (bis)

- S. Colina: Igor Elortzan pasadizoa
hasi behar dut kontatzen
ikastolako aldageletan
hasi gaitzen kokatzen.
Bokadiloa lapurtzen zioten
berak ez zuen ukatzen
mutikoekin ezin zuen ta
neskekin borrokatzen zen. (bis)
- U. Iturriaga: Gure Xabierrek kartzelan pasa
zuen bolada bat txarra
lige kontuan nahiko ezjakin
ez zeukan langintza edarra
baina behin neska bat topatu ta
sentitu esan beharra
“Zuk baiezkoa esan artean
ez dut moztuko bizarra.” (bis)
- S. Colina: *Treintaiseis*-ean koka gaitzen
guztia esplikatzeko.
Noizbait lagun bat joan zitzaion
zor zahar batzuk kitatzeko
honek eman ez, bestea kapaz
bi masailak zulatzeko
eta bizarra utzi egin zun
hori disimulatzeko. (bis)
- U. Iturriaga: Gure Sebastian gaztea baina
bere gaztean handi zen
bere barruan ia ez zitzaion
ardo gehiago kabitzen
ta han hasi zan zerbait esaten
inork ez zun konprenitzen...
CIAko hiru aditu daude
hitz horiek transkribitzen. (bis)
- S. Colina: Sebastianek nola daduzkan
ehun kilo hanka baten
horrelakoak gertatzea're
ez da errexia izaten.
Inuxente bat aritzen bazan
mehatxun batzuk esaten
“Kauen la oztia!” esaten zun ta
denek alde egiten zuten. (bis)

LESAKA (2003-03-30)

*Bertsolariak: B. Elizagoien, A. Arzallus,
J. Zelaieta, M. Artetxe, S. Colina, E. Arozena,
X. Silveira eta X. Legarreta.*

Gai-emailea: Mikel Taberna.

Nafarroako Bertsolari Txapelketaren finala.

Txapeldunaren agurra

A. Arzallus

Neurria: hamaseiko handia

Doinua: *Haizea dator ifarraldetik*

Jokin, Ministro, Xabier, Leire
ta beste denen izenak
Azpeitiako bertso eskolan
elkartu ohi zaretenak.
Ostegunetan berriz Karrikan
a ze afal ondorenak!
Joanitik duen xamurtasuna
ta Segundoren eztenak
Otsuak berriz puskatzen ditu
beste guztien eskemak
Martzelinoren parre algarak
ta baita Estebanena.
Nola ez aita, nola ez Sustrai
nere eskerrik onenak;
txapel hau ez da haundia baina
kabitzen zarete denak.

LAZKAO (2003-04-04)

*Bertsolariak: S. Lizaso, I. Murua, J.M. Irazu,
J. Agirre, M. Mendizabal eta J. Sorozabal.*

Gai-emailea: Inazio Usarralde.

Lazkao Txikiri kantari izenburupean, *Kilometroak* batzordeak eta Goierriko Euskal Eskolak eratutako jaialdia. Kiroldegian izan zen, gaueko hamar eta erdietan, hirurehun lagun inguru bertan zirela. Jaialdiaren hasieran berariaz jarritako bertsoak kantatu zituzten Irati eta Ekaitz Goikoetxea anai-arrebek Laida Senar piano-jolearen laguntzarekin, eta Aitor Sarriegik eta Iñaki Apalategik Zador eta Gorosti txalapartarien laguntzarekin. Saio polita eta ona izan zen oro har.

I. Murua-J. Sorozabal

Gaia: Iñaki zuhurra da, eta sentimentuei eutsiz hotz jokatu behar dela deritzo. Jokinek, berriz, zirt edo zart egin behar dela deritzo.

Neurria: zortziko handia

Doinua: *Egun lanerat abiatu zait*

- J. Sorozabal: Bazter guztiak beteta daude
hemen pakearen eske
hala ta guztiz gure oihuak
erraz ixildu litezke
ta zuhurtzian garaia denik
nik behintzat gaur ez det uste
edo oraintxe altxatzen gera
edo zapaltzen gaituzte.
- I. Murua: Gaztea zera ta ez zaitez jarri
horren odol berotuta
adinekook arrazoietik
gehio izaten degu-ta
hemen patxaran ekin behar degu
alkarri eskutik helduta
konponbiderik ez da izango
pazientzia galduta.
- J. Sorozabal: Aspaldi asko ez degu edan
hain iturri lehorretik
nik laguntzarik ez det ikusten
hemen bide bazterretik
traba egiten jartzen denari
helduko'iot zintzurretik
nere gainetik pasako dira
baina ez nere aurretik.
- I. Murua: Nahiz egoera gerta litekeen
jasangaitz eta astuna
nahiz zatiketa euskaldunontzat
sekula ez dan kuttuna
patxadan eta ongi pentsatuz
egin dezagun jarduna
armaren bidez ez da konpontzen
hitzak konpontzen ez duna.

- J. Sorozabal: Zuk esan dezu nik daukadala
oso pazientzi gutxi
beti atzean egonda berriz
inora ezin iritsi
aizu laguna nere ideiarik
zuk ez zazu gutxietsi
nik armarikan ez det eskatu
baina hortzak erakutsi.
- I. Murua: Hortzak azaldu ta erakutsi
eta ez eman bi tiro
hitz ein dezagun patxaran lagun
eskatzen dizut berriro
presaka hasiz hemen ez dago
etorkizunean giro
gauzak txikitu azkar eite'ira ¹
baina konpondu astiro.
- J. Sorozabal: Konpondu ezinik isuria da
lehen ere hamaika malko
gaur arte egin ezin deguna
zaila izango da biharko
baina mugitu beharrak gaude
gure etorkizunerako
edo gaineratik pasako dira
gu espabilatzerako.
- I. Murua: Gure gaineratik pasa litezke
ez dedin gainditu marra
horretarako susper dezagun
barruan degun sugarra
zure gogoa, nere adina
dago elkartu beharra
etorkizunak izandu dezan
batasunaren indarra.

(1) Egiten dira

S. Lizaso

Gaia: Bertsolariak nola kantatzen dio hutsuneari?

Neurria: hamarreko handia

Doinua: *Bizia ez da nehoiz egoiten*

Atzo langile, gaur langabetu²
ustegabeko trantzea
baina hala ere ez da komeni
hutsune hortan galtzea.
Langabetuak nahi duena da
nunbait lana bilatzea
tristeia bada langabetuak
hutsunea sentitzea
tristeago da hutsune hori
etsipenak betetzea. (bis)

Urtarrilaren hogeiaz gero
daukat dardarra sartuta
Egunkaria itxi zuten ta
lagunak atxilotuta
euskaldunongan hutsune latza
orduante zen sortu-ta
hutsune hori bete dezagun
badaukat nere gomuta:
bere ordezkoa sortu dezagun
konpromezua hartuta. (bis)

Bertsozalea hintzen Joxe Luis³
gureztat anai antzeko
ta heriotzak zer motibo zun
bere bila etortzeko?
Bere bihotza gelditu eta
beste askorenak lehertzeko?
Inork ahalmenik ez daukagunez
bere ordezko bat sortzeko
oroitzapenak balio beza
hutsunea betetzeko! (bis)

(2) Sebastian Lizaso *Egunkariako* langilea zen. *Egunkaria* 2003ko urtarrilaren hogeian itxi zuten.

(3) Lierniko Mujika jatetxeko nagusia zendu berria zen.

BERGARA (2003-04-12)

*Bertsolariak: M. Mendizabal, I. Murua,
J. Maia, A. Mendiluze, A.M. Peñagarikano
eta J.L. Gorrotxategi.*

Gai-emailea: Laxaro Azkune.

*J. L. Gorrotxategi-A.M. Peñagarikano-
A. Mendiluze*

Gaia: Eztabaida latza dago orain, Iraken eraikuntza dela-eta. Eztabidak utzi, eta eraikitzen hasteko ordua dela uste du Joxe Luisek. Anjel Marik uste du okerra egin duenak konpondu behar duela. Aitorrek, bien erdian, ea oreka lortzen Sduen.

Neurria: zortziko handia

Doinua: *Kantore berri xarmant batzuek*

J.L. Gorrotxategi: Gerate batek ondoren txarrak beti edo gehiengan makinatxo bat odol jario milaka hondamenean. Berriz herria eraiki dezagun gutxin-gutxinez lehenean diferentziak alde bat utzi hasi gaitezen lanean. (bis)

A.M. Peñagarikano: Goitik misilak, bonba astunak
ez haize ta ez euria
ta ondorean zer egin behar den
hortik dator komeria.
Konturatzen naiz ikusten dula
hemen bakoitzak beria
zakur txistuak konpondu ohi du
zakur hozkaren zauria. (bis)

A. Mendiluze: Batzuek hala nahi zutelako
urrun zegoen pakea
baina ona da erori dena
jasotzeai ekitea.
Halere batzuk ordaindu behar
han egin duten kaltea
lehen lana da errugabea
hilobiak egitea. (bis)

J.L. Gorrotxategi: Zakur txikiak jarraitzen dio
zakur haundian zaunkari
eta horrek zer ekarri digu?
Hor heriotzak ugari.
Santu papera hemen egin ta
erru denak bota hari
hemen ez gera inor salbatzen
denok gera pekatari. (bis)

A.M. Peñagarikano: Lehen aina diz-diz ez dute noski
Irak zeruko izarrek
erabakia hartu behar da
ta ni hortara netorrek:
amerikarrek egindakoa
konpondu amerikarrek
konpontzen ere jakin behar dik
suntsitzen dakien harrek. (bis)

A. Mendiluze: Zakurrak zaunka, zakurrak hoska
ta ibili dira bero
“Bota duenak jaso dezala!”
esaten du Peñak gero
baina hildako denak pizterik
ezin degunez espero
ez al lukete eurek jasoko
pakean utzi ezker? (bis)

J.L. Gorrotxategi: Gaur harri pilo bihurtu zaigu
horra Bagdag-ko kalea
laguntzaileen faltarik ez zun
eta bat zan hiltzailea.
Xenpelar zanak zion bezela
ni ez naiz gerrazalea.
Hau jasotzeko jarri dezagun
bakoitzak hondar alea.

A.M. Peñagarikano: Uztarik jaso behar baldin bada
hazia behar da erein
ta hausnarketak egin behar dira
jaunak, hemen, noizean behin.
Gerra hau pizten ibili dana
erruduna da edozein
ez pentsa gero hemen errudun
bakarra izan danik Hussein. (bis)

A. Mendiluze: Honek eraiki, honek zigortu
ta ni erdian akabo
barka Laxaro baina gai hontan
agian soberan nago.
Irudi latzak ikusi dira
denok nahi baino gehiago
ta alde edo kontra egon behar da
erdibiderik ez dago. (bis)

J.L. Gorrotxategi: Hemen errudun asko dauzkagu
ez dira bi edo hiru
horren guztian tartean daude
petrolio eta diru...
Bonbaz betetako hegazkin batzuk
suk hartuaz zenbait zero
pentsatu gero hemen' e denok
ez gaude oso seguru. (bis)

A.M. Peñagarikano: Oain konpontzeko zertako jarri
eskusa edo aitzaki?
Yanki gaiztoek zer egin duten
mundu guztiak badaki:
lehen eraso Afganistani
gero xego Iraki
Vietnam ere suntsitu zuten
baina ez zuten eraiki. (bis)

A. Mendiluze: Denok diogu Madrilen eta
Washintonen ez da giro!
“Gaizki egin dute” oihukatzeke
bolumena degu igo.
Petrolio merke dator ta
ahaztu astiro-astiro
ia benetan kontra al gauden
pentsa dezagun berriro! (bis)

J. L. Gorrotxategi

Hasierako puntua emanda

Neurria: hamarreko txikia

Doinua: *Lagundurikan danoi II*

L. Azkune: Barre egin nahi eta
ezin asma nola.

J.L. Gorrotxategi: Parre motiborikan
ez dago inola
mundua hemen dago
gerra dariola
nahiz ta batzueri ez
gehiegi ajola
farrearentzat lagun
txarra da odola.



*Euskal Herriko Eskolarteko Txapelketa 2003.
(Mungia, 2003-06-21)*

Argazkilaria: E. Eizagirre

IRURAITZ-GAUNA (ALAITZA) (2003-05-24)

*Bertsolariak: A. Arzallus, S. Colina, U. Iturriaga,
I. Elortza, J. Maia, M. Mendizabal, I. Murua,
A. Egaña, J.M. Irazu eta A. Mendiluze.*

Aurkezlea: Josu Goikoetxea.

Hitzetik Hortzera telebista saioak lanurte amaieran antolatutako bazkaria izan zen “Señorio de Alaiza” jatetxean. Denera hamar bertsolari eta beste hainbeste gai-emaile gonbidatu zituzten. Giroa ez zen beste urte batzuetan bezain beroa izan, baina bertsoaldi onak entzuteko parada izan zen.

M. Mendizabal-A. Arzallus

Gai-emailea: Josu Goikoetxea

Gaia: Zu, Mikel, Itoizko urtegiko horma zara. Zu, Amets, urtegi hori kaiolatzen duen ura. Azkenaldian euri jasa handiak izan dira, eta horma pitzatu egin da. Ez dakigu nor egingo duen gehiago: hormak edo urak.

Neurria: hamarreko txikia

Doinua: *Lagundurikan danoi II*

M. Mendizabal: Hormigoi pila latza burni eta guzti horma altxatu eta gero urez busti zaparrada haundikin zalantzak datoxti proiektu ilegal bat izan denez noski gaizki hasi zen eta buka leike gaizki.

A. Arzallus: Eraikitzen hasiak orain hamar urte baina ez duzu uste zen aina bertute nik garaituko zaitut halaxe det uste euriakin bakarrik ezingo banuke herritarren malkoek lagunduko naute.

M. Mendizabal: Beraz ez da ziuorra egindako obra protesta ta zalantzak izan dira sobra gaizki dagon pareta degu fiakorra herriak jasan behar letorkeen zigorra nafar gobernua ere zikindu beharko da.

A. Arzallus: Gobernuan jarria dago goi klasea eta pasatu baita denbora luzea ura fuertea degu da holakoxea ta eduki lezake betiko ase batzun egarria ta besteren gosea.

M. Mendizabal: Nahiz zabaldu zaizkidan
hainbat leihatila
Itoitz errekar dakar
urretako pila
eta gerta liteke
kriston iskanbila
desastre eta hilak
horrenbeste mila...
Pareta hau zutikan
gelditu dadila!

A. Arzallus: Arazo bat dagola
gauza ezaguna
eta entzun ondoren
hormaren jarduna
urak botako dizu
bere oihartzuna
pareta gelditzea
deus ez da laguna
zinez ura da hemen
egon behar duna.

M. Mendizabal: Salatu ondorenen
batzun martingala
orain eskatzen degu
giro naturala
sustraiaren indarrak
indartu nazala
herriek segitzeko
behar duten bezala
naturak errukia
eduki dezala!

A. Arzallus: Nunbait norbait izan zen
benetan abila
ta eraiki ta gero
gustora dabila.
Baina ni nola beti
naizen hain umila
hiltzera ez naiz joango
inortxoren bila
inor egarri bada
etorri dedila!

I. Murua-A. Egaña

Gai-emailea: Inazio Usarralde

Gaia: Hona hemen, zuen aurrean, egia eta gezurra. Andoni egia, eta Iñaki gezurra. Batzuetan elkarri egundoko amorrua diozuela eta elkar gorrotatzen duzuela dirudi. Eta bestetan oso lagun zaretela. Elkarrekin oheratzen zaretela ere egingo genuke apustu. Argi ezazue zuen harremana mesedez.

Neurria: zortziko handia

Doinua: *Oihan beltzean zoinen eder den*

A. Egaña: Nor ote degu bitan nagusi
nor ote degu menpeko?
Arrazoirikan ba al daukagu
muturturik egoteko?
Garrantzitsuen neu naiz biotan
mesede edo kalteko
nere erdia nahikoa baita
zu oso bat egiteko. (bis)

I. Murua: Baina inor gutxi somatzen det gaur
zure erdian afanean
zure erdi bat beti bakarrik
zai dago aldamenean
ausartienak beti nerekin
moldatzen dira lanean
lotsagabeak irabazten du
oheratzen geranean. (bis)

A. Egaña: Ohean ez da diferentzirik
ez itxura, ez edade
baina hala're gazte nago ni
asko maxiatu gabe
ta zu gezurra nahiz ta lehen izan
sasoi ederraren jabe
erabilian erabiliaz
guztiz ajatuta zaude. (bis)

- I. Murua: Baina helduek ni narabilte
nahiz ta ajatua izan
erdi mailako horiek ere
dabiltza nere gerizan
nerabetatik ni maite naute
maitasunaren bizitzan
zu maite zintun amona hura
orain hogeit urte hil zan. (bis)
- A. Egaña: Horretan ere hara egia
nun erori den lazuan
arrazoi dezu amona gajo
ta erdi santan kasuan
zendukalako maitale eder bat
han baserrian auzuan:
zu maite zintun aitona harek
amona hilarazi zuan. (bis)
- I. Murua: Ta harrezkero hirukoiztu du
aitona hark kapitala
materialista huts bihurtu da
lehenoko sentimentala
mamiz gainezka nabil gezurra
errege banintz bezala
ta egiari beituiozue:
hezurra eta azala. (bis)
- A. Egaña: Oso aparte gabiltzanikan
inortxok ere ez uste
telebistan'e biok batera
ene zenbat buruhauste!
Biak batera ibiltzen gaitu
dabilenak boto eske
ta bikoteen orgasmotan'e
batera egon gintezke. (bis)

I. Murua: Arrazoi dezu kontu hortan' e
ezin ba egin demanda
neroni soilik narabilkite
ez dizute uzten txanda.
Gezurra zutik, gezurra behetik
behean edota etzanda
zuk antz gehiena hartzen didazu
disimuloan esanda. (bis)

I. Elortza-A. Mendiluze

Hasierako puntua emanda.

Neurria: zortziko txikia

Doinua: *Aranora joan ziran I / Sastarretik hasita*

A. Mendiluze: Negarrez noiz joan zinen
plazatik etxera?

I. Elortza: Parkatu Mendiluze
hori da galdera!
Pentsatzen jarri naiz ta
etorri zait zera:
zoritxarrean ez naiz
horren sentibera.

A. Mendiluze: Ba noiz gertatu zaizu
haserre joatea?

I. Elortza: Gaur eduki nezake
hortako tartea
baina badakit zer den
baikor izatea:
etxera joan, lo egin
ahaztu ta pakea!

A. Mendiluze: Plazan azaltze' al dezu
benetan zerana?

I. Elortza: Ahalegintzen naiz baina
egiz badut lana.
Gaiak etortzen dira
errez guregana
ta ez da beti erraza
esatea dana.

A. Mendiluze: Desberdinak al dira
Igor ta Elortza?

I. Elortza: Oraingoxean sartu
nahi didazu hortza!
Batzutan entzuten dut
nik halako hotsa
saiatzen naiz argitzen
ni neure ahotsa.

A. Mendiluze: Zer ezin zaio eskatu
bertsolariari?

I. Elortza: Beti egitan jardun
beharra kantari
ze hori eginez gero
Aitor zaude adi:
min emango diozu
igual jenteari.

A. Mendiluze: Bueno ta orain ondo
tratatu nazazu!

I. Elortza: Beste batzun aldean
jatorra zara zu
beraz egingo dizut
neuk albotik kasu
ta saiatu erantzuten
zu ere jo ta su.

- I. Elortza: Ta zuk egi erdia esaten al duzu?
- A. Mendiluze: Nigatik erdi asko entzunak dituzu.
Plazan burua martxan ari da jo ta su.
Zuri dena bertsoan kabitzen al zaizu?
- I. Elortza: Bertsolariak al du politiko antza?
- A. Mendiluze: Sekula ez hartzeko badet esperantza baina ikusita degun egoera latza horta' bideratzen da bertsoaren martxa.
- I. Elortza: Hortan ere egia esan behar ote da?
- A. Mendiluze: Nik neuk ez esateko egin det aukera.
Buruan pentsatuta ahotik atera ta denak pozik utzi gutxi gorabehera.

I. Elortza: Igual ona etorri
 eta ezin bota

A. Mendiluze: zuengan eta guban
 zensura dago-ta.
 Baina tarteka igual
 trago batzuk jota
 botatzen ditugu ta
 ez zaigu inporta.

I. Elortza: Oraintxe ari gara
 gu negar egiten

A. Mendiluze: irrifarra eskatu
 ta malkoak irten.
 Ez dezagun jarraitu
 hoiei eragiten
 orain besteei utzi
 ta gurea eten.



*J. Garzia eta M. Lujanbio.
(Donostia, 2003-01-25)*

Argazkilaria: A. Elozegi

ARRASATE (2003-05-31)

*Bertsolariak: J. Maia, A. Mendiluze,
I. Elortza eta A. Egaña.*

Gai-emailea: Josu Goikoetxea.

Arrasateko Udalak antolatutako jaialdia. Amaia antzokian izan zen, gaueko hamar eta erdietan. Bertsoaldiz bertsoaldi gai-emaileak agintzen zien mikroa non eta nola jarri behar zuten: orain oholtzaren bazter batean, hurrena bestean, mikro biak aurrez aurre, ohiko posturan...

J. Maia-A. Mendiluze-I. Elortza-A. Egaña

Gaia: Maiatzaren 31 dugu gaur, eta diotenez maiatza astoaren hilabetea da: “Maiatza astoak arrantza”. Maiatza igaro da. Bizi izan ditugu gertakari batzuk. Zuek laurok lau asto zarete. Egizue arrantza.

Neurria: zortziko handia

Doinua: *Nahiz ta hiltzea derrigorra den*

J. Maia: Aurtengo hontan astoak fuerte
 egina degu arrantza
 ta arrantzale espabilatu
 askok egin du ‘arrantza’;
 hauteskundeetan ikusi dena
 historikoa da antza.
 Astakerien hilabetea
 izan da aurten maiatza.

A. Mendiluze: Arrantza eginez hurbildu gera
Arrasateko plazara
baina hil hontan ze aberia
a ze nolako pasada!
Nahiz ta arrantza gogotik egin
beti ohi degun gisara
nolaz ez dakit baino aurtengoan
disimuluan pasa da.

I. Elortza: Beraz gaur ekin behar diogu
gure arrantza lanari
ez da erreza bertso batean
gogor lotzea denari.
Oso aspaldi bildurra nion
maiatzak zekarrenari
eta oraindik gehiago hemendik
aurrera datorrenari.

A. Egaña: Astoak gara baina hala're
badugu nahiko birtute.
Irakurri dut Muxia aldean
PP dagoela fuerte:
giza-andreek amets bat egin
ta nahi luketena bete
astoak izan nahi lukete ta
ia-ia lortu dute.

J. Maia: Aurtengo hontan *tiburoi* batzuk
jan badituzte *antxoak*
oraingo hontan ohartu dira
itsuak eta hartxoak.
Txoko batean hanka lotuta
utzita asto gaixoak
berriro ere nagusi dira
zaldunak eta jauntxoak.

A. Mendiluze: Lehen galbidean geunden astoak
geran apurren kalteko
orain ordea sobera daude
bi hankakoak tarteko.
Arrantza egiten dute guk baino
ozenago, ez hobeto
berriro ere beraien erruz
gu ez gaituzte maiteko.

I. Elortza: Jarri diguten zelai motz hortan
ni ezin kabitu kasik
entzun ere ez naute egiten
ozen arrantza egin ezik.
Nik ez dut inor zapaldu gura
ni neroni izan baizik...
Hanka bikoia egin nahi naute
ni laurekin nabil pozik.

A. Egaña: Zenbat galera etor litekeen
ezin liteke kalkula!
Horrexegatik pertsona izaten
ez naiz saiatu sekula
guk bezelaxe haiek'e dute
belarri pare mardula
diferentzi bat bada ordea:
guk entzuten dakigula.

A. Egaña-I. Elortza

Gaia: Andoni, nik bezala arazo bat daukazu tabakoarekin: sortzeko, sormenari etekina ateratzeko, erre egin behar duzu -zuk esana da-. Baina entzun dizut baita ere, tabakoa erretzeari utzi nahi diozula. Zu, Andoni, izango zara zure biriketako bat, arnasa hartu nahi duen biriketako bat; zu, Igor, izango zara sormena ekartzen dion ke hori. Eta hain esparru estuan uztartzen zaretenez, mikro bakarretik kantatuko duzue.

Neurria: zortziko handia

Doinua: *Goizian goizik jeiki ninduzun I*

- A. Egaña: Arnasa hartzen hasi ezkerok
ikusten ditut senperrak
nabarmen dira zigarrilloak
egiten ditun okerrak.
Alde onen bat behar zenuen
ta akabo gure gerrak:
txistua jotzen ikasi nuen
ke jauna zuri eskerrak.
- I. Elortza: Garai batean erretzen zendun
zuk minutuko hiru-lau
ta orain berriz egin nahi duzu
tabako-orritik barau.
Aprobetxatu ketan datorren
inspirazio une hau
hartu nazazu oraintxe edo
haizeak eramango nau!
- A. Egaña: Esan liteke zure premiak
itoko nauela kasik
kearen faltan sentitzen bainaiz
oso kaxkar, oso hutsik
ispirazio kontutan zuri
esker nabil oso pozik
baina ez zera ispirazio
haren mozorroa baizik.
- I. Elortza: Baina zupada bat egin eta
burura mila akordu...
Niri eskerrak gozatu duzu
makina bat sormen ordu
ta behin batera ohitu ezkerok
gero ez daude bi modu:
zuri kalte egin behar dizut baina
arteak eskertuko du.

- A. Egaña: Kea ez degu ordea arte
gehienez be aitzakia.
Aspaldidanik zauzkat barruan
erantsita, atxikia.
Eskakizun bat egin nahi dizut
erregu txiki-txikia:
gutxienik lasai utzi ezazu
nire anaia bixkia.
- I. Elortza: Zure anaia bizkiak dauka
zuk zerorrek duzun traza
behin honezkero hori konpontzen
ez daukagu lan erraza!
Barkatu baina hau da Andonik
beharrezko duen jolasa:
birikarentzat kea da baina
buruarentzat arnasa.

J. Maia

- Gaia: (Joan zaitetz hara bazterrera). Gaur larunbata, herrian zehar pasioan joatea erabaki duzu. Hor zabiltza eta halako batean herriko hilerrira heldu zara. Kuriositatez barrura sartu zara, eta han ikusi dituzu hilobiak, han ikusi dituzu nitxoak, ikusi dituzu lore jarri berriak, ikusi dituzu lore ihartuak, eta izenak, hildakoen izenak, irakurtzen hasi zara. Han datza Joan Antonio Otxotorena, han dago Maria Luisa Garai, Antonio Gomez, Iker Gerrickagoitia, Jose Maria Urrutia, Eulalia Gorostidi, Agurtzane Etxabe... Denak hilda daude, garai desberdinetan eta modu desberdinetan hilda.

Neurria: hamarreko handia
Doinua: *Gogoan daukat ez du aspaldi*

Hoiek guztiak egongo ziran
noizbait herrian bizitzen
urterik urte denborarekin
nola denak diren hiltzen.
Gaur etorri naiz ta aspaldian
halako irrikaz nintzen
milaka argazki txikitxo daude
milaka lore ta izen...
Bakar-bakarrik nagoen arren
ez naiz bakarrik sentitzen. (bis)

Hilobi hauek ikusiaz bat
hesteak zaizkit mugitu
tarteka ere ezagun batzuk
nola ditudan aurkitu.
Hain sentsazio arraroa da
ezin dela entenditu:
hona begira, hara begira
hara zenbat zirrikitu!
Bat bakarra da herio baina
milaka arpegi ditu. (bis)

Haize leun bat sentitu det ta
jarri naiz horra begira
hotzikara bat goitikan behera
nola sartu zaidan di-da.
Gu ere hala etorri gera
noizbait hiltzeko bizira
oraintxe hila egon leikena
beste nunbaiten bizi da
baina oroitzen geran artean
denak gugan bizi dira. (bis)

GASTEIZ (2003-06-01)

*Bertsolariak: R. Sanchez, A. Otamendi, O. Perea,
M. Agirre, Z. Enbeita eta J.M. Juaristi.*

Gai-emailea: Naroa Sasieta

Arabako Bertsolari Txapelketaren finala.

Txapeldunaren agurra

Z. Enbeita

Neurria: hamarreko handia

Doinua: *Aita izena kanta beharrak*

Txapela jantzi didate eta
orain eskeini beharko
Durango eta Arrasatetik
hurbildu direnentzako.
Txaloka gogor egon zaretan
lagun, zale... denentzako;
eta nola ez aguantau nauzun
maite ere zuretzako.
Egun hau ez dut erraz ahaztuko
bihotzez eskerrik asko. (bis)

OLARTZUN (2003-06-01)

Bertsolariak: S. Colina eta A. Arzallus 

Gai-emailea: Unai Elizasu

Urtero antolatzen duten Bertso Astearen barruan, BarKATU emanaldi berezia eskaini zuten. Emanaldi honetan Unai Elizasu da gidaria, eta Arzallus eta Colina bertsolariak.

Gaia: Zuek ze jende behar izaten duzue inguruan ongi sentitzeko?

Neurria: Berezia

Doinua: *Itsaso hori dago zatarra* ¹

- S. Colina Autobusean edo trenean
 jendea bueltan dut gehienez
 horrelakotan zirrarakin
 ezin izan barrenean. (bis)
- A. Arzallus: Amets ipintzeko parrez
 norbait behar derrigorrez
 edo batzutan inor ez.
- S. Colina: Arrazoi duzu esan duzunak
 asetu nau azkenean
 Sustrai're ondo egoten baita
 bakarrik dagoenean. (bis)

(1) Zortzi puntuko bertsoa da. Lehen eta azken bi puntuak bertsolari batek kantatuko ditu, eta tarteko hiru puntu motzak beste bertsolariak, errima aldatuz.

- A. Arzallus: Bakardadeai zara fidela
jakin holako asko direla
hala ere askoz gustorago ni
lagunak hor ditutela. (bis)
- S. Colina: Egon gabe lagunen zai
egoten naiz lasai-lasai
han Colina ta hor Sustrai.
- A. Arzallus: Hala ta guztiz esango dizut
pentsatzen dedan bezela
Sustrai urruti dagoenean
triste egoten naizela. (bis)
- S. Colina: Zergatik hasi zuri planean
denen aurrean bertso lanean?
Entzulegoa ez da etorri
bi gezurren afanean. (bis)
- A. Arzallus: Zurikeriz bertso sorta
joateak ez du inporta
beltzez jantzita dator-ta.
- S. Colina: Bakardadea esan dut baina
onartzen dut azkenean
bakardadea hobe delat
konpartitua denean. (bis)
- A. Arzallus: Aitan eskua, aman magala
haiek enborra ta ni ezpala
hoben babesa bilatzen dut nik
beti nola edo hala. (bis)
- S. Colina: Baina zer zabiltz esaten
harro-harro kirten-kirten?
Aman gonapetik irten!
- A. Arzallus: Baina Oiartzunen pozik nago ni
jendeak jakin dezala
ni hemen beti hartu bainaute
nere etxean bezala. (bis)

- S. Colina: Edo bestela Esteri² galde
Juanito, Otsua... hoiek'e hor daude
alper-alperrik ez ote gabiltz
zurikeritan hala're? (bis)
- A. Arzallus: Girizian ta Karrikan
gu kanturako irrikan
egoten gera sarritan.
- S. Colina: Amets Oiartzun hartu ezkeru
zure etxean zutabe
nere ustetan baietz geratu
laster etxerikan gabe! (bis)
- A. Arzallus: Beraz ez etxe ta ez alkate
hemengo plana hola daukate
nahiz eta berez hauek baduten
behar aina borondate. (bis)
- S. Colina: Amets hemendik aurrera
orain artean antzera
segi dezagun batera.
- A. Arzallus: Ni hemen pozik egoten naiz bai
denek sinistu didate
eta sinistu ez dunik bada
ba berarentzako kalte. (bis)
- S. Colina: Bueno bukatu dezagun hemen
denak bakarrik utzi baino lehen
zer behar duen ta zer nahi duen
norberak daki ondoen. (bis)
- A. Arzallus: Nago hauxe esan nahian:
ez nago modu alaian
luzatzen geran garaian.
- S. Colina: Hau esan gabe saioak ez zun
ez zentzu ta ez zentzumen
inguratuta gaude benetan
bai hemen ta Oiartzunen. (bis)

(2) Oiartzungo bertso-eskolako kide bat da Este: Esteban Martiarena. Eta jarraian datozenak ere bertso-eskolako kideak dira.

BILBO (2003-06-08)

*Bertsolariak: I. Elortza, A. Lopategi,
F. Paia eta I. Ibarra.*

Gai-emailea: Jon Ander Tobalina

F. Paia

Gaia: Hiru hitz emango dizkizut.

1.-Ilegalizazioa

Neurria: zortziko handia

Doinua: *Beste bateko inularretan*

Espainiarren ofensiba hau
gordina bezain itzela
egia baita herri zati bat
kanpoan utzi nahi dabela
igertzen jake frontoi kontuan
ostirik ez dakitela
pilota frontisera badoa
gero bueltatu ohi dela. (bis)

2.-Patxarana

Neurria: hamarreko txikia

Doinua: *Mutil koxkor bat itsuaurreko I*

Bertso munduan edari horrek
sarri jartzen gaitu bero
ezertxo ere ez dakiena
bihurtzen du injeniero.
Azken boladan ni be izan naiz
edari honen bezero
eta gainera hau esango dut
bihurtuz gure borrero:
Euskal Herriarenak egin du
ilegalizatuz gero. (bis)

3.-Sexua

Neurria: zortziko handia

Doinua: *Arratsalde on lehendabizitik*

Gazte aroan norberak bere
intentziora daukala
asteen birritan egitea
ez da hain gauza normala
elizarentzat pekatua da
hortan dabil Pastoralak
baina aspalditik esaten dut nik
kasi miraria dala. (bis)

ANDOAIN (2003-06-24)

*Bertsolariak: J. Sorozabal, M. Mendizabal,
J. Enbeita, I. Zelaia, A. Arzallus eta S. Lizaso.*

Gai-emailea: Jose Mari Oiartzabal.

Jai Batzordeak San Juan egunarekin urtero eratzen duen jaialdia. Pilotalekuan izan zen, ilunabarrean. Entzule asko.

J. Sorozabal-I. Zelaia

Gaia: Bi hauek homosexual bikote bat osatzen dute. Iñakiren ametsetariko bat zuriz jantzita aldareratzea da.

Neurria: zortziko handia

Doinua: *Zeru altuan zegoen jaunak*

I. Zelaia: Lege eder bat onartu zuten
 gu biok degu goguan.
 Aspalditikan nengon bikote
 osatzeko esperuan.
 Orain elizaz ezkondu nahi det
 gehientsuenen moduan;
 zuriz ederki eman behar det
 apaiz beltzaren onduan.

- J. Sorozabal: Gure mutilak oraintxe ere
egin duela aibala!
Etxe osoa gonbidatu du
ta hau da gure perkala.
Nik ez dadukat bat'e pegarik
ezkontzeko nahi bezala
baina apaizai nork esango dio
biok mutilak gerala?
- I. Zelaia: Gure sendian omen gabiltza
biok disgusto karraio
baina ezkontza egin behar degu
edo eta ze arraio!
Gure apaiza konbentzitzeko
ez egin hainbeste saio
eskatzen duna ordainduz gero
hari igual-igual zaio!
- J. Sorozabal: Itsukerian erori zera
egin beharran beharrez
zuk badakizu hori lortzea
ez dala izango errez.
Pake-pakean molda gaitezen
dena publikatu ordez
lotsaz ez degu ibili behar
kanpaia jotzen ere ez.
- I. Zelaia: Kanpaiak ozen jo behar dira
entera dedin auzua
beste batzuntzat gidari eran
izango baita kasua.
Elizara jua eraztunakin
eman dezagun pausua
eta muxua emango dizut
erroskiladun muxua.

J. Sorozabal: Ez dakit baina toki onera
ote geran gu abitu
nik dakidanez homosexualak
elizan ezin kabitu.
Baina ezkondu nahi badezu zuk
nere hitza ondo aditu:
oraingo gure alkate horrek
pozik ezkonduko gaitu.

J. Sorozabal

Gaia: Zu, Jokin, herriko lurperatzailea zaitugu. Aste honetan bi
hilotz lurperatu dituzu: bata, bere eskuetan bonba bat leher-
tutako pertsona, eta, bestea, bizkarzainekin zebilen zinegotzi
bat.

Neurria: zortziko handia

Doinua: *Egun lanerat abiatu zait*

Kaliak minez betetzen dira
batian ta bestian joz.
Ni hemen nago datorren dena
pakian serbitu asmoz.
Aspaldi hontan osatzen gera
denok minez eta malkoz
atzo negarrez etorri ziran
gaur ere negarrez datoz.

Gauza ederra omen litzake
hemen denontzat pakia.
Hala ta guztiz ez izateko
beti bada aitzakia
herri honetan itxita dago
elkarbizitzan atia.
Lurpean behintzat izango ahal da
guztientzako tokia!

Batzuk birkartzain bat behar dute
etxetik ateratzeko
besteek ez dute eskubiderik
zinegotzi izateko.
Nik martxa onik ez det ikusten
hemen pakia sortzeko.
Norbaitek lana egin dezala
nik lanik ez izateko!



*Bittor Elizagoienek Nafarroako Bertsozale Elkartearen omenaldia jaso zuen.
(Lesaka, 2003-03-30)*

Argazkilaria: A. Elozegi

DONOSTIA (AÑORGA) (2003-07-13)

Bertsolariak: A. Egaña eta A. Arzallus.

Gai-emailea: Joxe Joakin Elexpuru.

Añorgako Kultur eta Kirol Elkarteak Karmenetan urtero antolatzen duen bertso-afaria. Elkarteak afaltiarrez bete eta oso giro ona. Hasieran librean aritu ziren. Librean nahikoa egin eta gero gaiak jarrita egin zuten bertsoan.

A. Egaña-A. Arzallus

Afaltiarren artean Añorgako bi bertsolari gazte zeuden: Beñat eta Unai Gaztelumendi anaiak. Saioaren hasiera aldera haiei buruz jardun zuten.

Neurria: zortziko handia

Doinua: *Balentin Berriotxoarena*

A. Arzallus: Gazteak nunbait atera behar
 eta Añorgan atera
 eta gainera juntatu dira
 bi anai gazte batera.
 Aprobetxatu behar da Andoni
 orain daukagun aukera
 igual ez gera hemen egongo
 hemendik hiru urtera. (bis)

A. Egaña: Erreleboa eman ez gero
oso ona litzateke
gure etxean gure señoarak
ez luke izango kalte
baina bertsotan oraindik behintzat
tokia denek daukate
gauza berbera kantatu gendun
orain dela hiru urte. (bis)

A. Arzallus: Nik lasaitasun pixkat hartzen dut
hori hola izatera
baina segida eman asmotan
hauxe noa esatera:
nahiz esaldi hori ekarri degun
berriro gure artera
ea berdina kantatzen degun
hemendik hiru urtera. (bis)

A. Egaña: Orain hiru urte aipatu ginun
ta hemen dauzkagu aurten
orain artean aurrikuspenak
ez dira hain gaizki irten.
Barka anaiak, zertan aritu
gauza gehiago esaten?
Segi zazute miresgarri ta
apal-apalak izaten. (bis)

A. Arzallus: Oraindik gazte zerate eta
segi zazute ikasten
nahiz eta igual kompetentziak
hori ez dizuen uzten.
Bi anai dira ta biak dabilta
maila ona erakusten
eta eskerrak beren aita-amek
geho egin ez zituzten! (bis)

BERANGO (2003-07-26)

*Bertsolariak: F. Paia, I. Ibarra, J. Igeregi,
M. Loiazaga eta P. Etxebarria.*

Gai-emailea: Nahikari Aio.

Santana jaiak zirela-eta, Algortako Bertsolari Eskolak eraturako jaialdia. Santana auzoko plazan, ilunabarreko zortzietan.

F. Paia-I. Ibarra

Gaia: Bikote bat zarete; Fredi mutila eta Iratxe neska. Autoa hartu eta autoen zinema batera joatea erabaki duzue, non autoak iladan jarri eta film bat jartzen duten. Ohartu zarete inguruko auto guztietan bikoteak besarkatuta daudela, musuak ematen ari direla, baina zuek biok geldi-geldi zaudete, eta Frediri zerbait egiteko gogoaz sartu zaio.

Neurria: zortziko handia

Doinua: *Ari naizela ari naizela*

F. Paia: Kotxe zinemaraino etorri
 sarreratxotxu biren truk
 hementxe gaude biak geldirik
 lehen ez baitugu egin zurrut.
 Estra bezela sentitzen naiz ni
 Iratxe esan nahi dizut
 bada gure pelikula hontan
 protagonista izan nahi dut.

- I. Ibarra: Alboko danak eskua sartzen
honek emoten dau burla
ai, ni zineman era honetan
ez naz egona sekula
orain bakarrik ikusi nahi dot
protagonista mardula
gero etxean egingo dogu
Fredri bion pelikula.
- F. Paia: Hemen geldi egon behar dugu
hara zelako nahastea!
Iratxe komenigarri zaizu
gauza batzuk ikastea:
aspergarria da kotxe baten
geldik orduak pastea
sekula ez zait gustatu Iratxe
gauzak geroko uztea.
- I. Ibarra: Gero hobeto egingo doguz
eta trankil egon zaitez
konzentrazino handia behar dot
eta isildu mesedez!
Tom Cruise ta Brad Pitt hortxe daukaguz
mutiko guapoak berez
eskua hartzen itxiko deutsut
baina hortik aurrera ez.
- F. Paia: Gure plan hau ez dut nik gustoko
hasi behar dut esaten
dagoeneko hamaika aldiz
egin didazu hau aurtan
eta nekatuta nago neska
tontoegia izaten.
Agur, banoa ondoko kotxera
ia hor onartzen nauten!

I. Ibarra: Horrek bialdu eingo zaitue
emonda bi muturreko
aurrekoari begiratzea
izango dogu hobeto.
Ligoiak dira, biak *playboy*-ak
Bassinger be hor da tarteko
orain ikasi egin behar dozu
gero praktikan jarteko.



*Artatse Elkartek urtero antolatzen duen bertso-afaria.
X. Amuriza eta U. Iturriaga.
(Bergara, 2003-02-15)*

Argazkia: Artatse Elkartea

GORLIZ (2003-07-27)

*Bertsolariak: M. Artetxe, I. Elortza,
A. Egaña eta F. Paia*

Gai-emailea: Miren Loizaga.

Gorlizko Udalak herriko jaien harira antolatutako jaialdia. Saioa Iberre-Barri plazan izan zen, iluntzeko zortzi eta erdietan hasita. Denera hirurehun bat entzule egon ziren.

M. Artetxe-A. Egaña

Gaia: Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak zu aukeratu zaitu, Miren, Andonirengana joan eta erretiratzeko eskatzeko, alegia, gazteei plazak uzteko.

Neurria: zortziko handia

Doinua: *Santa Barbara zure bizitza I*

M. Artetxe: Zure buruak zapuzten ditu
gazte guztien ametsak
ta zure kantu beroarekin
datoz gure garai beltzak.
Zuk gazteengan ta berriengan
esperantza jarri behintzat
txapelak gorde zuretzat baina
plaza bat utzi besteentzat. (bis)

- A. Egaña: Aizazu Miren behingoagatik
ez zaite jarri horrela
neronek ere amets bera dut
gainditu nazazuela.
Urte batzutan segi nerekin
gaur, orain, zauden bezela
ta gutxi barru helduko dira
bai plazak ta bai txapela. (bis)
- M. Artetxe: Nik plazaren bat nahi dut ordea
ta txapela berriz berdin
zu hor zabilta lehtaraziz
mila sailkapen ta *rankin*.
Baina guztia ez dago ondo
ta aldatzeari ekin
neska gazteak aspertzen dira
berrogei urtekoekin. (bis)
- A. Egaña: Azkenerako adarra joaz
hasi zataizkit xuabe
aizazu Miren esango dizut
hor zaudenez parez pare:
nere iritziz bertsogintzako
bide zuzenean zaude
bertsolariak jakin behar du
apur bat aspertzen ere. (bis)
- M. Artetxe: Bai, bai, guztiok dakigu aspertzen
ta gehiegi ere bai noski
baina utzi itzazu bertso kontuak
ta atletismoan busti.
Utzi ezazu bertsolaritza
zure maratoi ta guzti
ta ahulegi sentituz gero
partxisa ez dago gaizki. (bis)

- A. Egaña: Zaletasunak asko dira ta
partxisa ez aukeratu
ni izaeraz ezin ninteke
etxe txokoan geratu.
Gazteak ezin lezake beti
zaharra urrutiratu
Mayok be ez du erabakitzen
Amstrong noiz erretiratu.(bis)
- M. Artetxe: Ez, antza denez ez zara Andoni
nere tranpa hontan erori
elkarrizketa hastapenean
ere argi zegoen hori.
Baina gazteak etxean daude
eta plazak berriz gori
nik ezin zaitut konbentzitu ta
deitu Imanol Lazkanori. (bis)
- A. Egaña: Urterik urte, plazarik plaza
nabil marrazo asekaitez
beste asmorik ez dut buruan
erretiratzea garaiz.
Txirritak nahiko arrazoi zeukan
pentsatu izandu dut maiz:
ez nazazula bultza Mirentxu
neroni eroriko naiz. (bis)

A. Egaña-I. Elortza

Gaia: La Habana, 2003ko uztailaren 26a. Andoni emakume kubatar-
rrak eta Igor turista estatu batuarrak bat egin dute dantzan
gozo-gozo, Moncadako asaltoaren ospakizunetan.

Neurria: seiko txikia
Doinua: *Bertsuak jarri dizkat*

A. Egaña: Hurbildu zaite hona
ez joan hain urrun
eta heldu zaidazu
gerritikan leun
iraultza eguna da-ta
ospatu dezagun! (bis)

I. Elortza: Zuri pega egiteko
nire desioa...
Kantzontzilo barruan
hau da sesioa
oraintxe doa gora
reboluzioa. (bis)

A. Egaña: Egizko iraultza hura
beti behetik gora
zure esanarekin
ez nago gustora:
zure iraultza hori
jetsi egingo da. (bis)

I. Elortza: Barkatu baina nauzu
bi hankatakoa
nere bi besoekin
zure gogokoa
beste honekin izar bat
bost puntatakoa. (bis)

A. Egaña: Harro hasi zatzaizkit
zeronen kaltean
bost puntako izarra
aipatuz tartean
ez dizut sinetsiko
ikusiko artean. (bis)

I. Elortza: Erronka bota eta
zu ez zagoz mutu
gaur hona etortzeaz
ezin dot damutu
gero ikusiko dozu
lehenengo ikutu. (bis)

- A. Egaña: Zure konfiantzak nau
harritu zeharo
izarrai begiratu
ta orduan akabo!
Tamalez gaurko hontan
lainotuta dago. (bis)
- I. Elortza: Lainotuta egon arren
hoba dogu ekin
baina bada zeozer
nahi dodana jakin:
egin al dozu inoiz
Fidel Castrorekin? (bis)
- A. Egaña: Holako tranparikan
inoiz bat edo bi
jarri izan didate ta
ni ez naiz erori;
Fidel tartean da-ta
sekretua da hori. (bis)
- I. Elortza: Pregunta egin dot ta
zu ez zagoz lasai
sekretua ei dogu
parkatu beraz, bai.
Dantza egin al zendun
baino ez nun jakin nahi. (bis)
- A. Egaña: Hara gure izarra
beldurti ta plako
bere izartxo hori
baztertu beharko
iraultzak izan behar du
behin ta betirako. (bis)
- I. Elortza: Nik kasu egin dautset
zure berba horrei
betirako ei dala
egiten dozu dei
baina zuk ez dauzkazu
beti hogeita sei. (bis)

A. Egaña: Sei gehiago badauzkat
ze ajola, tira!
Ez zaitut maitatuko
zoaz Espainira
zuen *fihrerzitoan*
bigote azpira! (bis)



Arabako Bertsolari Txapelketa.

Z. Enbeita.

(Gasteiz, 2003-06-01)

Argazkilaria: E. Sanz

GETXO (ALGORTA) (2003-07-30)

*Bertsolariak: J. Maia, S. Colina,
X. Paia eta A. Mendiluze*

Gai-emailea: Josu Esnaola.

Eguerdiko ordu batean izan zen saioa Algortako plazan. Urtero antolatzen dute Saninazio jaietan.

J. Maia

Gaia: Moncada.

Neurria: hamarreko handia

Doinua: *Gogoan daukat ez du aspaldi*

Kuban iraultza hasi zutela
urteurrenean bertan
Kubaren aurka mintzatzen dira
herrialde gehienetan.
Irla zaharra aurrera doa
bere pauso astunetan
kontuak kontu Moncada hartan
bildu ziran ordu haietan
esperantza bat piztu zen berriz
gure mundu txar honetan. (bis)

Urteak pasa dira aurrera
ta ez dira pasa gutxi
ordutik Kuba gogor bizi da
baina nahikoa itsusi
kapitalisten mundu honetan
yankiak dira nagusi.
Kubak aurrera egin ez badu
ez da duelako etsi
baizikan eta beste gehienek
ez dietelako utzi. (bis)

Hori Castrori jarri diote
diktadorearen fama
ez det esango ondo ta zuzen
egin duenikan dana
hainbeste traba ta kolpe artean
izan baitu nahiko lana.
Zein errexa den ondo bizitzen
diren guztien esana
egunen baten lozorrotikan
esnatuko da kaimana. (bis)

VILLABONA (2003-07-30)

*Bertsolariak: A. Mendiluze, S. Colina,
A. Arzallus, A. Agirre eta J.M. Irazu.*

Gai-emailea: Jon Zaldua.

Jaietan urtero antolatzen duten jaialdia. Gaueko hamar eta erdietan, Arroako plazan. Urtero-urtero entzule asko hurbiltzen da bertara.

A. Mendiluze-A. Arzallus

Gaia: Zuek maratoilari baten bi zati izango zarete: Aitor bihotza eta Amets burua. Azken kilometroan sarturik, bihotzak gelditze-ko esaten du; buruak, berriz, jarraitzeko.

Neurria: hamarreko txikia

Doinua: *Lagundurikan danoi I*

A. Mendiluze: Badezu prestakuntza
badezu ohitura
karreratan zabilta
onenen modura.
Ahalegintzea beti
ohi da abentura
baina ez zera helduko
nahi dezun lekura
bihotz honen karrera
hemen bukatu da.

A. Arzallus: Lehenago indarretan
zenbiltzan oparo
baina azken metrotan
guztiak akabo
txiki-txiki eginda
baitzatoz zeharo
zure barruko muga
oso gertu dago
baina helmuga marra
pixkat gertuago.

A. Mendiluze: Beraz segi nahi dezu
aurreko modura
ezin aintzat hartuta
bihotzaren duda.
Esan dizut: nerea
hemen bukatu da.
Zuk berriz “segi-segi”
ta ezin kontura
hau izan litekeela
azkeneko muga.

A. Arzallus: Haseratik ordua
askotan pasa da
azkenik gorputzari
nolako pasada!
Nahiz eta hor zoazen
gaixoen trazara
behin hontaz gero segi
zazu helmugara
edo bihar goizean
damutuko zara.

A. Mendiluze: Goizean nola egon
umore tristeko
aukerarik ez bada
horta' iristeko?
Dudan zaude begiak
betiko ixteko
balantzan jarri behar
zenuen hasteko
zer galdu dezakezun
zer irabazteko.

A. Arzallus: Dena espero eta
agian hutsuna
ia-ia galdurik
hankak ta zentzuna.
Hanka egitea da
orain nahi duzuna
baina entzun zaidazu
gaur neri laguna
ta hurrengoan egin
bihotzak nahi duna.

A. Mendiluze: Nere hitza ez al zen
hortaino zorrotza?
Urrun dezu bildurra
urrun dezu lotsa
baina sentitzen hasi
zera gorputz hotza
zure pausoa ere
bihurtu da motza
oraingo hau izan da
nere azken hotsa.

A. Arzallus: Baina buruak badu
nahikoa bertute
urteetan landutako
dohai baten truke.
Hemen dena uzteak
zer merezi luke?
Horra ikusle pila
begiratu zuk'e!
Helmuga gaingaitzean
txalo joko dute.

A. Mendiluze: Txalo batzuen truke
zigortu jo ta su...
Bukaerara arte dudan
bai ni eta bai zu.
Azkenerako ondo
atera da aizu:
oinak helmugaraino
iritsi zaizkizu
baina egun batean
damutuko zaizu.

A. Arzallus: Bukatzen baldin bada
 egungo karrera
 horrek izan beharko du
 gaurtik aurrera.
 Baina zergatik egin
 hainbeste galdera?
 Ez pentsatu ta segi
 helmuga aldera
 ta askozaz lehenago
 iritsiko zera.

A. Arzallus-A. Agirre

Gaia: Maitasun gutun batean, sarritan, pentsatzen dena eta idazten
 dena ez dira berdinak izaten. Zuk, Amaia, esango diguzu zer
 pentsatzen duzun; eta zuk, Amets, zer idatzi duzun.

Neurria: hamarreko txikia
Doinua: *Hamalau heriotzena*

A. Agirre: Zure lagun izana
 negu eta udan
 elkarren kide gera
 gure abenturan.
 Zerbait esan nahi eta
 beti nabil dudan
 tatxa txiki bat bada
 aspaldi loturan:
 zein lagun zaitudan ta
 ze urrun zaitudan.

A. Arzallus: Udaran egin nintzen
 zure lagun mina
 neguan berotu ere
 zurekin jakina.
 Nola egun batean
 egin nizun zina
 geroztik zu baitzara
 nere erregina
 ai, pixkat gertuago
 egongo bagina!

A. Agirre: Zeinen krudela degun
destinu alena!
Erbestera joana
ta barruan pena.
Barrun borrokarako
sobran dezu sena
orrira isuri det
tintarik beltzena
ta orain eskua det
preso dagoena.

A. Arzallus: Urrutira joan zinen
zu fin eta trebe
geroztik ez naiz bizi
nahi bezain alegre.
Tinta bat isuri zait
orain alafede!
Baina jartzeak ez dit
egingo mesede
konturatuko baita
esan gabe ere.

A. Agirre: Letrak izkiriitzen
ez nabil galako
bihotzez oso maite
nik zaitudalako.
Behin ukatu ta orain
aitortu beharko:
ez dizut bidaliko
karta hau, zertako?
Itzuliko zerala
badakidalako.

A. Arzallus: Horrela izango den
seguru ez nago
nahiz ta hemen urteak
pila bat igaro.
Ez nezake nik iraun
trantzean luzaro.
Karta bidaliko det
egin beharra dago
ea ez den itzultzen
zu baino lehenago!

ALTZO (2003-07-31)

*Bertsolariak: A.M. Peñagarikano, A. Egaña,
S. Colina, A. Arzallus, M. Lujanbio
eta J.M. Irazu.*

Gai-jartzaileak: Manuel Olano eta Jexux Murua.

Gai-emailea: Manuel Olano.

Saninazio jaietan urtero antolatzen duten jaialdia. Gaueko hamar eta erdietan izan zen, pilotalekua entzulez beterik zela; guztira seiehun eta berrogeita hamar lagun inguru.

A. Arzallus-A.M. Peñagarikano

Gaia: Kontu egizue, Amets Aimar Olaizola dugula. Peña, orain artean behintzat bere jarraitzaile sutsua izan da. Finala jokatu ondoren, hauxe da aurrez aurre zaudeten lehenengo aldia.

Neurria: zortziko handia

Doinua: *Adixkidia Andoandikan*

A. M. Peñagarikano: Aizazu Aimar egin dezuna
 ia ezin det sinetsi!
 Alde batea hobe zenuen
 finalera ez iritsi.
 Uste al zenun txori-kakaren
 hurrengo zala Patxi?
 Kontrariokin zuk euki dezu
 kontsiderazio gutxi.

- A. Arzallus: Egun luzeetan nik egin nuen gogoeta bat sakona. Neuk erabaki ta horregatik etorria nintzen hona. Orain ikusi zaitut ta ez zara horren jarraitzaile ona zu zarelako galdutakoan nigandik urrun dagona.
- A. M. Peñagarikano: Pelotazale asko bezela nago hasarre xamarrik gaurdaino arte maite nun baina gaur ez det maite Aimarrik. Jarraitzaileei postura hortan ez iezu jo adarrik! Ezin daiteke txapela jantzi esku batekin bakarrik.
- A. Arzallus: Baina saiatu saiatu behintzat egin behar da behinepin nahiz gero igual ezin den lortu pentsatu aina etekin. Lehenago maite eta orain ez nahi baldin badezu jakin kasualidadez berdin-berdina pasa zait neri zurekin.
- A. M. Peñagarikano: Hamaika aldiz ikusi izan det hau izerdi dariola! Gauzak horrela gertatu dira baina ezin da izan hola. Hobe zenuen zure lekuan bialtzea Barriola! Honi berea eginez gero ezerk ez dio ajola.

- A. Arzallus: Baina frontoira neu joan nintzen
Abel zegoen txokoan
zuk uste baino askoz gehiago
zegoelako jokoan.
Uste ez nula jesukristonak
esan dituzu gaurkoan
ta ez zaidazu muxurik eman
txapela jantzitakoan!
- A. M. Peñagarikano: Ni ziur nago beste hainbeste
ez dudala ikusiko
haundi xamarra egin dezu ta
orain ez zaitut begiko.
Muxu kontuan zu ez al zera
Aimar nerekin hasiko?
Seguru nago, txapela ez dezu
sekula irabaziko!
- A. Arzallus: Zuk isilikan egonez gero
egingo dezu mesede.
Ez dut ondo egin eta badakit
nahiz ta hori nuen xede.
Nik onartzen dut baina eskatu
nahiko nuke alafede
jarraitzaileak ni maitatzea
gaizki egitean ere.
- A. M. Peñagarikano: Aizazu Aimar, lehen esan dizut
oain ez zaitudala maite.
Ezautu nuen gure Atano
baita ere Azkarate.
Bainan zuk egin dezu hoi eta
nei ez zait gustatu bat'e
gaur eguneko pelotariak
diruzaleak zerate!

A. Arzallus: Egoskorra da eta postura
nahi luke hortan mantendu
penatan dago txapelketa hontan
ez naizelako gailendu.
Zu ere zera diruzalea
ta behar zaitut zuzendu
ez zendulako hori esango
diruik galdu ez bazendu.

A. Egaña-M. Lujanbio

Gaia: Kontu egizue zuek biok bikotekideak zaretela. Ohartu zineten
zuen harremana ez zihoala ondo, krisialdi batean murgilduta
zegoela. Hori dela eta, udako oporrak bakoitzak bere aldetik
pasatzea erabaki zenuten. Oporraldia igaro eta oraintxe zau-
dete aurrez aurre berriro.

Neurria: hamarreko txikia

Doinua: *Ia jarri gaituzte / Agur sagar beltzeran*

M. Lujanbio: Soluzioen bila
ekin eta ekin
ta ez ginan konformatzen
gu bakar batekin.
Haizea hartzen egon naiz
Pirineo erdin
zenbat irauten degun
nahi det orain jakin
hamabost eguneko
gasolinarekin.

A. Egaña: Aspaldian nenbilen
Mejikon zelatan
haruntza joan nintzan
nere harro plantan.
Han berdintsu zitzaidan
Cancun edo kankan!
Hara apartatzeak
ze indarra daukan!:
lehen soberan zintudan
eta orain faltan.

M. Lujanbio: Oporraldia izan
dezu egokia
juntatu gera eta
hau egun betia!
Aizu, nik sentitu det
ez da aitzakia
ikusi dedanean
zure bekokia
aspaldi sentitu ez nun
irripar ttikia.

A. Egaña: Apartatu beharra
hori da tristea
konturatzeko zein zen
gure eskastea.
Denbora soil-soilik zen
gendun desgastea
beraz onena degu
oporrak uztea
ta gaxtetan bezela
'lanean' hastea.

M. Lujanbio: Gaztetako garaiak
 dituzu begitan
 horra ezin gintezke
 bueltatu egitan.
 Berriz juntatu gera
 pentsau gabe bitan
 igual egongo gera
 dosien premitan
 hamabost eguneko
 bolada txikitan.

A. Egaña: Gutxitxo ote degun
 bururatu di-da...
 Zure maitasun hori
 urritzen ari da.
 Segi ‘zagun lehengoan
 berriz ere tira
 elkarren ondoan ta
 elkarri begira
 ta oporrak berriz’e
 iritsiko dira.

GASTEIZ (2003-08-05)

*Bertsolariak: Z. Enbeita, J. Maia,
S. Colina eta I. Viñaspre*

Gai-emailea: Aitziber Perez de Karkamo.

Gasteizko jaietan egin ohi diren jaialdietako bat. Aihotz plazan, hirurehun entzule inguru.

J. Maia-S. Colina

Gaia: Jon, zure bikotea galdutzat eman zenuen orain dela hamabost urte itsasoan, eta gaur etxean agertu zaizu.

Neurria: zortziko handia

Doinua: *Elizan sartu ziradenian I / Salvatoreko ermitan I*

J. Maia: Itxaropena itzali zuen
 etsipenak ta denborak
 pentsatzen nuen “Zoritxar hontan
 hemen ez da egongo bat”.
 Itsasbeherak eraman zitun
 nere maitasunen lorak
 ta berriz ere ekarri zaitu
 bizitzaren itsasgorak.

S. Colina: Zure ondora gaur azaldu naiz
zure etxeko atera
hamabost urte igaro dira
pasa zenetik galera.
Orain berriro hementxe zauzkat
baina posible ote da?:
maitasuna're alda liteke
marearekin batera.

J. Maia: Oraindik ere ez det sinisten
gertatu ote da benetan?
Bizitza erdia pasatu baitet
faro aldean penetan.
Espero gabe etorri zera
halako egun batetan
ta nun arraio egon zera ba
hamabost urte hauetan?

S. Colina: Behin itsasoan galdu ninduzun
zure ustetan betiko.
Egur zati bat aurkitu nuen
eta eutsi nion tinko.
Gero irla bat topatu nuen
Guatemala edo Mejiko...
Nun egon naizen ez du inporta
orain hor nago ta kito.

J. Maia: Egia da bai ez du inporta
etor zaite berehala!
Zuretzat dezu nere gorputza
besoarte ta magala.
Garai batean izan zintudan
nere jainkosa bezala
ta orain berriz konturatu naiz
itsas-lamia zerala.

S. Colina: Nere lagunak hunkitu egin nau
azkartu bihotz taupada
lehengoa duzu gorputza eta
lehengoa begirada
baina izaeraz Jon ez zabilta
garai haietan gisara:
lehenago plasta galanta zinen
ta orain poeta zara.

J. Maia: Umore onez etorri zera
hori bederen argi da
zure prozesu bitxi honetan
egin nahi nuke segida:
dordokak ere ertetzen dira
sarri itsaso haundira
baina azkenean beren betiko
hondartzara itzultzen dira.

S. Colina: Beraz batera egingo dugu
maitasunaren errota
horixe dugu etorkizunak
ipinitako erronka.
Zuk nahi duzuna izan ninteke
ezerk ez baitit inporta:
nahi duzunean lamia eta
nahi duzunean dordoka.

AIA (2003-08-07)

*Bertsolariak: M. Lujanbio, J. Agirre, A. Arzallus,
S. Colina, A. Egaña eta S.Lizaso.*

Gai-emailea: A. M. Peñagarikano.

San Donato jaiak zirela-eta antolatutako saioa. Gauean izan zen,
eta entzule asko bertaratu ziren.

A. Arzallus-M. Lujanbio

Gaia: Euskal Herrian hainbeste gauza gertatzen dira, baina gero gauza da nola kontatzen den gertatzen den hura. Botila bat puskatzen bada, badakigu zer esaten duten zenbait lekutan. Ametsek Euskal Herriko edozein gertakizun kontatuko du, eta Maialenek kontatuko du *La Razón* egunkariak Madrilen eta Espainia osoan nola zabaltzen duen albiste hori.

Neurria: zortziko handia

Doinua: *Dama askoren engainagarri*

A. Arzallus: Abuztuaren zazpi gauean
bete probaleku dena
eta gaua're igual izan zen
aspaldiko beroena;
zazpirehun lagun alderik alde
jende bertsozaleena
eta saioa gainera joan zan
inoiz izan dan onena.

M. Lujanbio: Euskal Herrian bart gauetz ere
a ze notizi, begira:
konfliktibo mordo bat bildu zen
demalekuan erdira
eta sei tipo oholtza gainean
konsignak tira ta tira...
Terrorismoan demagogoak
rimatuz mintzatzen dira.

A. Arzallus: Hurrena berriz idi proba zen
probaleku eder baten
itzaiak hortxe ibili ziren
makilak sartu ta irten
idi ederrak, harri haundiak
hoi nola denek dakiten...
Euskal kulturaren edertasuna
bertan ikusi zitekeen.

M. Lujanbio: Idi batzuen atzekaldetik
plazan hiruzpalau gazte
eta gainera jendea oihuka
pakeantzat ze kontraste!
Makilak eta burnizko puntak
zorrotzak dira, ez uste!
Euskal Herriko etxe guzitan
arnak gordetzen dituzte.

A. Arzallus: Eta gauean etxafuegoak
bota zituzten zerura
zoritarrean bakar bat jua zen
komeni ez zen lekura:
galtzak erreta joan zen aitona
ospitale ingurura
hala ere alta eman zioten
handik hiru minutura.

M. Lujanbio: Euskal Herriko gau giro hortan
festa motibo lehorrak
bonba hots txikik entzuten ziran
nahiz eta ez hain gogorrak.
Etxafuegoak badaduzkate
euren arma derrigorrak
Guardia Zibilak bukarazi dun
kale borrokako sobrak.

A. Arzallus: Ta inkesta bat egin genuen
kazetari famatuak
aztertu asmoz *La Razón* baten
irtetzen ziren datuak.
Zazpi notizi hartu genitun
denak ondo kontatuak
hoietatik bost aldrebek eta
beste biak asmatuak.

M. Lujanbio: Euskal Herrian hiru-lau gezur
esaten da albisteko.
La Razón ito behar zutenik
ez zuten bada usteko?
Geure datuak hartu zituzten
herritarrek sinisteko
baina *Berrian* atera da-ta
motibo bat da ixteko.

S. Lizaso-J. Agirre

Gaia: Joxe da baserriko nagusia, eta Xebastian da baserriko etxe-koandrea. Gaur egun, inork ez du morroi izan nahi baserrietan, eta horrexegatik etorri dira hainbat eta hainbat Ekuador aldetik. Joxe Agirrek ez du nahi ekuatorianorik etxean; etxe-koandreak, aldiz, nahi du.

Neurria: zortziko handia

Doinua: *Eguna pasa nekean eta / Andre txarraren bentajak*

J. Agirre: Sentimentutan hitz egingo det
ez pentsa danikan broma!
Pentsa zazute nere bizitza
ez dagola oso ona.
Gai-jartzaileak hemen esan du
morroirikan ez dagona
hementxe nago bizi guztian
ni beti morroi nagona. (bis)

S. Lizaso: Hara aitona, ustegabeen
jarri didazu trantzea
baina amonak beti jakin du
nola moldatu eltzea.
Zuk errezena egingo zendun
zedorri morroi jartzea
horrela bada tokatuko zait
nagusia ekartzea. (bis)

J. Agirre: Etxekoandrea gaur ere dago
beti izan dan antzeko:
bere gizonai jarritzen zaio
oso kopeta beltzeko
ta ilusioa dauka etxean
morroi berri bat hartzeko
itxaropena badauka nunbait
eltzea mejoratzeko! (bis)

S. Lizaso: Ekuadortikan heldutako bat
hortxe dago deiaren zai
neretzat lagun izan liteke
zuretzako ez da etsai
hark lan doblea egin lezake
egoten ahal zera lasai:
ikuilukoak egingo ditu
etxeko lanak ere bai. (bis)

- J. Agirre: Ikuiluko ta etxeko lanak
harentzako jartzekua
nere andreak lagun berri bat
orain badu hartzekua;
lepua ere mehea dauka ta
ipurdi zorrotzekua
ta aurea ere izan liteke
atzearen antzekua. (bis)
- S. Lizaso: Zeuk'e ez dezu alde haundirik
aurre aldetik atzera
eta aitona indar gehiegi
ez du izaten zahartzera.
Halabeharrez morroi gazte bat
ekarri nahi dut etxera
eta aitona segi ferira
txakurrarekin batera! (bis)
- J. Agirre: Beraz aitona ferira juanda
badezu esperantza onik
ez zazu uste ni inuxente
gaur bihurtuta nagonik!
Hamaika aldiz egon izan naiz
geldikan ezin egonik
ez al diozu hari esan behar
buruko minez zaudenik? (bis)
- S. Lizaso: Hori sarritan zuri esana
morroiari ez diot zor
mingaina dezu bustia bainan
gainontzean zaude legor.
Morroi gaztea portatuko ahal da
amonatxoakin jator
'ekuator' nun dan jakingo baitu
Ekuadorretik badator! (bis)

GASTEIZ (2003-08-09)

*Bertsolariak: A. Egaña, M. Agirre,
I. Izagirre eta R. Glez de Durana.*

Gai-emailea: Irati Lotina.

M. Agirre

Gaia: Zu hirurogeita hamar urteko gizona zara, eta urte guztian zehar goizero-goizero egiten duzun bezala, goizeko zortzietan kalera irten zara ogia erostera. Zein da dagoen panorama?

Neurria: hamarreko handia

Doinua: *Mundu honetan holako gauzak*

Kalimotxoan zaparrada bat
tokatu zait erdiz erdi
kumunak ere zikinak zeuden
niretzako zikinegi
giroa oso eskasa dago
niretzako eskasegi
guztia ondo begiratzeko
nahiz ta ditudan bi begi
ikusit ez dut ezer ikusten
usaindu igual gehiegi.

*Kutxillerian ezin da ibili
hori utzi nahi dut klaro
parte zaharretik beste inundik
ere ezin da igaro
zerrikeria alde guztitan
dagoenetik oparo
beste aldera noa ni, jode!
Horretaz seguru nago
zahar etxeko mus partidetan
giro hobea baitago.*

I. Izagirre-M. Agirre

Gaia: Zuek kuadrila bereko bi lagun zarete. Goizeko zortzietan elkarrekin egin duzue topo baina bi egoera desberdinetan:
Iñigo, parrandan zaude eta zu Manex, “Rosario de la Aurora” delakoan.

Neurria: lauko handia

Doinua: *Kontu barri bat suzedidu da I*

I. Izagirre: Jesus! Nolako begi argiak!
Jesus! Nolako itxura!
Gaur’ e ardoa edan nahiean
herriko apaizan kontura.

M. Agirre: Apaizari nik izanagatik
kristoren afizioa
zure amari bota zaiozu
zure errosarioa.

I. Izagirre: Barkatu baina ideia hobea
ez al da izan nirea?
Zu etxean ta nik eraman det
zure atzoko ligea.

- M. Agirre: Baina nik neskaz josita daukat
oraindik nire etxea
eta zuk eraman duzuna da
Jesukriston gurutzea.
- I. Izagirre: Jesukristoren gurutzeana
askotan bizkar gainean
baina ez dezu ondo ematen
monjaren aldamenean.
- M. Agirre: Bai, monja horrek egia da, bai
badauka *mala letxea*
berak erakutsiko dizu zer den
ai! autoflajelatzea.
- I. Izagirre: Egia esan harritu egin naiz
albotik hori entzunik
baina parrandan jardun ta gero
aspalditik nekien nik.
- M. Agirre: Parrandarena filosofia
da oso eder egina
guk biok erlijio bat dugu
bueno, pixkat desberdina.
- I. Izagirre: *Kutxitikan Zaparaino* pasa
hori gure akzioa
pixkat dibertigarriago zan
gure errosarioa.
- M. Agirre: Errezo gehiegi daukazu zuk
aizu gauza onerako
errezo denak utzi itzazu
siesta ondorenerako.
- I. Izagirre: Bueno, siesta ezingo degu
festetan albora laga
beraz lo egitera joango naiz
ni zuekin mezatarara.

ABADIÑO (2003-08-10)

*Bertsolariak: A. Egaña, I. Elortza,
M. Lujanbio eta A. Arzallus*

Gai-emailea: Josu Goikoetxea.

San Lorentzo egunez egin zen jaialdia, San Salvatore ermitan. Jai Batzordeak antolatu zuen.

M. Lujanbio-A. Arzallus

Gaia: Maialen, udara honetan bidaia luzea egin nahi zenuen,
Indiara hain zuzen. Baina zure bizitzako akatsa egin zenuen:
Amets gonbidatu zenuen zure bidaiakide gisa. Hasieratik
hasi zen kexuka, aski zela esan arte.

Neurria: zortziko handia

Doinua: *Ludi bititza abesti gozoz I*

M. Lujanbio: Bidai polit bat eskeini nizun
nere kariñoan truke
orain protestan zenbat saialdi
protestan zenbat jardute!
Hemen ez dira hain ondo bizi
ai gizajo zuk ze uste?
Postaletako argazki ederrek
hemen usai txarra dute.

A. Arzallus: Urrutitikan badu hamaika
zapore edo kolore
urrutitikan iduri luke
dena eder, dena lore
baina hona etorri ta dena txarra
eta eman dut amore
ta okerrago bizitzekotan
etxean egonda hobe.

M. Lujanbio: Zuk ez dezu nahi ezer ulertu
ta ez dezu nahi saiatu
begik itxita baldin bazabiltz
zertarako abiatu?
Ni ere honek egin nau mindu
lotsatu eta mailatu
baina hain juxtu hona etorrita
hori nahi nuen bilatu.

A. Arzallus: Han dena zoriona genuen
hemen dena zoritxarra
han dena parre, dena irriparre
ta hemen dena negarra
baina hala're hori ez da ni
amorratzen naun bakarra:
okerrena da mina ikusteko
ordaindu egin beharra.

M. Lujanbio: Zuk ere etorri nahi izan zendun
ta ez zaite kejavu tira
hemen herrenak ta eskaleak,
hemen umeak begira...
usaia txarra, jana apurra
begiradatan argi da
bazkalosteko dokumentalak
hain mingarriak ez dira.

A. Arzallus: Gure etxean ere mingarri
suertatzen zen hainbat egun
baina hona etorri ta Euskal Herria
ez ote da ba ezagun?:
Yacartan ere atentatu bat
izandu zan herenegun
ta nun dagoen ez badakigu
zein gertu sentitzen dugun.

M. Lujanbio: Hor badaukazu arrazoi pixkat
hor hitz egin dezu argi
gu hemen gaude Indiako
zoritxar guztiei adi
kontraesan bat salatzen diot
orain nere buruari:
beti begiak itxi izana
etxeke miseriari.

A. Arzallus: Paradisuan aurkitu nahia
infernua zuloko giltza
hauze da, eta gu oporretan
leku beltzetan gabiltza
hala're badut poz bat barnean
ta ematen dizut hitza
lehen baino hobea izango dela
gure etxeke bizitza.

M. Lujanbio-A. Egaña

Gaia: Bikotea osatzen duzue zuek biok. Lege naturalak ez zuen
nahi zuek elkartzerik, baina destinoak bai. Zu, Andoni, arlo
politikoan ezkerrekoa zara. Zu, Maialen, eskuinekoa. Andoni
konstituzionalista da, eta Maialen abertzalea. Andoni letreta-
koa da, eta Maialen zientzietakoa. Elkar asko maite duzue,
baina gaur borroka latza izan duzue. Platerak ere airean ibili
dira. Baina, gaur ere ohean bukatu da zuen borroka.

Neurria: hamarreko txikia
Doinua: *Mundu hau uzten bazun*

M. Lujanbio: Nik nahi banun aurrea
Andonik atzea
nik nahi banun motza
Andonik luzea...
Normal kontu guziak
hemen bukatzea
hobe degu kontrako
alden etzatzea
edo gaurkoan biok
erdian jartzea.

A. Egaña: Zure proposamena
ona da jakina
lehengo unea ez da
izan atsegina.
Barka ezazu neska
nere hutsegina
onartu nahi det gure
oherako grina
erdian ta tartean
nahiz ez den berdina.

M. Lujanbio: Gurea ez da oso
erreza izango
biak erdin jartzea
nahi nuen nik klaro
baina ezingo degu
aguanta luzaro
ganean jarriz gero
bero naiz, akabo!
Eta kentzen bazera
berriz hotzak nago.

- A. Egaña: Zure azal zuloen
atea jo *kan-kan!*
Zintzoa zera oso
zintzoa matrakan
zu falta bazatzaizkit
ni zerbaiten faltan
zuregana nijoa
baboso, lau hankan
formula hori ba al da
matematikatan?
- M. Lujanbio: Orain arte genbiltzan
betiko berdintsu
haserre, iskanbilan
ta elkarren izu.
Gero letren laguna
baitzera beti zu
iluntzen duenean
engainatzen nauzu
zure letrekin dena
konpontzen dakizu.
- A. Egaña: Hasieran haserre
eta gero nagi
azkenean sexuak
egin digu argi
hontan konpontzen gera
ta hola gaitzerdi;
segi, segi mugitzen
ez geratu geldi
gora Sabino Arana
ta gora Euskadi!

M. Lujanbio: “Gora Sabino Arana!”
hori espero ez nun
baina hori entzunda
nola jarri nauzun!
Orain arte hortako
gogo haundirik ez zun...
Ia lastan nazazu
busti eta lizun
ea ezkerrarekin
nola egiten dezun!

A. Egaña: Ondo moldatzen gera
nere uste apalez
nahiz hizketan ibili
hain modu zitalez
azkenik konponduak
sexu eginahalez
nere gorakatxo
jetsi da tamalez
zeuk’e goratu zazu
Felipe Gonzalez.



Bertso Udalekuak.
(Duzunaritze, 2003-07)

Argazkilaria: K. Aizpurua

ZIZURKIL (2003-08-15)

*Bertsolariak: J.M. Irazu, J. Sorozabal,
A. Arzallus, A. Mendiluze, J. Agirre eta S. Colina.*

Gai-emailea: Igotz Alkorta.

Ama Birjina egunean urtero antolatzen den jaialdia. Azken urteotan arrakasta eta entzute handia lortu duen bertso saioa da honakoa. Orain artean gai-emaileak kanpotik ekartzen zituzten arren, azken bi urteotan herriko gazteak aritu dira zeregin horretan.

J.M. Irazu-A. Mendiluze

Gaia: Malkar batean belar-bolak egiten ari den baserritarra zara Irazu. Maldan behera zilipurdika abiatu, eta azkenik Aitor donostiarraren txaleteko piszinara erori da.

Neurria: zortziko handia

Doinua: *Pello Josepe tabernan dela I*

J.M. Irazu: Donostitikan etorri eta
zer-nolako ezustea!
Piszina ederra urez betea
auskalo zein zun kostea!
Bola erori ta gertatu da
pizinaraino jeistea
kostako zaizu bola zahar horri
igeri erakustea!

- A. Mendiluze: Bolak egiten hasi ezker
 lauki irtetzen zaizkizu
 baina nerekin bromarikan ez
 egiten dizut abisu.
 Bolai igeri erakustea
 lantegi zaila da aizu
 bolak jakiten ez badu ere
 zerorrek ba al dakizu?
- J. M. Irazu: Pixka bat jakin badakit noski
 estiloari begira
 pendiz haundian lanian ari
 ta erori nekaldira
 urak dexente agortu eta
 gauza dexente larri da
 oraingoz bola joan zaizu baino
 laster behiak jungo dira.
- A. Mendiluze: Derrepentean etor liteke
 orduan ganadu pila
 ez dakit baina bolaren hori
 bakarrik izan dedila.
 Oraindik nere pizzinan dago
 bola erdi borobila
 beraz ixildu, hartu arnasa
 eta segi bola bila!
- J. M. Irazu: Nik bola bila jun nahiko nuke
 baino arazua larri
 mila pare bat kilo baditu
 ez al diozu igarri?
 Traktoreakin akzidenteak
 gertatu izan dira sarri
 Donostin bada nahiko dirua
 grua haundi bat ekarri.

A. Mendiluze: Baina ze grua ta ze traktore
ze kontu ta zalaparta!
Gu lasai-lasai geunden honetan
jaunak haxe degu marka!
Bueno uztazu bola pizinan
eta bertatik aparta
lagunak ta nik erreko degu
pixkanaka-pixkanaka.

J. M. Irazu: Azkenerako porreta samar
dexente aldrebestea
belar bola bat erretzerako
pasako zaizu urtea.
Zuk nahi badezu zeure birikei
behar bezela eustea
eskutzen dizut dena erretzen
plastikotikan hastea.

A. Mendiluze: Alperrik dira zure kontuak
alperrik zure dotrinak
erori dena baliatzeko
dira gure ahaleginak
ta beraz martxan jarri itzazu
lagun zure esku finak
porrua egiten jakingo du ba
bola egiten dakinak?

J. Sorozabal-J. Agirre

Gaia: Zu, Joxe, baserritarra zara. Atxurrarekin satorra harrapatu
nahian ari zarela, hor etortzen zaizu Jokin arkitektoa korbata
eta trajea jantzita Abiadura Handiko Trena zure baserriaren
gainetik pasako dela esanez.

Neurria: zortziko handia

Doinua: *Uso zuri bat inguratu zait I*

- J. Sorozabal: Atxurra hartu ta satorretan
pasatzen dezu eguna
alde hortatik betetzen dezu
etxian dagokizuna
baina orainguan lan latzagua
tokatu zaizu laguna:
bada sator bat zure atxurrak
akabatuko ez duna.
- J. Agirre: Beraz sator bat txarra zala ta
okerragoa bestea
garai batean ez nun pentsatzen
kontu hauek ikustea.
Gorbataduna: hobeko dezu
neri pakean uztea
nahi ez badezu atxurrarekin
lepo mehe hori moztea!
- J. Sorozabal: Nik hitz egiten hasi nahi nuen
itxuraz eta pakian
azaldu zaigu atxurrarekin
eztabaida aitzakian
guk arrastuak egin ditugu
oso modu egokian
zure etxia dago jarrita
jarri behar ez zan tokian.
- J. Agirre: Hori ote zan adiskidea
zuk esan beharrekoa?
Nere ustetan zuk hartu dezu
hain bide okerrekoa
lehengo aitonak aukeran zuten
etxea eiteko lekua
zuk uste ez baldin badezu ere
trena baino lehenokua.

J. Sorozabal: Ikusten degu gaur eztabaidak
nola berotuta dauden
hiru-lau behi ta hogeï bat ardi
ikusten ditut gaur hemen
eta goseak ta egarriak
galduta daude nabarmen
oraintxe dezu garai polita
zoaz akatu baino lehen!

J. Agirre : *Jentuza* honek beti izaten du
horrelako abentura
aita ta amen kontura noizbait
hartua zuten kultura
sekula kolpeik ez egin arren
igota daude altura
hamaika alu bizi dek hemen
langilearen kontura!

J. Sorozabal: Zuk esandako kontu horrekin
ni oso pozik ez nago
zure aukera aprobeixatu
edo bestela akabo.
Plazan jendiak zer eiten duen
ikusï besteik ez dago
erretiratzen jakin behar da
ekaitza baino lehenago.

J. Agirre: Egualdia ere jarria zaigu
nahiko itxura torpean
lehenbizi keinu egin du eta
jo gaitu oraingo kolpean.
Hola ez dago aritutzerik
hobe deu egon pakean
ta lehorpera juan gaitezen
pixkat atertu artean.

BILBO (2004-08-17)

*Bertsolariak: I. Muniategi, E. Intxaurreaga,
I. Ibarra eta O. Bartra.*

Gai-emailea: Jon Eizmendi.

Bilboko Aste Nagusian egunero izaten diren saioetako bat. Beste guztiak bezala hau ere Santutxuko Bertso Eskolak antolatu zuen.

E. Intxaurreaga-I. Ibarra

Gaia: Eñaut, beste gazte asko bezala, atzo gauean lige bat egiteko asmotan atera zen, eta neska gazte bat ezagutu ere bai. Horrelakoetan ohitura denez, etxeko telefonoa eskatu zion, baita neskak eman ere. Gaur goizean hor saiatu da telefonotik neskaren etxera deika, neska bera aterako zelakoan, baina amona atera da; eta dirudienez nahiko haserre, gainera, atzo lorik egin ezin izan zuelako.

Neurria: zortziko handia

Doinua: *Arratsalde on lehendabizitik*

I. Ibarra: Telefonoak jo deusku eta
nire lo dana akabo!
Ilobagaitik galdetzen dabe
hori ez dogu arraro.
Gaba osoan zarata honegaz
lo egin ezinik nago
honek ez dira orduak mutil
deituizu beranduago! (bis)

- E. Intxaurreaga: Zure ilobaren titi puntak ai
a ze nolako pasada!
A ze nolako ibilkera ta
a zelako begirada!
Halan ta guztiz iloba hori
beharko albora laga
abots gozoa daukazu andrea
zu alarguna al zara? (bis)
- I. Ibarra: Ez nago alargun badot senarra
ta gainera asko maite
beraz hobe da hemen ligetan
ez hastea elegante.
Lo nengoela telefonoa
“*ring-ring*”-ean jo eta ke...
Gaur egunean neska gazteei
mobilerara deitzen jake! (bis)
- E. Intxaurreaga: Aldeano bat naiz ni andrea
ipini eidazu arreta
nahiz ta gazteek mobil hoiekaz
emon makina bat buelta.
Barriz lehengora itzuliko naz
zu zara-ta nire meta:
zatoz nirekin Zeanuriko
propietarioa naiz eta! (bis)
- I. Ibarra: Holakoetan sarri adina
ez dogu izaten traba
diruan bila hainbeste jente
dabil hona eta hara.
Proposamenak niri sortzen deust
barruan barre algara:
aizu mutiko nire senarra
Bilboko aberatsa da. (bis)

E. Intxaurreaga: Ikusten danez amamagaz be
atera jata aldrebes
martxa honetan nik neuk neska bat
topatu behar dot nekez.
Agur amona, kalte guztiak
parkatu eidazuz mesedez
ta ilobatxoai mosu txiki bat
emoiozu neure partez! (bis)



*J.M. Narbaiza eta J. Alberdi "Egileor".
(Bergara, 2003-07-06)*

Argazkilaria: E. Mendibil

BILBO (2003-08-22)

*Bertsolariak: X. Silveira, E. Arozena,
As. Otamendi eta Z. Enbeita.*

Gai-emailea: Xabier Enbeita.

Santutxuko Bertso Eskolak Bilboko Aste Nagusian egunero antolatzen dituen saioretako bat. Eguerdiko ordu batean, Plaza Barrian.

X. Silveira-E. Arozena-As. Otamendi-Z. Enbeita

Gaia: Atzo, ertzain mordo bat txosnagunean sartu, eta Audientzia Nazionalaren aginduak jarraitzeko asmoz, Kaskagorri, Paia eta beste txosna batzuetako pankarta eta kartelak kendu, eta Paiako kasuan ikurrina be apurtu zuten.

Neurria: berezia

Doinua: *Sorlekua utziz gero*

X. Silveira: Erdi gorriz, erdi beltzez
batzuk ziren mozorrotu
kasualitatez ez ziren
atzo istiluak sortu
eta nahi nuke gaur ez bazaie
holako beste bat otu
bakarrik falta zaie etorri
ta guri mingaina moztu.

- E. Arozena: Herri hontan hasi arren
umorez besta ta galak
nonahitik iristen dira
Madriletikan itzalak.
Ertzaintzak hola ta hori egitea
ez dira gauza normalak
sukurtsalen bat al dauka hemen
Audientzia Nazionalak?
- Z. Enbeita: Ikurrina apurtuta
ondo eginez euren lanak
polizia polizi da
hori ulertzen dute danak
baina Euskadi berezia da
nunbait entzun ditugunak
Madrilen martxan dantza eiten du
Ibarretxe jaunak Planak.
- As. Otamendi: Herriai hitza kentzea
hori ez al da azkena?
Auzitegiak egin nahi
astakeririk gorena:
hainbat polizi sartuak atzo
txosna guneetan barrena
festa giroan parte hartzeko
ez da modurik onena.
- X. Silveira: Atzo gertatutakoa
gertatuko denez bihar
gertatu behar litzakeena
izango baita ezbehar.
Urte luzetan herri honetan
gabiltz negar eta negar
ta gauzak hola jarraituz gero
luzaroan egin behar.

- E. Arozena: Aspalditik ezagunak
 negarra eta kartzela
 baina festetan gaudenez
 dute erantzun epela.
 Nahiz eta haiek ongi dakiten
 orain haserre gaudela
 holakoetan antzematen da
 bide onean goazela.
- Z. Enbeita: Botoa kendu ziguten
 ta hara orain, begira:
 hitza ere kendu gura
 hutsa litzake sikira...
 Baina Ibarretxe eta Aznar be
 hortik erratzen ari da
 nahiz ta kartelak kendu dituzten
 berriak jarriko dira.
- As. Otamendi: Auzitegiak azaldu
 beraren asmo txoroak
 ta herriari kendu nahi
 bere askatasun gogoak.
 Programa egin, gu manejatu
 hoiek dituzte asmoak
 baina inundik ez gara izango
 festaren txotxongiloak.

BILBO (2003-08-23)

*Bertsolariak: J. Maia, A. Mendiluze,
I. Elortza eta A. M. Peñagarikano*

Gai-emailea: Leire Aurrekoetxea.

A.M. Peñagarikano

Gaia: Zure ibilbidean botatako bertsoei begira aritu nintzen atzo.
Eta hiru bertso aukeratu ditut. Baina ez dizkizut bertso osoak
esango, bukaerak baizik.

1.-Hori egitean kantauko degu
Altza Felipe trulalai.

Neurria: zortziko handia
Doinua: *Gaixo nengoen joan den aspaldi*

Felipe eta horrelakoak
beti lata ematen nunahi
bera ta Aznar bezelakorik
Euskal Herrian ez da nahi
bere aulkitik altxatuko dut
ta bidaliko dut *porai*
hori egitean kantauko degu
Altza Felipe trulalai.

2.-Nik izan beharko nuke
Euskadiko *mister*

Neurria: hamarreko txikia
Doinua: *Antton eta Maria*

Jon Maia ezagutzen dut
ez da nire maizter
ta bere abentura
esango dut laister:
erakutsiaz bere
beso eta izter
harro esaten zuen
nahiz ta egon oker
“Nik izan beharko nuke
Euskadiko *mister*”. (bis)

3.-Bi gipuzkoar hobeak dira
hamabi bizkaitar baino.

Neurria: zortziko handia
Doinua: *Kantore berri xarmant batzuek*

Mendiluzekin emana nago
makina bat desengaino:
Errealzale amorratua
goitik hasi ta beheraino
hala esaten zun “Alkiza ona da
ta beste guztiak ñaño
bi gipuzkoar hobeak dira
hamabi bizkaitar baino.” (bis)

BIDEGOIAN (2003-08-30)

*Bertsolariak: A. M. Peñagarikano,
A. Arzallus, S. Colina eta J. M. Irazu*

Gai-emailea: Koldo Zelaia.

S. Colina-J. M. Irazu

Gaia: Duela gutxi, Sustrai, mobila galdu zenuen. Eta aldameneko Irazuk aurkitu du, baina bitartean zure andregaiaren telefonoa lapurtu dizu.

Neurria: seiko txikia

Doinua: *Bertsuak jarri dizkat*

S. Colina: Ondoko lagunakin
eman behar kasu.
Neskaren zenbakiaz
jabetu zera zu
neska laguna ere
ostu al didazu? (bis)

J. M. Irazu: Aspalditikan nuen
nik mobila amets...
Mobila eta neska
elkarrekin berez
zenbakia badakit
baino klabea ez. (bis)

- S. Colina: Astinduak dituzu
hemengo ta hango
eta klabea zein dan
ez dakizu ondo
ez baduzu asmatzen
ez dizut esango. (bis)
- J. M. Irazu: Ez dezula esango
hortara nijoa:
itxuraz andregaia
Bizkaikoa joa
bederatz, lau baita
bere prefijoa. (bis)
- S. Colina: Holakorik ez nuen
entenditu usu
Irazu trebea da
laztan eta musu
bere bibradorea
probatu al duzu? (bis)
- J. M. Irazu: Jesus, Sustrai laguna
besteik ez da falta!
Bere bibradorea
patrikatik salta
itxoin, itxoin pixka bat
deitzen ari da-ta. (bis)
- S. Colina: Beraz deika hasi da
lotsarikan gabe
ta laster neskarekin
zaude parez pare
baietz laster geratu
koberturaik gabe! (bis)
- J. M. Irazu: Koberturarik gabe
a ze ibilera!
Laister juango gera
neskata' batera
zu koberturaik gabe
gelditze al zera? (bis)

S. Colina: Oso mutil raroa
ez al da Irazu?
Holako galderakin
hasten da jo ta su...
Barka Jexux Mai baina
ze inporta zaizu? (bis)

J. M. Irazu: Ni bada ez bada zuri
bertsotan galdezka
tratua egin behar
kontuak ordezka:
tori zuri mobila
eman neri neska! (bis)

S. Colina: Horrelako traturik
ezin hartu aintzat
hala ere Irazu
jotzen zaitut ontzat
neska niretzat eta
mobila zuretzat. (bis)



*P. Etxebarria eta A. Mendiluze.
(Zubieta, 2003-01-25)*

Argazkilaria: A. Elozegi

ALKIZA (2003-09-05)

*Bertsolariak: S. Lizaso, M. Lujanbio, S. Colina,
J.M. Irazu, A. Egaña eta A.M. Peñagarikano.*

Gai-emailea: Jon Zaldua.

Alkizako jai batzordeak urtero antolatzen duen jaialdia. Gaueko hamar eta erdietan, pilotalekuan.

S. Lizaso-S. Colina

Gaia: Zuek biok aita-emeak zarete. Sebastian, zuk, aita baserritarak, uda guztia haserre pasa duzu egin dituen eguraldiak egin dituela-eta. Sustrai semea berriz txoratzen egon da egindako eguraldiarekin.

Neurria: zortziko handia

Doinua: *Kantore berri xarmant batzuek*

S. Lizaso: Aita-emeak baina ezberdin
bakoitzaren interesak:
bata ez du ezerrek kezkatzen
bestea berriz babesak
eta aitarik ez du asetzen
semeak daukan lainezak
zu eguzkiak beztu zaitu ta
ni euririk batere ezak. (bis)

- S. Colina: Arrazoi duzu baina horixe
ez al zen zure kaltera?
Uda guztia igaro baitut
juerga batetik bestera
eta etxera iristen nintzen
zazpiretatik aurrera
ta hala ere beztu egin naiz
hortik kontuak atera! (bis)
- S. Lizaso: Juergarik juerga zu ez zabilta
oso bide zuzenean
arretarikan ez dezu jartzen
zeure aitan esanean.
Formalagoa izan nintzan ni
aizu gazte nintzanean
nere ustetan seme bat nuen
eta hontz bat azkenean.(bis)
- S. Colina: Gezurti bat dut aldamenean
ta zertan hasi ezbaian?
Aita lanean aritu ohi da
mendian eta zelaian.
Azken boladan dagoen arren
euri pixkat egin nahian
zuk nahiko txanpain edan zenuen
gaztia zinan garaian! (bis)
- S. Lizaso: Oraindik ere edaten dut nik
lanaren ondorenean
eta zuk berriz egun guztia
beti pasa etzanean.
Zer eginikan ez da falta ta
hasi semea lanean!
Uraren bila joan egin behar da
bera etortzen ez denean! (bis)

S. Colina: Barkatu baina zergatik sortu
hortatik hainbat apuru?
Bizitzen ongi badakizula
aita ez nago seguru.
Urikan ezak orain artean
ez gaitu ikaratu gu
eta urikan ez dagoenez
ardoa edaten dugu. (bis)

A.M. Peñagarikano-A. Egaña

Gaia: Zuek biok bi pertsona ezagun zarete: zu, Andoni, Jose Maria
Aznar, eta zu, Peña, Mariano Rajoy. Badakigu Rajoy, zu izan-
go zarela PPko buru hemendik aurrera. Hala ere, badituzu
zalantzak Euskal Herriarekin nola jokatu erabakitzeko
orduan. Aznar laguntzeko prest daukazu.

Neurria: zortziko handia

Doinua: *Adixkidia Andoaindikan*

A.M. Peñagarikano: Gu politika joko honetan
bai negu eta bai udan...
Zuk Joxe Mari zeuk ez dakizu
zenbat maitatzen zaitudan!
Hala ta guztiz hemen naukazu
ni zalantzan edo dudan:
esan zaidazu euskaldunekin
nola jokatu behar dudan.

A. Egaña: Hori erantzun sinplea degu
egia garbi esanda
bi politika egin litezke:
inoiz dinbi, inoiz danba!
Hara lau hitzez nik erantzuna
zuk egindako demanda
hemen botoak lortzen baitira
haiei egurra emanda.

- A.M. Peñagarikano: Bejondeizula, eman didazu neri arrazoi galanta!
Ta Ebroz goitik ez dezatela “Gora Euskal Herria” kanta!
Manifestazio ta holakotan zenbat buila ta zarata...
Ibarretxeekin zer egin behar da erdi terrorista da-ta?
- A. Egaña: Lehendakaria beti izan da pertsona arrunt ergela ahal baldin bada Alcala Mecon gorde zaiozu kartzela.
Ebrotik gora “Gora Euskadi” esan, esan dezatela baina ezpainik zabaldu gabe nik eiten dedan bezela.
- A.M. Peñagarikano: Euskal Herriai itxi behar zaio askatasunan atea gaur egunean euskalduna da dana gorrotoz betea.
Beste galdera bat badut Aznar erantzun zazu maitea: onartu egin behar al degu euskeraz hitz egitea?
- A. Egaña: Nik erantzuna emango dizut galdera horren argira: euskera ez da arriskutsua gaurko egunean, tira begira zazu ETB 1en edota ETB 2ra proportzioak hoiiek izanda eurak aspertuko dira.

A.M. Peñagarikano: Euskal Herrian aspaldi hontan
gerra da izugarria
Espainiaren kontra daukagu
gaur euskalduna jarria
baina guk moztu egin behar degu
bai beraien iturria
ta itxi behar ote ditugu
Euskaltel eta *Berria*?

A. Egaña: *Berria* bixkor ixtea degu
gobernuantzat onena
Euskaltel ezin itxiko degu
ze lastima ta ze pena!
Baina Mariano gallego zera
ta erakusteko orena...
Zalantzik bada beti egizu
lehengo gallego harena.

S. Colina

Gaia: Badakigu herri batzuetan ekitaldiak ematen ez dietela uzten
pertsona edo talde batzuei. Takolo, Pirritx eta Porrotx izan
ziren lehenak; Fermin Muguruza ondoren. Zuk gaur jakin
duzu datorren asterako zenuen saio bat kendu dizutela.

Neurria: zortziko handia

Doinua: *Ludi bizitza abesti gozoz I*

Ez dira une oso gozoak
ez dira une lasaiak
bertso saio bat egin behar gendun
neronek eta Jon Maiak
baina ez dituzte gustoko gure
bertso eta bertso gaiak
dirudienez bueltan baitatoz
frankismoaren garaiak.

Hasiak gaude amildegian
aldapa behera amiltzen
ikusten dugu Baltasar Garzon
gugana gehitxo hurbiltzen.
Bere zerrendan ba omen gaude
jadanik hamaika izen...
Hitza ukatu liteke baina
bertsorik ez da isiltzen.

Bertso kantari orain artean
arituak gara luze
bertsozaleen barrera bertsoz
nahi genukeelako ase
ta orain ere segiko dugu
gure indar, gure klase
Lopategi ta Azpillagak lehen
egiten zuten bezelaxe.

M. Lujanbio-S. Colina

Gaia: Uda hasieran, Maialen Sustrai bizi den herrira etorri zen uda bertan pasatzeko asmoz. Zuen artean maitasun istorio bat ere sortu zen, baina uda bukatu da, eta Maialen badoa. Nolakoa da zuen despedida?

Neurria: hamarreko txikia
Doinua: *Espanian behera*

M. Lujanbio: Aspertuko nintzela
nik lehendabiziko
pentsatu nuen baina
portatu naiz tinko.
Elkarrekin egonak
gu uda guziko
malkoak begietan
banoa mutiko...
Akaso hurren arte
akaso betiko. (bis)

S. Colina: Ez dakit nola joka
ez dakit zer egin
malkotan dut bihotza
bi masailak berdin.
Maitatzeko eginak
hainbeste ahalegin...
Nahiz ta azken uanean
betiko aldegin
zure zain egongo naiz
maitasunarekin. (bis)

M. Lujanbio: Ukituko zintula
nik ere banekin
ni're minduta nago
biok gaude berdin.
Orain etorkizunai
behar bazaio ekin
nere zain egon orde
maitasunarekin
ausartu zaitez eta
etorri nerekin! (bis)

S. Colina: Bere sustrairik gabe
utziz gero Sustrai
ez litzake biziko
trankil eta lasai.
Beraz utziko zaitut
aldegiten *porai*
ta maitasunarekin
eukiko nauzu zai...
Zu asko maite zaitut
herria ere bai. (bis)

M. Lujanbio: Zuek aipatzen dezute
maiz herri kontua
hainbat maite dezuen
hain herri santua!
Ni banoa, alperrik
bion lamentua.
Orain da despedida
latza momentua
baina distantziak badu
bere enkantua. (bis)

S. Colina: Aurten probatu duzu
 Alkizako kasta
 eta ikusi duzu
 zer den arrakasta.
 Utzi duzun honetan
 muxuen sehaska
 barruan sentitzen dut
 lotsa eta nazka
 beti beranduegi
 maitemintzen naiz-ta! (bis)

S. Lizaso-A. Egaña

Gaia: Zuei bioi hiru egoera desberdin jarriko dizkizuet, baina biok
 elkar hain ondo ezagutzen duzuenez, Andonik Sebastianen
 paperean katatuko du, eta Sebastianek Andonirenean.

1.- Emaztea oporretara joan da hamar egun pasatzera. Nola aurkitu
du etxea itzuli denean?

Neurria: zortziko handia

Doinua: *Anai-arrebak hementxe nator*

A. Egaña: Nere andrea etxean bueltan
 hiru maletai helduta
 konturatu da txukuntasuna
 ez daukagula galduta
 etxeko jaunak etxearekin
 horrenbeste behar du-ta!
 Lehen bezelaxe aurkituko zun (bis)
 etxean ez naiz sartu-ta!

S. Lizaso: Ni txintxoia naiz, etxe aldean
 beti izan dut arreta
 ez naiz txukuna ta zertan izan
 nik akats hori gordeta?
 Hara, begira, nola izan dan
 andrean etxera buelta:
 zigarro paketeak hustuta (bis)
 ta hautsontziak beteta.

2.- Bertso afari batera joan zarete. Jatetxeko atean ohar hau jartzen du: “Jatetxe honetan erretzea debekatua dago”.

Neurria: zortziko handia

Doinua: *Anai-arrebak hementxe nator*

A. Egaña: Gure artean behar genduen
horrenbeste zeremoni
gustoko leku zoragarri bat
bertsotarako komeni.
Nik ze aurpegi jarriko diot
nagusi kaskailu honi?
Erretzerikan ez badaukagu (bis)
goazen etxera Andoni!

S. Lizaso: Etorri eta kantatu gabe
nola aldegin etxera?
Beti bezela porta gaitezen
gizon zintzoen antzera.
Nahiz ta kartelak debekatua
hemen zerbait erretzera
biok kanpora irtengo degu (bis)
plater batetik bestera.

3.- Bukatu da zuen bertso karrera. Bota azken agurra.

Neurria: hamarreko handia

Doinua: *Mutil koxkor bat itsuaurreko I*

A. Egaña: Hamasei urtez Gabirin egin
lehenbiziko eginahala
konturatu naiz neretzat behintzat
bertso karrera joan dala.
Lehen urtetan sufritu nuen
aita Joxeren itzala
gero Xebaxtian izandu nintzan
denbora igaro ahala...
Nereak hemen uzten ditut nik
semeak segi dezala! (bis)

S. Lizaso: Akabo hasierako lotsak
akabo lehengo melena
sasoia eta ilea utzi
Euskal Herrian barrena.
Hainbat urtean hor irauteko
beti izan dut kemena.
Agur entzule, hau izango da
nere bertsotan azkena
gaurtik aurrera izan behar dut
beti izan nahi nuena. (bis)

MUTRIKU (2003-09-12)

*Bertsolariak: S. Lizaso, J. M. Irazu,
X. Astigarraga, A. Egaña, E. Azkue
eta U. Iturriaga.*

Gai-emailea: Aitzol Astigarraga.

Galbaixotako festetan urtero eratzen duten jaialdia. Mutrikuko bertso eskolak antolatu zuen. Miruaitz pilotalekuan izan zen gaueko hamar eta erdietan.

S. Lizaso

Gaia: Medikua zara. Gaur, lanera joan eta zeure buruari egindako analisiak ikusi dituzu: minbizia daukazu. Lehenbiziko gaixoa ate joka ari zaizu.

Neurria: zortziko handia

Doinua: *Nere gogoa hegan dijoa*

Orain artean ondo bizitzen
beti izan dut afanik.
Anisiak eskutan ditut
lur jota nago jadanik
ta zein medikuk egin ote du
sekula holako lanik?:
beste gaixoak sendatu behar
bera gaixoa izanik.

Hainbeste urte medikuntzan ta
horra kolpeak erasan
analisien emaitza hori
nahita ere ezin dut jasan
neure burua ikusten baitut
gaixo terminalen trazan
ta okerrena: neure buruai
ezin gezurrikan esan.

Sendatu ditut birikan gaitzak
eta zenbait bihotzeko
engainatuta poztuarazi
hamaika nere antzeko.
Berehalaxe ni ez naiz kapaz
beste inor sendatzeko
baina ahaleginak egingo ditut
jendea ez gaixotzeko.

J.M. Irazu-A. Egaña

Gaia: Aita-semeak zarete; Egaña aita eta Irazu semea. Egañak,
aitak, hiru urte pasa ditu kartzelan ama jipoitzeagatik.
Kartzelatik irteterako orduan, Irazu, semea, dauka ate
ondoan zain.

Neurria: hamarreko handia
Doinua: *Sentimentua sartu zitzaidan*

J.M. Irazu: Lehenago nere aita zinan ta
orain ere aita zera
hitz egin eta jokatu nahi det
garai bateko antzera
baina amari egindakoa
ezin det utzi atzera.
Zigorra bete ta kartzelatik
orain behar dezu atera
goazemaiozu gure amari
barkamena eskatzera! (bis)

A. Egaña: Egia, ama jipoitu nuen
ta gainera behin ta berriz
baina izandako jokaerakin
damutu naiz mila aldiz.
Goazen amana, neu sentitzen naiz
haren barkamenan premiz
beste gizon bat irten naizela
lasai egingo nuke hitz
eta halaxe esango nizun
gizon sartu izan banintz. (bis)

J.M. Irazu: Burni artean eginagatik
hain penitentzi zorrotza
oraindik ere zure barruan
kolpatzailean ahotsa.
Gizon atera ote zeran zu
esaten ez zera lotsa.
Puxka batean zurekin dezu
ama joaren morrontza
hari begia ubeldu zaio
ta zuri berriz bihotza. (bis)

A. Egaña: Nik aitortzen dut: garai batean
izan nintzen erruduna
egin nuena ez zen batere
jatorra edo txukuna.
Orain oskarbi ikusi nahi dut
lehenoko hodei iluna.
Ene semea urrundu zazu
zure temosotasuna
gizalegeak barka dezala
legeak barkatu duna! (bis)

J.M. Irazu: Gizalegea eta legea
parean jarri dituzu
orain hiru urte gauza hoietan
ez zinan ibili maisu.
Egindakoaz damutu zera
barrua erabat izu...
Nere partetik barkazioa
aita, hementxe daukazu
baina ez zaite harritu amak
barkatu nahi ez badizu. (bis)

A. Egaña: Lehenen pausoa zu zeu zintudan
ta hurrengo da ama
ia egoki bideratzen den
harekiko harremana.
Nere ustetan aldatu egin naiz
ta alda liteke dana.
Ene semea eskertzen dizut
bila etorri izana
eta batik bat estimatzen det
barkazioa emana. (bis)

DONOSTIA (2003-09-13)

Bertsolariak: A. Mendiluze, J. Agirre, M. Lujanbio, A. Egaña, A. Arzallus eta S. Lizaso.

Gai-emailea: Josu Goikoetxea.

Euskal Jaietan urtero antolatzen duten jaialdia, Donostia Bertsotan ekitaldien barruan. Gaueko hamar eta erdietan izan zen, Trinitate plaza entzulez beterik zela.

M. Lujanbio-A. Egaña-S. Lizaso-A. Mendiluze

Gaia: Lehenengo bertsoan dokumental bat egin behar duzue, bakoitzak nahi duen errealitateari buruz. Eta ondoren, bigarren bertsoan, errealitate hori fikzioz edertu.

Neurria: zortziko handia

Doinua: *Haize hegoak hurbiltzen ditu*

S. Lizaso: Ezin ukatu giroa dago
pil-pilean bero-bero.
Nahi ta ezinak sortu ohi ditu
nork daki zenbat endredo!
Desafioak etengabeak
ta redadak egunero...
Realitatea ez da ikusten
begiak itxi ezker. (bis)

- A. Egaña: Parte Zaharrea jaio zen Bilintx
eta Bulebarrea hil...
Ehun bat urtetan ze aldaketa
erabateko borobil:
orain euskera gutxi entzuten da
eta gaztelera trankil
Bulebarrea jende gehiena
Mc Donnal's parean dabil. (bis)
- M. Lujanbio: Euskal Herriko panorama da
ezaguna urtez urte
bertan jende askok entzuten ere
dakienikan ez uste
bi begi zabal-zabalak baino
belarririkan ez dute
ta begietan lauzpabost marra
txuri-urdinak dituzte. (bis)
- A. Mendiluze: Haurtxo txiki bat dauka besotan
soineko zahar bat soinean
jende artean oinutsik dabil
lau xox bildu ezinean;
gutxi behar ta dena falta du
eskale bat da finean
baina ez da bizi Afrika aldean
baizik horko ixkinean. (bis)
- S. Lizaso: Konpondu zaigu askatasunik
ezaren garai goibela
manifarikan ez da egiten
garai batean bezela;
ertzainak txintxo betetzen dute
bakegilean papela
ta Mirandara eraman dute
Intxaurrendoko kuartela. (bis)

A. Egaña: Kamara sartuz Mc Donnal's horren
kristal txuritan barrena
hemen okela ondo pentsatuz
plastikozkoa da dena
edo Domingo Kanpaina haren
azpiko mandoarena
ta Udaletik kendu diete
irekiera baimena. (bis)

M. Lujanbio: Lepoa luze, baba daiola
ta pantalla parez pare
ta bat-batean eztanda batek
aztoratu zun goi ta behe.
Balo guziak zulatu ziren
bat bera geratu gabe
atentadu bat ederra izan zen
humanidadean alde. (bis)

A. Mendiluze: Gaueko haizea gogorra zenez
ta haurrentzat kaltea
auzoko batek erabaki du
manta zahar bat ematea.
Beste histori askotan legez
hontan ez al da tristea
realidadetik hain gertu egonda
fikzioa izatea? (bis)

M. Lujanbio-S. Lizaso

Gaia: Gizon puska dugu Sebastian, baina gizon puska honi puska bat falta zaio, izan ere, besamotza dugu; eta akonplejatu samarrik bizi izan da urteetan. Emakumeekin harreman gutxi izan du horregatik. Maialenen lagun, eta beraien arteko adiskidetasun harremana sakondu eta halako maitasun harreman zintzoa sortu da beraien artean. Azkenean, heldu dira logela gozo batera; Sebastian lotsatuta, besamotza da, Maialenek kendu dio alkandora. Bularra agerian, orban izugarria ageriago, eta lastan egin dio orbanean Maialenek Sebastiani.

Neurria: zortziko handia
Doinua: *Nere gogoa hegan dijoa*

M. Lujanbio: Konfiantzan ta beldurrik gabe
hurbildu naiz zuregana
alkandorako botoi guziak
askatuaz banan-bana
sorbaldan hasi ta ukalondora
egiten dizut laztana...
Honek badauka historitxo bat
nik ezautzen ez dedana.

S. Lizaso: Bizimodua ateratzen det
nik eguneroko lanez
eta beso bat falta dut orain
makinak eman zuenez.
Kostata baina ni jabetu naiz
zuk emandako laztanez:
bihotz bakarrak balio badu
beso bakarrak zertan ez?

M. Lujanbio: Beso bakarra, bihotz bakarra
arrazoi ona da aizu
hala ta guztiz neri begira
lotsatua dirudizu.
Ukalondoan hondarko puntan
eman nahi nizuke musu
ta kontaidazu, gabezi honek
zuri ze eakutsi dizu?

S. Lizaso: Nere burua nunbait gordetzen
saiatzen nintzen lehenago.
Pentsatzen nuen “Besamotza haiz
behin betirako akabo”.
Zure laztanak asetu dute
nik nedukan zenbait gogo
nik gabezia lehen sentitzen nun
orain osatuta nago.

M. Lujanbio: Lehen bezendula beldur puntu bat ta orain zaudela lasai esaten dezu, eta ni ere horrek ipintzen nau alai. Nik ere badet gabezia bat nahiz ta ez nizun esan nahi begiratzean ez da ikusten baina hitz eginez gero bai.

S. Lizaso: “Errea” edo errea izan nik ez dizut hartzen aintzat. Komeni dana borondatea izatea elkarrentzat. Maiteminduta uxatu ditut garai bateko zalantzak beso bakarra zeukan lehenago ta orain hiru neuretzat.

M. Lujanbio: Hitz egin dizut oso serio oso bare, oso gartsu hala're zure erantzunakin zeharo harritu nauzu. Gabezia bat badet esan ta zuk “errea” aipa aizu horixe zala uste bazendun zuk benetan maite nauzu.

S. Lizaso: Hara Maialen, duda-mudatan hemen ez naiz ibiliko sentimentuak ditut barruan oso indartsu ta tinko. Zuk nahi badezu elkarren lagun izango gera betiko maite ezean nere bihotzik nik ez nizun eskeiniko.

S. Lizaso-A. Egaña

Gaia: Senar-emazteak zarete zuek biok: Andoni senarra, Sebastian emaztea. Gaur, Donostiako Bulebarrean paseoan zenbiltzaitela, senarrak emaztea baino askoz ederragoa zen emakume bati ez dio begirik kendu. Emaztea konturatu eta sutan jarri da, eta hemen hasiko da zuen elkarrizketa. Baina muturtuta hasiko duzuen, nahi nuke azken bertsoan harmonian, biok berriro maitasuna erretuta agertzea. Zuek ikusi zenbat bertso kantatu beharko dituzuen horretarako.

Neurria: lauko handia

Doinua: *Kontu barri bat suzedidu da II*

- S. Lizaso: Neska gazteai begiratzea
senarraren kapritxua.
Horrentzat begi zabala zera
eta neretzat itsua.
- A. Egaña: Neskak horren gorputz aldera
begiratu oso pozik
hala're ez zen kapritxo soila
nezesidatea baizik.
- S. Lizaso: Horra albotik zer arrazoi txar
ematen didan senarrak.
Lehen ere ondo betetzen ditut
nik zure betebeharrak.
- A. Egaña: Era hortako astakeririk
ez nuen entzun sekula
ene gajoa, uste al dezu
ondo betetzen dezula?!
- S. Lizaso: Etxera etorri ta hartzen dut
goxo-goxo maitasunez
ta jakiten det etxetik kanpo
hau ibili den edo ez.

- A. Egaña: Beso artean hartzen nauzu bai aitortu dezun bezela ta holakotan nik pentsatzen det harekin ari naizela.
- S. Lizaso: Beso artean hartzen zaitut nik goxo-goxo, bero-bero eta akabo noizbait lepotik estutzen hasi ezkerok!
- A. Egaña: Ene, lepotik heldu ezkerok ene, mekauden Kalkuta! bi besoekin helduta ere ito egiten nauzu-ta.
- S. Lizaso: Ez dakit zertan atera geran pasiatzera kalera? Zure ametsa bukatu da-ta joango al gera etxera?
- A. Egaña: Ba nik badakit oso ederki zertan gentozen kalera: nik neskatxari beiratu diot ta zuk eskaparatera.
- S. Lizaso: Barka senarra, ez da horrela egin dudan apustua: zurekin nagoela ere badut nik norekin amestua.
- A. Egaña: Bueno, azkenik konpon gaitezen ez bedi izan kalteko neri lagunak agindu baitit gaur matxista izateko.
- S. Lizaso: Beraz matxista beti bezela gaur jaso dezun gonbita. Agur senarra, bihar artean lo egin argia itzalita!

- A. Egaña: Gauza zatarrak esan dizkizut
ohitura dedan antzera
politak gero esango ditut
baina belarri ertzera.
- S. Lizaso: Orain gauza politikan ez ta
dena geroko utziko...
Gero alperrik esatea da
nik ez ditut sinetsiko!
- A. Egaña: Zu ere lore polita zera
aitortzen det *caballero*
inguruetan ederrentsuna
bestea joan eta gero.
- S. Lizaso: Alper-alperrik ni engainatzen
senarra ahalegintzea.
Hortara ezkeron nahikoa degu
guk elkar aguantatzea.
- A. Egaña: Goazen etxera eta probatu
ohearen ixkutua
muxu lapa bat emango dizut
hiru bat minutukua.
- S. Lizaso: Goazen etxera diozu baina
ez dezu nahi hainbat kemen
botikatikan pasa zaitea
etxera joan baino lehen.
- A. Egaña: Eta botika erosiko det
izan arren garestia.
Aurrerantzean txintxo egingo det
zuk esandako guztia.

M. Lujanbio

Gaia: Aste honetan, Maialen, hurbil ikusi dut heriotza, hurbileko pertsona bat hil zaigu. Badakit zeuk ere horrelako egoerarik bizi izan duzula; eta galdetu nahi nizuke, nik ez baitut aste honetan ondorio garbirik atera, ea zuk alderdi onik ikusten al diozun heriotzari.

Neurria: hamarreko handia

Doinua: *Sentimentua sartu zitzaidan*

Herio sarri izaten degu
zoritxarreko enbata
gutxi espero degun garaian
ezpata sartzen du zarta!
Egia esan zorigaitza da
momentu ilun aparta
baina ondorio on bat badauka
bat atera behar da-ta:
ingurukoak batzen ditula
nahiz ta giltzarria falta. (bis)

Inork azkenik ez dugu nahi ta
denak bizitzeko afanez...
Heriotzaren inguruan da
mila mamu ta esames.
Nik etxean hau ikasi nuen
kontuak garbi esanez:
pertsona nola hil litekean
bare, aldarte otsanez
hiltzen ez dakin mundu honeri
ejenplu on bat emanez. (bis)

Asumituta ote daukagun
ez nago oso seguru
ideiak berak sortzen baitigu
mila min, mila apuru...
Azken ordua uxatu nahian
dabilkigu mila gudu
ta hobe degu asumitzea
patuak bistan ditugu:
heriok hilko gaitu gu baina
berekin bizi behar dugu. (bis)



*San Fausto jaiak. J. Maia, M. Lujanbio eta I. Elortza.
(Durango, 2003-10-13)*

Argazkilaria: J. Mendiburu

IURRETA (2003-10-04)

*Bertsolariak: U. Iturriaga, I. Elortza,
A.M. Peñagarikano, S. Lizaso,
J. Maia eta G. Lazkano.*

Gai-emailea: Eneko Abasolo.

San Migeletan urtero antolatzen duten jaialdia. Gauean izan zen, herriko pilotalekuan. Entzule asko eta sarrera dohainik.

S. Lizaso-A.M. Peñagarikano

Gaia: Peña gaztea gaur gauean Iurretara etorri da litronak eskuan hartuta. Elizpean jezarri da, edaten hasi da, eta hor agertu zaio Lizaso munizipala.

Neurria: zortziko txikia

Doinua: *Nere senarrarekin I*

A.M. Peñagarikano: Etorri ez bazina
 danontzat mesede
 grazirik zuk ez duzu
 egiten batere!
 Hemen ez dut izan nahi
 inoren titere
 galerazia al dago
 moskortzea ere? (bis)

S. Lizaso: Galerazia balitz
zeuretzat mesede.
Bide txarretik dabil
bajina bat jende
jaiak etorri eta
litronaren mende...
Ez al dago jairikan
alkoholikan gabe? (bis)

A.M. Peñagarikano: Beti egiten dugu
horren propaganda
tabernetan litronak
badauka demanda
baina harritzen nauzu
egia esanda:
zu ere ez zaude hola
Solares edanda! (bis)

S. Lizaso: Arrazoiari eraso
hain dago aldrebese!
Gazte, gizalegean
mintzatu mesedez!
Zergatik litronakin
beti hartu babes?
Ez dezute ikusten
sentitu ere ez. (bis)

A.M. Peñagarikano: Hau plaza librea da
hau ez da kaiola
eta oraindik sano
zainetan odola.
Edaten dut zerbeza,
ardo, *Coca-Cola*...
Oker banabil ere
zeini zer ajola? (bis)

- S. Lizaso: Zeini zer ajola hori
galdera hor otu
eta erantzun onik
nik ezin det sortu.
Gazteak gaizki dabiltz
behar dut aitortu:
askatasuna eskatu
alkoholari lotu. (bis)
- A.M. Peñagarikano: Ez duzu ezagutzen
egungo jendea
ez zaitez izan horren
kalamidadea!
Noski gaur gaztedia
dagola grabea
txarragoa da zure
mentalidadea. (bis)
- S. Lizaso: Ustez hizketan ez dut
gaztea huts egin
ta nere kontsejua
ez dezu atsegin.
Edan gabe arina
edan eta berdin...
Bizitza zeurea da
nahi duzuna egin! (bis)
- A.M. Peñagarikano: Gaztea ezin leike
kolpean zuzendu
eta neri litrona
orain nahi dit kendu.
Atzera dabilela
bera nabarmendu:
gure aitona ere
hola hitz egiten du! (bis)

S. Lizaso: Aitona izango da
 arrazoian jabe
 eta hobe gaztea
 zu berdin bazeunde.
 Gazterik erortzean
 alkoholaren mende
 zahartu egingo zara
 gazte izan gabe. (bis)

I. Elortza

Hasierako puntua emanda

Neurria: zortziko txikia
Doinua: *Xarmangarria zera*

E. Abasolo: Atzo estreinatu zen
 Medemen pelikula...

I. Elortza: Hori dala-ta entzun
 dogu mila burla.
 Ikusi barik ezin
 da esan sekula
 ta pentsetan dot danok
 hori eingo dogula.

E. Abasolo: Orain ze teilatura
 joan da pilota?


I. Elortza: Hementxe, beti geure
 gainean dago-ta
 “Abarkas”, horixe da
 hemengo borroka:
 danon artean hartu ta
 Madrilera bota.

- E. Abasolo: Pelotari ugari
ta pelotak gutxi.
- I. Elortza: Zeuk gura ete dozuz
hemen erakutsi?
Parkatu baina kontu
horrek arren itxi
nik behintzet ez dautsudaz
gura-ta igurtzi!
- E. Abasolo: Partida iritsiko
al da hogeita bira?
- I. Elortza: Gitxienez badabil
nahikoa mobida
baina ez dakit helduko
dan erdi-erdira
betiko lez geratzen
bagara begira.

USURBIL (AGINAGA) (2003-10-04)

*Bertsolariak: M. Lujanbio, J.M. Irazu,
Mañukorta eta S. Colina*

Gai-emailea: Iñaki Agirresarobe.

Mañukorta-J.M. Irazu 

Gaia: Zuek bi gazte zarete, eta aurtengo udan sos batzuk biltzearren Aginagara etorri zarete piperrak biltzera. Zer moduz joan da uzta?

Neurria: zortziko txikia

Doinua: *Haizeak bidali du*

J.M. Irazu: Piper biltzera etorri
pentsatu horrela
pentsa udara latza
latza izandu dela.
Errez ikusi leike
beiratu ta bela:
Mañuk nik baino gehio
biltzen zituela.

Mañukorta: Basarritar kontuak
gure zoramenak
horixe agintzen du
guk degun ahalmenak.
Zestuak ekarri'tugu
diran haundienak
errez batuko dira
aurten daudenak.

J.M. Irazu: Ezin batua nunbait
gainera kostata
zakua betetzeko
kilo pila falta.
Angulak ez bezela
arazo galanta:
hoiek ez dira biltzen
saria pasata.

Mañukorta: Basarritarrak gera
jator eta finak
baina gaintitzen gaitu
nahi eta ezinak
gorri, berri, potolo
dira aldeginak
ta gelditu diranak
denak piperminak.

J.M. Irazu : Pipermin pila nunbait
tartian nahasi
ezin genduelako
guk bestetan hasi.
Jende pila ingurun
gehiegi're kasi
baina ezkonberririk
ez degu ikusi.

Mañukorta: Piperrak gutxi baina
gu gaude poztuta
sukaldaritza dana
ez degu ahaztuta
hala behar dala-ta
gauzak prestatuta
piperminak jango'itugu
angulak nahastuta.

J.M. Irazu: Angula ez zazu jan
piperrak nahastuta
horrek gusto minbera
besterik ez du-ta.
Gerriko min galanta
azkenik hartuta
negua pasako det
potian sartuta.

Mañukorta: Honera etorri gera
piperraren bila
hala behar bikoia:
indartsu, abila.
Pipar sarik ez dago
hau da hau umila
berriz'e jan beharko da
patata tortilla.

J.M. Irazu-M. Lujanbio

Gaia: Hi, Irazu, Alberto Iñurrategi izango haiz. Azken zortzi mila-
koa igo duk, eta gailurrean hagoenean Felixen istripua azaldu
zaik. Maialen izango da Felix. Nolako elkarriketa izan
duzue?

Neurria: zortziko handia
Doinua: *Erreguetan ari nintzela*

- M. Lujanbio: Pentsatzen nuen: ze berri ote du nere anaia gazteak?
Izotz artera ez dira sarri helden zure albisteak.
Kaixo Alberto! Poz ematen dit zure aurpegi tristeak eta berriro paraje hauetan zabiltzala ikusteak.
- J.M. Irazu: Berriro ere iritsi naiz bai ta hemen susto zitala ikusi baitet han edo hemendik gora etorri zerala.
Harritu al zaitu nik segitzeak ez al zan hori normala?
Mendia ere maite baitet nik nere anaia bezala.
- M. Lujanbio: Segiko zendun edo ez zendun ezin nuen jakin aizu ni hemen geratu nintzalako zu geratu zintezkeen izu baina esan dezu mendia ere ni ainaxe maite dezu.
Nere pioleta eskutan hartu ta goruntza segi zazu.
- J.M. Irazu: Baina goruntz hoi nun ote dagon ez nezake entenditu.
Galderatxo bat egingo dizut Felix anaia aditu:
Oiartzabalek mendi tontorrek hemezortzi egin ditu karrera hortan zer egingo det jarraitu edo gelditu?

M. Lujanbio: Duda bat dezu duda sakona
ez zait txepela iruditu
gure Juanitok neretzat ez du
dion hainbeste merituz
guk iten gendun gure Himalaya
beste eran entenditu:
bizimodua bada segizu
karrera bada gelditu.

J.M. Irazu: Galdera zaila jarri didazu
esanda ez du ajola
erabakia nere eskura
ezin det hartu inola.
Bizimodua edo karrera
bereizi nahi dezu hola
bizimodua nola izango da
anaia hilda dagola?

M. Lujanbio: Anaia hilda geratu nintzan
Gashenbrun II-ko ertzean
ta esaten dezu zure bihotza
dagola erdi hutsean.
Zu zaude lasai, ni ondo nago
nere loan izotzean...
Hemengo berri nik ondo dakit
baina zer berri etxean?


J.M. Irazu: Etxe aldean ze berri dagon
esanda zail da sinesten
han' e karrera ta bizimodu
ez da xamurra bereizten
bakarren batzuk hasiak daude
etorkizunaz amesten
baina egia esango dizut
ez det gailurrik ikusten.

AULESTI (2003-10-10)

*Bertsolariak: A. Egaña, S. Lizaso, J. Enbeita,
A. Estiballes, I. Ibarra eta G. Ostolaza.*

Gai-emailea: Josu Goikoetxea.

Aulestiko Udaleko Kultura Batzordeak eta Bizkaiko Bertsozale Elkartek Alfontso Irigoieneren omenez antolatutako jaialdia. Udaletxeko aretoan izan zen, iluntzeko zortzietan, aretoa entzulez beterik zela.

S. Lizaso-A. Egaña 

Gaia: Alkarregaz etorri zarete kotxean, ezta? Eta alkarregaz zenbat urte? Zenbat saio? Gaur, Aulestira kotxean datozela Andoni deklaratu egin zaio Sebastiani. Bolantazoa eman du Sebastianek.

Neurria: lauko handia

Doinua: *Kontu barri bat suzedidu da II*

S. Lizaso: Zuri hitz hori Andoni ez zaizu
bihotzetikan atera
edo burua galdu al dezu
ilearekin batera?

- A. Egaña: Santa Eufemian aitortu diot
laugarren kurba baino lehen:
“Maitatzen zaitut” esan dut baina
sua bakarrik nahi nuen.
- S. Lizaso: Lehen nabarmendu egin zera
orain disimulatu nahi...
Egia sua nahi zenduela
berotasuna ere bai.
- A. Egaña: Parejarena ez dago urrun
nahi baldin badezu jakin
andrearekin baino hobeto
konpontzen bainaiz zurekin.
- S. Lizaso: Andrearekin baina hobeto
konpontzen daukagu errez
ia nahi dezun dena egiten dezu
baina nahi dezun dena ez.
- A. Egaña: Horixe zan ba ene Xebaxtian
nere gogo ta ustea
hain xuxen ere eta zurekin
nahi dudana dena uztea.
- S. Lizaso: Konponbidea zaila daukagu
jarri ezker begira
nahi dezuna ta nik nahi dudana
gauza bera ez badira.
- A. Egaña: Zuk ere berdin sentitzen dezu
ta oso seguru nago
benga Xebaxtian anima zaitte
Azpeitin ez dut esango.
- S. Lizaso: Azpeitin ezer esaterikan
neuk ere ez nuen espero
baina Azpeitin jakin liteke
Zarautzen esanez gero.

- A. Egaña: Baina Xebaxtian ez zazu esan
hemen horrelako bromik
Zarautzen inork ere ez daki
Santa Eufemia badagonik!
- S. Lizaso: Aulesti aldean ez jakitea
ez litzateke kaltea
hari ez diot nik barkatuko
mirari hau egitea.
- A. Egaña: Azkenerako bi bihotz gazte
bakarra degun antzera
bertso saiora bi abitu ta
bakarra joango gera.
- S. Lizaso: Barka Andoni, gauzak ez dira
zuk esan dezun bezela
gauza bakarra dauka egitik
bakarrik joango naizela.

HENDAIA (2003-10-11)

*Bertsolariak: X. Murua, S. Lizaso,
M. Lujanbio eta A. Mendiluze.*

Gai-emailea: Josu Goikoetxea.

Hendaia Bertsutan elkarreak antolatutako bertso afaria izan zen, Xaia elkartearen. Afaltiar asko eta entzulea bertsoak entzuteko gogotsu. Bertso eskolako gaztetxoek egin zituzten bertsolarien aurkezpenak.

M. Lujanbio-A. Mendiluze-S. Lizaso 

Gaia: Agian jakingo duzue: Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa hasi da. Maialen da faboritoetako bat. Jon Sarasuak 1991ko Gipuzkoako Txapelketan tongo egin zuen. Maialenen buruan aurtengoan horrelako zerbait egiteko asmoa dago. Horretan dabilela, Aitor aingerua eta Sebastian deabrua azaldu zaizkio.

Neurria: lauko handia

Doinua: *Kontu barri bat suzedidu da II*

A. Mendiluze: Ene Maialen bertso ederrak
buru barruan dituzu
eta zergatik bota kaxkar bat
ondo pentsatu al duzu?

- M. Lujanbio: Nik maite ditut bertsoak, hitzak ta maite dut ika-mika.
Ia aspertu naiz hainbat numero ta hainbeste matematika.
- S. Lizaso: Joan zaitea ta tongo egin hortan dudarik ez dago:
bertsoa epaitzen beti zaila da ta bat-batean zailago.
- M. Lujanbio: Arrazoi duzu hori egingo dut joan oker kantatzera baina hortarako lehendabiziko nola pasa finalera?
- A. Mendiluze: Tongoa egin nahi omen dezu ez dezulako atsegin.
Protesta egin behar badezu hasera-haseran egin.
- M. Lujanbio: Ez, bukaeran izan liteke horrentzat une gailena:
igual tongoa egin nahi eta aterako zait onena.
- S. Lizaso: Arrazoi dezu holako trantze batean igual aurkitu ta bertso ona sortzen bazaizu bukatu gabe gelditu.
- M. Lujanbio: Ez da ez txarra, ona litzake nere fama hori puztea eta jendea emoziotan eta irrikiz uztea.
- A. Mendiluze: Gogoak eman dizula eta nolaz erabaki duzu?
Jende pila bat da txapelketa txapelketa ez zera zu.

- M. Lujanbio: Ni ez naizela txapelketa ta ama, zenbat kontseju on!
Nerekin badet nik nahikoa lan beste guztiak hor konpon.
- S. Lizaso: Joan zaitetz ta tongo egin zazu nik esandako moduan
Sarasuaren kategoria izango dezu orduan.
- M. Lujanbio: Tongo egin edo tongo ez egin zertan dudatu gehiago?
Bai aitortzen det Sarasuakin enamoratuta nago.
- A. Mendiluze: Baina saiatu irabazten ta ondoren eman egurra.
Beti da bertso inportanteena txapeldunaren agurra.
- M. Lujanbio: Urte guziko bertsoik onena txapeldunana al da ba?
Txapela egun batean goxo ta urte guzian karga.
- S. Lizaso: Hara Maialen ez zazu bete aingeruaren esanik
eta horrela ez dezu izango agurra pentsatzen lanik.
- M. Lujanbio: Hara aingerua ta deabrua ta biak jakitun uste horren seguru bazabiltzate zeuek kantatu zazute.

A. Mendiluze-M. Lujanbio

Gaia: Senar-emazteak zarete. Aitorrek bihotzez maite du Maialen, baina bada gauza bat batere gustatzen ez zaiona. Aitor zerbait kontatzen hasi, eta beti, beti, beti Maialenek moztu egiten dio, eta berak segitzen du istorioa.

Neurria: zortziko txikia

Doinua: *Dama gazte xarmant bat*

A. Mendiluze: Bakarrik egiten det
kontuen hasera
zuk jarraitzen dezu ta
heldu amaitzera.
Nortasun kontuekin
garbi daukat zera:
batzuk bikoitza dute
nerea zu zera. (bis)

M. Lujanbio: Hizketan jartzen dezu
hainbeste interes.
Saiatzen zera baina
gero asmatzen ez
dena erdizka kontatzen
baitezuk berez:
erdia oker eta
erdia aldrebes. (bis)

A. Mendiluze: Buruan dudana da
histori itzela
jakinda jarraitzera
zu zeu zoazela.
Hasten zera trabatu
banintza bezela
denek pentsatzen dute
totela naizela. (bis)

- M. Lujanbio: Totela ez zerala
orain argi dago
baina hitz eiten dezu
maite hain luzaro.
Txikikeriatxo bat
kontatzeko klaro
kontatzen hasten zera
lau egun lehenago. (bis)
- A. Mendiluze: Hola txikikeri bat
istori aparta
baina ezin bukatu
jaunak hau da marka!
Hasi beharko det zuri
kristonak botaka
haserre zaudenean
ixiltzen zera-ta. (bis)
- M. Lujanbio: Ni're haserretzen naiz
besteak bezala
baina jakin hala're
segiko dedala
ta gure bikotea
gizarte bat dala:
hemen ere nagusi
bertsio ofiziala! (bis)
- A. Mendiluze: Oraintxe istori bat
etorri zait neri:
“Bazen behin emazte bat...”
hola hasi bedi
“asko hitz egiten zuen
askotan gehiegi...”
beno orain maitea
hortikan zuk segi. (bis)

M. Lujanbio: Gizonak dionari
ez ein kasurikan.
“Bazen behin emazte bat”
dio ika-mikan.
Jendea aspertuta
daukazu praktikan.
Hoi lehen kontatu dezu
zaude ixilikan! (bis)

A. Mendiluze: Behin zerbait esango ta
hemen ez da giro!
Ni xuabe hasi naiz ta
ondotikan tiro.
Diozu ez dezadala
kontatu berriro
zuk kontatu didazu
aldiro-aldiro. (bis)

M. Lujanbio: Zurekin ezin leike
irten kale bueltan
lotsagarri uzten nazu
toki guzietan.
Betikoa gertatu
zaigu hemen bertan:
mundu guztia ixilik
eta gu hizketan. (bis)

A. Mendiluze: Berriz adarra jo nahi
sorgin gaizto horrek
ta zer esan dezake
gizon zintzo batek?
Aizu dibortzioa
eskatu dezaket
behingoz istorio bat
nik bukatuko det! (bis)

M. Lujanbio: Ze dibortzio, ze istori
alperrik zabilta!
Benga goazen etxera
komeni dan gisa.
Dena erantzuten dit
hau da hau paliza
beti berak behar du
azkeneko hitza! (bis)



*Ahozko Inprobisazioa Munduan. Euskalduna Jauregiko jaialdia.
(Bilbo, 2003-11-08)*

Argazkilaria: A. Elosgi

HERNANI (EREÑOZU) (2003-10-18)

Bertsolariak: M. Lujanbio eta A. Egaña.

Gai-emailea: Aritz Zerain.

Ereñozu auzoko Urmia elkarte beteta, eta oso entzule bertsozalea. Urteak ziren bertso-afaririk antolatzen ez zela, eta ohiturari berriz ekiteko prest agertu ziren. Saio luzea baina maila handikoa. Jendea oso gustura geratu zen, baita bertsolariak ere.

A. Egaña-M. Lujanbio

Gaia: Gaur egunean hainbat aldizkari eta egunkaritan bertsolariak agertzen dira sekulako pila. Gaur egun badirudi bertsolariak intelektualak direla.

Neurria: hamarreko handia

Doinua: *Mutil koxkor bat itsuaurreko I*

A. Egaña: Bertsolariak intelektualtzat
nolako disparatea!
Izan liteke euskaldunaren
osasunaren kaltea.
Bertsolaria beti izan da
moxkortexio, paketea.
Gaur egunean egunkarien
zutabe pila betea
ta gure lanak izan behar luke
grafitiak egitea. (bis)

- M. Lujanbio: Hainbeste ikusi zutabeetan
eta nola ez aztora!
Nik ez dakit dan interesgarri
edo azkenaldiko moda.
Bertsotara're deus jakin gabe
joaten gera edonora
ta azken finean antzekoa da
idaztearen aproba:
hutsetik sortzen dakigulako
horregatik izango da. (bis)
- A. Egaña: Bertsolariak zer pintatzen du?
Hori da nere galdera.
Iguar tokia ematen zaio
osperean arabera.
Hala're mailak neurtzen jarrita
homologableak gera.
Hortikan gora batzuk badaude
ejenpluzat, hara, bera:
Berrian beti jotzen det zuzen
bosgarren orrialdera.¹ (bis)
- M. Lujanbio: Bueno Andoni ez dakit dedan
hainbeste merezimendu.
Eskertzen dizut baldin badezu
zure lorea mantendu.
Zirika nahia, pentsaraztea
nere idatzien zimendu
baina egunero idazten dunak
nahiz ez meriturik kendu
alperrik gauza asko esateko
arriskua izaten du.
- A. Egaña: Baina hala're izaten ditut
hura irakurtzeko grinak
artikuloak izaten dira
goxo eta atseginak.
Asko ez dira asko esanda
sekula ez huts eginak
zuri bentaja egiten dizu
han goi parteko izkinak
txarra nolatan ezabatzen dun
kafesnean zipriztinak. (bis)

(1) Maialen Lujanbiok egunero zutabe bat idazten du *Berria* egunkarian.

- M. Lujanbio: Zipriztinekin disimulatzen bada askoz ere nahio. Egunkarian eta bertsotan gabiltz kontuen karraio. Gaur adibidez eingo ditugu hemen bi ordu ta gehio eta gustora joango gera egia da ze arraio! Zuetan bati bertso txiki bat geratzen baldin bazaio. (bis)
- A. Egaña: Egia da bai bertsolariak badute bere nibela denetarako, edonoiztako erabiliak horrela. Zoritxarrean izan liteke muturrik ez dun kordela. Aizu Maialen sentitu izan dut pentsatzen ari naizela bertsolariak gera gu baino pakean utz gaitzatela! (bis)
- M. Lujanbio: Baina pakean utzi gaitzaten guk behar degu lagundu guk behar degu bistatik ihes ez gure hitzak txukundu. Bazter guzitan hortxe gabiltza plazaz plaza, munduz mundu bertsolari bat ikusi gabe ezin pasa bi segundu. Bazter guztitan ageri danak ze sinesgarritasun du? (bis)
- A. Egaña: Bertsolariak han eta hemen bertsokin ez da giro! Bertsolariak han eta hemen bertsolariak berriro. Bertsolariak hitzez *pun* eta bertsolaiek lumaz tiro. Nahiz audientzia nazionalik ez genukeen behar igo akaso igual izango gera *juglares sabelotodo*. (bis)

M. Lujanbio: Lehen bertsoan gai izaten zan
 mailua, atxurra, pala
 akaso behia ernai zegola
 gaizki zetorrela txahala...
 Lehen bertsoan dena izaten da
 etxe-giro gai apala.
 Ta derrepente bat sortu gendun
 bertsolari intelektuala
 ta oain uste dute bere ondorengo
 guztiak hala gerala. (bis)

A. Egaña: Batek bidea ireki eta
 besteak atzetik pozik
 pentsamentuan ez da izaten
 hain artalde aproposik.
 Bertsolari ta intelektuala
 ondo esan dezu kasik
 badauka horren itxura eta
 ez du falta horren trazik
 hala're kulpa ez da nerea
 Amurizarena baizik. (bis)

ERRENTERIA (2003-10-25)

*Bertsolariak: A.M. Peñagarikano,
M. Lujanbio, A. Egaña, U. Iturriaga,
A. Mendiluze eta I. Elortza.*

Gai-emailea: Karlos Aizpurua.

Orereta Kultur eta Kirol Elkartek antolatutako bertso jaialdia. Niessen aretoan izan zen, eta ez zen erabat bete. Arratsaldeko zortzietan hasi zen saioa.

A. Egaña- M. Lujanbio

Gaia: Zuk, Maialen, lige kontuetan arrakasta besterik ez duzu eza-gutu. Zure kantu eta enkatu ororen aurrean pertsona oro errenditu da, baina azkeneko honekin gauzak ez doaz ohi bezala.

Neurria: hamarreko txikia

Doinua: *Ia jarri gaituzte / Agur sagar beltzeran*

- M. Lujanbio: Zuregana hurbildu
nintzen pausuz pausu
ta behatzakin esan
“Zatoz hona aizu!”.
Halere ez didazu
zuk egiten kasu
ezezkoak emanez
zabiltza jo ta su
ta are morbo gehiago
ematen didazu.
- A. Egaña: Lehenik eman nizun bai
ezetz borobila
gero etorri zinen
bigarrenan bila
“n” izango dira
argitu dadila.
Ta ederra daukazu
ene neskaitila!
Hau morboso bazaizu
a ze morbo pila!
- M. Lujanbio: Morbo bila banabil
nabilela bapo
zuk esaten badezu
sinistu beharko.
Nik ikusten nuena
horren fin, hain guapo.
Lehenengo ezetza zan
lotsa zualako
eta geroztikoak
harroa dalako.
- A. Egaña: Beti zen erregina
beti lehen bera.
Neska honek bazuen
ustea sobera.
Eta orain egoa
jausi zaio behera
arrazoia: ni nabil
oilarren antzera
martxa honetan zu're
umilduko zera.

M. Lujanbio: Ni umilduta nabil
xuabe-xuabe
ta zu zure postura
aldatu nahi gabe.
Baiezko bat ez al da
biontzat mesede?
Zergatik hartzen dezu
ukapena lege?
Nik galduko det baino
bai eta zuk ere.

A. Egaña: Hori da hori ustea!
Hori da patxada!
Baina igaro zaizu
harroxko bolada.
Bi begien aurretik
ken zazu izara.
Gal ta irabazitan
jakin zazu hara:
askotan galera bat
irabaztea da.

M. Lujanbio: Aizu ez zaitte mintza
nere aita bezela
morbo guzia galdu
behar dezu bestela!
Hobe nuen aldatu
neronen papela!
Orain konturatu naiz
oker nenbilela:
ezetz esan banizu
nahiko zenuela.

A. Egaña: Ez gera konponduko
zertarako jardun?
Ezin izan maitale
ezin izan lagun.
Lehen mintzatu natzaizu
lasai eta legun
“Aita gisa ez hasi”
ondotik erantzun.
Zure ama bazina
baietz esango nun.

MUNGIA (2003-10-26)

*Bertsolariak: I. Elortza, A. Egaña,
U. Iturriaga eta J. Enbeita*

Gai-emailea: Iñaki Arbildu.

Taket Bertso Alkartek Pedro Ortuzar “Iturri” bertsolariari omenaldia egiteko antolatutako jaialdia. Berrehun entzule elkartu ziren gutxi gorabehera pilotalekuan. Bertso-saioa eguerdiko hamabi eta erdietan hasi zen. Bertako bertso-eskolakoek opariak emateaz gain, Jon Azpillaga eta Jon Lopategik ere agur bertsoak eskaini zizkioten.

U. Iturriaga-J. Enbeita

Gaia: Jon, gaur, ehizean joateko, goizean goiz irten zara etxetik.
Atarian Unai alabak bere mutil-laguna aurkeztu dizu.

Neurria: zortziko txikia

Doinua: *Kantatzera nijoa*

J. Enbeita: Gaurko gazte hauekaz
 badago bakoitzik
 erantzuteko alaba
 ia ez daukat hitzik.
 Saltan zagoze biok
 ez al dago hotzik?
 Etxean kabitzen da
 zuek bion gorputzik. (bis)

U. Iturriaga: Lasai kanpoan ondo
emon dogu gaba
orain ezautu gura
gendun portalada.
Igor dauko izena
jakin badaezbada
bestelakoa baina
hau be ehiztaria da. (bis)

J. Enbeita: Hasieran senetik
egin nau atara
baina bihotzean jo
egin daust aldaba.
Alaba bizkorra da
ikusi da hara
ni baino ehiztari hobe
egin da alaba. (bis)

U. Iturriaga: Gabaz ehiztari sena
jatenez gailendu
nere txori hau nahi dot
ondoan mantendu.
Ehiztari ona da-ta
meritoik ez kendu
ze eskopeta daukon
jakingo bazendu! (bis)

J. Enbeita: Ene alaba ez da
hain tontoa aitte
neuk ere izan neban
hainbeste egitte
baina gaurko giroa
ondo ikusitte
seguruan daukala
polbora bustitite. (bis)

U. Iturriaga: Umoretsu heldu da
gure aita zaharra
polbora deuko berak
ardura bakarra.
Bustite dagoela
ez da arrazoi txarra
neuri be iruditu jat
bai umel samarra. (bis)

J. Enbeita: Sinesten dautsut zala
nahiko umel samar.
Ibiliko zineten
kaleetan zehar
baina ez uste daunik
horrenbeste indar
tiro bat botateko
gaba dana behar. (bis)

U. Iturriaga: Nire erantzunagaz
ez dau gustora oso...
Zer pasatu behar zan
jakin baleu atzo!
Hau tirolari ona
dugu hau aitatxo
Burgosera joan barik
hamaika kartutxo. (bis)

BILBO (2003-11-08)

Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak antolatu zituen Kulturarteko Topeketen azken ekitaldia. Euskalduna jauregian izan zen, larunbat arratsaldean. Mila entzule inguru, eta saio eder bezain hunkigarria. Jaialdi honetan, bertsolarietz gain, Jamaika, Georgia, Kuba, Argentina, Portugal, Sardinia, Mallorca eta Mexikoko inprobisatzaileek hartu zuten parte.

Aurkezleak: Josu Goikoetxea eta Aitziber Perez de Karkamo.

A. Egaña-I. Elortza

Neurria: sei puntuko motza

Doinua: *Aresoarren bandera / Aizak hi mutil mainontzi*

A. Egaña: Serio jarduteko gai
ere bagera nolanahi
gure aurrean horrenbeste hitz
musika eta jai.
Harrotasun sanoaz blai
Jon Sarasuak zion, “Ai
ez gara inoren eredu baina
erreferentzi bai”. (bis)

I. Elortza: Inguratuta adiskidez
geure lekutik ekinez
mundura jauzi egin nahi dugu
ez txokora ihes.
Izanez ta izan minez
nondik gatozen jakinez
baina inorako beldurrik gabe
bidea eginez. (bis)

A. Egaña: Zenbat irri, zenbat ezten
zenbat hornitu gaituzten!
Ta eurak ere gurekin zenbat
aberats litezkeen!
Denok batera abesten
etorkizuna amesten
gure herria denona baita
nahiz geurea ez den. (bis)

I. Elortza: Munduak behar ditugu
munduak behar gaitu gu
ez dugu izan nahi ezeren buztan
ez ezeren buru.
Baina gauza bat seguru:
bizitza dugu helburu
gure munduaz beste egiteko
asmorik ez dugu. (bis)

VILLABONA (AMASA) (2003-11-15)

*Bertsolariak: A.M. Peñagarikano, A. Agirre,
A. Egaña, S. Lizaso eta J. Agirre.*

Gai-emailea: Jon Zaldua.

Samartinetan urtero izaten den jaialdia, Amasako pilotalekuan, gaueko hamar eta erdietan. Ehun eta berrogeita hamar entzule inguru.

A. Agirre-J. Agirre

Gaia: Zuk, Amaia, orain arte saio askorik izan ez baduzu ere, azken boladan saio mordoxka daukazu. Joxek, berriz, gero eta saio gutxiago dauzka. Hala ere, gaur saio berean egin duzue topo.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Nere senarrarekin I*

A. Agirre: Zure aldean saio
dexente daukat nik
ez gabiltza urruti
gu elkarrengandik.
Bertso maila ederra
daukazu oraindik
zer ikasi asko du
gazteak zugandik. (bis)

- J. Agirre: Ez daukat gogorikan
iskanbilarako
inbiritan al zaude
nere mailarako?
Zu orain preparatutzen
hor latiborako
ni berriz preparatzen
erretirorako. (bis)
- A. Agirre: Bertso maila daukazu
nik dedan doblea
azkarra ta bizia
gutziz dotorea.
Nahiz ta pixka bat zahartu
sobran adorea
Amasari galdetu
nor degun hobea. (bis)
- J. Agirre: Errexa izango da
hori ikustea
hobe izango det zuri
pakean uztea.
Gauza batekin pena
hartzen dut gaztea:
adarra jotzen hortain
nabarmen hastea. (bis)
- A. Agirre: Ez naiz brometan ari
ta Joxe begira:
estimatzekoa da
zuk dezun distira.
Nigatik lasai joan
zintezke urrutira
utzitako saioak
neretzat badira. (bis)

- J. Agirre: Aspalditik dadukat
 nik erabakia:
 arrastaka ibiltzea
 ez da egokia.
 Askori emango diot
 orain errukia
 belaxe utziko det
 zuretzat tokia. (bis)
- A. Agirre: Zoaz hirurogeita
 hamabost urtera
 baina oraindik dezu
 sasoiko tankera.
 Plazaz plaza jarraitu
 oraingo antzera
 zu etortze'ez bazera
 bila joango gera! (bis)
- J. Agirre: Arrazoi dotoreak
 zure mingainian
 baina ni ez naiz orain
 sasoi bikainian.
 Zer datorkidan nago
 ondo jakinian
 nola izango ote zera
 nere adinian? (bis)
- A. Agirre: Oraintxe hunkitu zait
 kolpetik barrena
 ta zerbait esateko
 hartu det baimena:
 nolakoa ote nintzakeen
 urtetan barrena?
 Ez dezula ikusiko
 horixe da pena. (bis)

J. Agirre: Nik ez det ikusiko
nago pentsatua
baina zuk ere ez dezu
hain seguraturua.
Hoinbeste bertso bota
hau ez da kontua
biharko egin nahi dezu
entrenamentua! (bis)

S. Lizaso-A.M. Peñagarikano

Gaia: Bi lagun zarete. Orain arte, astero, itsuen zozketan jokatzan zenuten elkarrekin. Atzoko boletoa egundoko milioi pilarekin saritua izan da. Gaur zuri, Peña, boletu hori aparte erosi duela esanaz datorkizu Sebastian.

Neurria: hamarreko txikia
Doinua: *Espanian behera*

A.M. Peñagarikano: Nere ustetan zinen
laguna xarmanta
bainan estrapozoa
hor egin dut kanka!
Ez nuen pentsatuko
hau sekula santa
ibiliko zenunik
horrenbeste tranpa!
Lagun zinala uste-ta
faltsoa galanta! (bis)

S. Lizaso: Arrazoirikan gabe
ez zaitez oldartu
zure desafioa
ezin det onartu.
Astero bi zenbaki
hori gendun tratu
baina hirugarren bat
aparte jokatu...
Aparte jokaturua
aparte kobratu. (bis)

(1) Gipuzkoako Txapelketako lehenbiziko finalerdian kantatu behar zuen Amaia Agirrek hurrengo egunean.

A.M. Peñagarikano: Tranpetan zabilta ta
ez dago gauz onik
ez nuen pentsatuko
egingo zuenik!
Gogoan daukat ondo
aitonak esanik
harek esan zuen ta
gogoan hartu nik:
zintzorik ez dagola
ehun kilo ditunik. (bis)

S. Lizaso: Aitonan arrazoiak
jarria minbera
ni beti gora noa
zu berriz gainbehera.
Saria kobratzeko
nik soilik aukera.
Ehun kiloren mugara
hurbiltzen zan bera
mila kobratu ditut
kontuak atera! (bis)

A.M. Peñagarikano: Egon zaitez ixilik
zu zerri zikina!
Honek boletuari
atera etekina.
Etxe bat egiteko
orain ahalegina
zuretzako txaleta
zuretzat pizgina...
Nahiago nuke bertan
itoko bazina! (bis)

S. Lizaso: Lasai libratuko naiz
malko putzutikan
eta zuk arrazoitik
ez dezu tutikan.
Mila milioi sartuak
baititut pratikan²
hegazkina hartu ta
banoa hemendikan...
Postala bialiko'izut
opor lekutikan. (bis)

A.M. Peñagarikano: Beti biziko zera
gehioren egarri
ez zera lasaituko
estu eta larri...
Ez 'idazu postalik
handikan igorri!
Gaur egun Espainian
badaude bi zerri:
bat Fraga Iribarne
bestea zerorri. (bis)

S. Lizaso: Horra konparaketa
egin bat-batean
baina sufritzen zaude
zeuretzat kaltean
ta ni opor lekuan
zorion betean...
Nahiz eta sartu nauzun
zerrien tartean
gizentzen segi nahi det
ahal dedan artean. (bis)

GASTEIZ (2003-11-28)

Bertsolariak: A. Arzallus eta S. Colina

Gai-emailea: Juan Mari Juaristi.

Geu Gasteiz elkarteak antolatutako bertso afaria, Irrintzi elkartean. Berrogeita hamar bat entzule denera. Saioa gauerdia jota hasi zen.

Ordura arte irakasle eta ikasleen arteko gorabeherez jardun zuten, eta doinua aldatzarekin batera gaia ere aldatu egin zuten.

Neurria: zortziko handia

Doinua: *Zeru altuan zegoen Jaunak*

S. Colina: Doinua aldatuz gai honen bueltan
 egon gaitezen nabarmen.
 Maisu kontutan ibili gara
 goxo-goxo, garden-garden.
 Horrexegatik galderatxo bat
 egin nahi nizuke hemen:
 jakin nahi nuke zure bizitzan
 zure maisuak zein diren?

A. Arzallus: Maisu bat neukan joan den urtean
ta beste bat daukat aurten.
Esango dizut nere maisuek
ni nola aldatu nauten.
Lehen banuen Sustrai bat hortan
harixe nion entzuten
baina urteak dira ez dudala
berai ezer erantzuten.

S. Colina: Nik uste nuen bertso munduan
gogor abitu zinela
horren ondorio izan liteke
behin jantzitako txapela.
Gogoratzen naiz ume garaian
zortzi urte genituela
bertso eskolako gure maisua
zure aita izan zela.

A. Arzallus: Zortzi urtekin bertso eskolan
nahasten genitun bazterrak:
erdiak ginen tonto samarrak
beste erdiak alferrak.
Hala're aitak zuzendu zitun
guk genituen okerrak
beraz zuk zerbait egiten duzu
Arzallustarrei eskerrak.

S. Colina: Sekula ez dut hori ukatu
ta zurekin ados nago
bertso eskolan ibiltzen ginen
biak pikaro-pikaro.
Baina denbora igaro da-ta
nere ustez garbi dago:
bertan bizitzaz ikasi gendun
bertsoaz baino gehiago.

- A. Arzallus : Nahiz ta agian hori ikastea
ez gendun gure helburu
zerbait gutxinez ikasi gendun
hori bai bada seguru.
Bizitza ongi azertu eta
horrek salbatu gaitu gu
orain bertsotan gabiltzanean
bizitza kantatzen dugu.
- S. Colina: Zuk futbolista izan nahi zendun
heldu lehenengo mailara
ta nik pelotan egin nahi nuen
Julian Retegin gisara.
Garai horiek pasa zirela
hamarkada bat da jada
ez pelotari, ez futbolista
orain bertsolari gara.

DONIBANE-LOHIZUNE (2003-11-29)

*Bertsolariak: A. Arzallus, S. Colina,
M. Artetxe eta X. Murua*

Gai-emailea: Xabier Soubelet.

M. Artetxe-S. Colina

Gaia: Sekula bere eremutik atera ez den txoria da Miren. Sustrai, aldiz, txori ibiltaria.

Neurria: zortziko handia

Doinua: *Santa Barbara zure bizitza I*

M. Artetxe: Nire txokoan egonen naiz ni
gero, orain edota lehen
nahiz eta jada daramatzadan
bizpairu urte bederen.
Nik ez dut inon abestu nahi
ez baldin bada ez hemen.
Ez du balio mizpira arbolak
ez baldin banau entzunen. (bis)

- S. Colina: Urterik urte igaro ditut
Australia edo España
Afrika behean basamortua
Himalayan mendi gaina.
Nahiz ta mizpirak jango dituzun
txori lasaienak aina
kartzela baten bizi zara zu
ez duzu onartzen baina. (bis)
- M. Artetxe: Baina badaukat nere lotura
hemengo zilbor-hestean
zu berriz hola zabilta beti
batean eta bestean
baina ez duzu inoiz kantatzen
zuhaitz baten gerizpean
eta ez duzu ezer lortuko
aireari abestean.(bis)
- S. Colina: Nahiz eta gauza onik ez dagon
notak aireaz nahastuta
zu bizi zara zure kabian
frustratuta ta histuta.
Txoriak txori izatekotan
hegalak behar ditu-ta
bi hegalekin bizi zara zu
erabitzeaz ahaztuta. (bis)
- M. Artetxe: Nik berriz hemen kantatu nahi dut
orain azkar, orain bare
papo-gorria naiz baino nago
urretxindorraren pare
nere erreka, mizpira hondoa
nere txokoaren jabe
nere ahotsa ez baita ezer
erreka soinurik gabe. (bis)

S. Colina: Euskal Herriko natura nahiz den
zabala eta joria
han jasotzen da zizarea ta
han bilatzen da ogia;
zulo hortara mugatu duzu
lagun zure historia
ta ehiztariak aisa jotzen du
mugitzen ez den txoria. (bis)



*Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa. M. Lujanbio.
(Irun, 2003-12-14)*

Argazkilaria: A. Elozegi

IRUN (2003-12-16)

*Bertsolariak: J. Martin, J.M. Irazu,
A. Mendiluze, I. Gurrutxaga, A. Agirre,
M. Lujanbio, E. Goikoetxea eta J. Maia.*

Aurkezlea: Jon Zaldúa.

Gai-emailea: Saroi Jauregi.

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketaren finala

Txapeldunaren bukaerako agurra

M. Lujanbio

Neurria: zazpi puntukoa

Doinua: *Lurraren pean sar nindaiteke II*

Txirrita ez baina orain neretzat
kolpeak ta igurtziak
hainbat jasoko ez dituztenei
muxuak ta goraintziak
muxuak bertso eskolakoei
Juanjo Urian bitxiak
honen zati bat ere badute
lagun minek ta etxiak.
Baina behin behar ta omendu behar
gaur emakume guziak
ta bereziki zernahi bidetan
abitu ziren gutxiak
gizarte honek euren ametsen
erdibidean utziak. (bis)

I. Lazkano

Neurria: hamarreko handia

Doinua: *Mutil koxkor bat itsuaurreko I*

Bertsolarien arrazoi sakon
bertsolarien eztenak
izan ditugu beste behin ere
gozarazi gaituztenak
gure baratzan hauek baitira
lorerikan politenak.
Ai zer lastima hau guzi hori
Irunen ez uler denak!
Ez dakite asko zer galtzen duten
euskeraz ez dakitenak! (bis)

ZUMARRAGA (2003-12-19)

*Bertsolariak: A. Arzallus, A. M. Peñagarikano,
A. Mendiluze eta U. Iturriaga*

Gai-emailea: Antton Fernandez.

Urtearen hondar aldera urtero antolatzen duten jaialdia.

A. M. Peñagarikano

Gaia: Gaur ere, arratsaldero bezala, zahar-etxera abiatu zara zure aitari eguneroko bisita egitera.

Neurria: hamarreko handia

Doinua: *Santa Barbara zure bizitza II*

Sarri-sarritan inguratzen naiz
ez det esango gezurrik.
Oraindik ere ez da itzali
barruan maitasun garrik.
Gaur ere hona etorri naiz ni
ta zaude ilun samarrik
eta zergatik zauden zu hola
ez dago esan beharrik:
zuk hala uste badezu ere
aita ez zaude bakarrik. (bis)

Zeure ustetan zu bizi zera
hain bakardade beltzean
ta aurpegia aldatu zaizu
zure semea heltzean.
Pentsa ezazu bizi zerala
oaindik gure bihotzean.
Baina haurraren zai dago eta
emaztea ohatzean
hala ez balitz egongo zinan
aita gurekin etxean. (bis)

Nik ondo asko badakit aita
orain zer dedan jokoan
eta badakit zu nola zauden
hemen ikusitakoan:
gure etxetik kanpoan zaude
baina ez horren kanpoan.
Otsaila laister iritsiko da
hau izan zazu gogoan:
berriz gurekin izango zera
haurtxoa jaiotakoan. (bis)

A. Mendiluze-A. M. Peñagarikano

Gaia: Mendiluze Arnaldo Otegi da, eta Peñagarikano Xabier
Arzallus. Biak *Eusko Gudariak* kantatzen ari dira.

Neurria: zortziko handia

Doinua: *Adixkidia Andoaindikan*

A. Mendiluze: Zeinek pentsatu behar nuela
hau noizbait ikusteko gai?:
Xabier Madrilen kantuan eta
periodistak han bere zai.
Ezin ukatu kantuak berak
baduela mila dohai
baina hitz berberek zure ahoan
bera ez dute esan nahi.

A. M. Peñagarikano: Sarri-sarritan haserretzen naiz zure berba bakoitzeko zu ere noski euskaldun zera baina ez nere bihotzeko. “Gora Euskadi” nik kantatzen det nahiz ez zenuen usteko eta gerturik nago odola bere alde emateko.

A. Mendiluze: Normalagoa beste zenbaitek zure erruz ematea. Merezi luke zure auziak barrura eramatea errexa baita prest nagoela edonori esatea... Ba al dakizu benetan zer den gudaria izatea?

A. M. Peñagarikano: Garai batean egiten nuen sermoia eta ofrenda ta gero berriz nik politikan bete-betea agenda ta gerra hartan ezkutatuak luzea dugu zerrenda. Gudari zer dan ondo badakit aita gerran hil zuten-da.

A. Mendiluze: Baina ez hasi garai bateko oroitzapenen karraio gerra oraindik piztuta dago egongo ez balitz nahio. Zenbaiti utzi diezu hiltzen bizkarra eman ta aio: gurean horri gudaria ez kobardea deitzen zaio.

A. M. Peñagarikano: Barkatu baina ez zait gustatu
zure oraingo mitina.
Españolista neri hots egiten
egin dezu ahalegina.
Hanka-sartzea zuk egin dezu
haunditan ere haundina:
zu're kartzelan egongo zinan
kobardea ez bazina.

A. Mendiluze: Bistakoa da kritikatzea
zuk ez dezula atsegin
onartuko det kobarde bat naiz
ni're zure gisan berdin.
Beraz jarraitu lehengo bidean
prentsara azaldu dedin;
zoaz berriro, zoaz Madrila
eta antzerkia egin.

A. M. Peñagarikano: Eta zerorrek egindakoak
ez al dauzkazu buruan?
Kale borrokan zenbat dabilen
hartu ezazu goguan:
zuk xaxatu ta haiek bultzata
udaran eta neguan
eta burua gero ezkutatu
abestruzaren moduan.

A. Mendiluze: Batzutan latzak izaten dira
borrokaren ondorenak
zuk baino askoz hobeto daki
gertutik bizi duenak.
Denak ez dira zuzen ariko
sortuko dira problemak
baina gehiago ez du lortuko
etxean gelditzen denak.

- A. M. Peñagarikano: Zu ere ez zera nere maitea
ta ni ez naiz zure kuttuna
nahiz ta berriro garbi aitortu
zu're zera euskalduna.
Presoak gora, presoak behera
zure betiko jarduna
zu zera hemen euskal presoak
aprobetxatzen dituna.
- A. Mendiluze: Alper-alperrik ariko gera
eta uztea onena
ezin aldatu gure buruan
hain barruan dagoena.
Baina aspaldi eskatu degu
aldatu behar zela dema
ta Josu Jonek egingo ahal du
zu ausartu ez zinena!
- A. M. Peñagarikano: Zenbat borroka egiten degun
egunero-egunero
ta etekinik izango al da
hola saiatu ta gero?
Josu Jon Imaz hor izaterik
aizu ez nuen espero
Egibar askoz nahiago nuen
aukeran jarri ezkerero.

ERRENTERIA (2003-12-21)

*Bertsolariak: J. Maia, A. Goikoetxea,
N. Elustondo, A. Oiartzabal,
J. Oiartzabal eta A. Albistur.*

Gai-emailea: Antton Kazabon.

Xenpelar Bertso Eskolak urtero antolatzen duen jaialdia. Niessen aretoan izan zen arratsaldean. Bertso eskolako gaztetxoek egin zituzten aurkezpenak. Ekitaldi berean banatu ziren Zapiain bertso-paper leihaketako sariak.

J. Maia-A. Goikoetxea

Gaia: Norbaitek etxean garbiketa egin ondoren zaku berean elkartu zarete. Arkaitz *Egunkariaren* ale zaharra da. Jon, berriz, *Berriaren* ale bat.

Neurria: zortziko handia

Doinua: *Nere gogoa hegan dijoa*

J. Maia: Zakarrontzian elkartu gera
ni hemen nago ta zu hor
hona norbaitek bota zintuen
atsekabetua, ezkor
baina begira zure ondotik
hemen nago guztiz baikor
nere amaren antza dute ta
askoz politago nator.

A. Goikoetxea: Kaixo laguna! Egin nahi dizut
nere tokitik omena
azken batean azaltzen baita
mundu honetan nor dena.
Madril aldetik emanagatik
ni isiltzeko ordena
zorionean orain badakit
badudala ondorena.

J. Maia: Ta biok pozik elkartu gera
euskaldun baten etxean
beraz penarik ezin sentitu
gu txokora botatzean.
Zu hemen zera oroitzapen bat
oroitzapen bat haizean
nik herri baten pisua daukat
nere letra bakoitzean.

A. Goikoetxea: Bota ninduten saskira eta
nere izena eskastu
zu jaiotzea agintariak
ez omen zuten erraztu
orain omenak eta ospeak
ez beza bururik nahastu
eta mesedez nundik zatozen
sekula ez zazu ahaztu.

J. Maia: Egia da bai ezin da ahaztu
inoiz iragan hurbilik
zure barnetik atera naiz ni
beraz zu ez zaude hilik.
Zakarrontzian zu ikusita
ezin naiz egon isilik
marko batean behar zenuke
pareta baten zintzilik.

- A. Goikoetxea: Baina ez dira ongi ezkontzen
pareta eta papela
eguneroko berria dugu
jendearen erregela.
Jarrai ezazu kioskoetan
ni izan nintzen bezela
zuri eskerrak jakingo dute
Euskal Herri bat badela.
- J. Maia: Euskal Herria bizirik dago
hor ari zera esaten
horren kontrako hitzik ez daukat
hortik ez nau eramaten.
Ia zuk esan ezin zenduna
esaten dudan noizbaiten
bakea ere iritsi dela
Euskal Herri libre baten.
- A. Goikoetxea: Zenbaitentzako Euskal Herria
oraindik ez dago inon
gure eskeei ta aldarriei
ez die egin jaramon
asmo handiak dituk *Berria*
asmo handiegiak Jon
neronek ere hori nahi nuen
eta begira non nagon!

N. Elustondo

Gaia: Oraindik zergatik jarraitu behar du borrokan euskaldunak?

Neurria: hamarreko handia

Doinua: *Semaforoak gorri ta berde*

Euskal Herria herri zaharra
hori dugu aipatzeko
mendetan zehar beti izan da
jende arrotzan menpeko
ta herriak du amets haundi bat
noizbait libre izateko.
Galdetzen dezu arrazoirikan
ba al den borrokatzeko
ez jarraitzeko baino gehiago
ez al daude jarraitzeko? (bis)

Beti borrokan ibili gara
egunez ta urtez urte
ta etsitzeko kanpotik nahiko
motibo ematen dute
pasibismoan erori gara
beldur aitzakien truke.
Nere aldetik jarraitu behar
dela kantatuko nuke
ez jarraitzea erori denei
burla egitea litzake. (bis)

Beti menpean ibili gara
uda, udazken ta negu
udaberria ezin daiteke
bihurtu gure eredu.
Merezi ote dun sarri askotan
pentsatzen jartzen gera gu
ta garbi-garbi erantzungo det:
bai, benetan merezi du
beste inork ezin baitu sinestu
geuk sinesten ez badegu. (bis)

**BAT-BATEKO
SARIKETAK**

IX. ORIXE SARIA

Finala

DONOSTIA (2003-03-16)

*Bertsolariak: A. Zerain, Iñigo Manzidor
“Mantxi”, An. Otamendi, As. Otamendi,
I. Zelaia eta E. Eizagirre.*

Aurkezlea: Xabier Gaztelumendi.

Gai-emailea: Unai Elizasu.

Añorgako Kirol eta Kultur Elkarteak bi urtez behin antolatzen duen sariketa. Goizeko hamaiketan, Antton Aiestaran aretoan. Finalaren aurretik, hiru bertso afari egin ziren seina bertsolarirekin, finalera nor pasatu erabakitzeke.

Mantxi-An. Otamendi

Gaia: Zu, Andoni, aktorea zara. Zure telesailean bikote eder batez maitemindurik zaude, baina zure bikotekide egizkoa, Mantxi, jeloskor dago, telesaileko bikotekideari esan eta egi-ten dizkiozun gauzengatik.

Neurria: zortziko txikia

Doinua: *Kantatzera nijoa*

- Mantxi: Nahiz motiborik izan
zu maite izateko
gauzatxo bat badaukat
orain esateko:
aspaldian zabilta
kabrito konpleto
hura tratatzen dezu
ni baino hobeto. (bis)
- An. Otamendi: Aktore gisa badet
horrenbeste dohai
luza ez egitea
hori ez nuke nahi.
Aktorea hori da
egiatan etsai
zu gehio maite zaitut
egon zaitte lasai! (bis)
- Mantxi: Bainan ez du ematen
horra hor gakuak!
Tarteka afai bat nahi det
ta gero jokuak
tarteka lore batzuk
usai onekuak
ez azkenak bezela
kanposantukuak! (bis)
- An. Otamendi: Horrenbeste komeri
gaur badauzkazu zuk
baina harreman ona
ez al daukagu guk?
Kanposantuko batzuk
ekarri dizkizut
hil ta gero're berdin
maiteko baitzaitut. (bis)

Mantxi: Erantzuna ona zan
ez meriturik ken
inprobisatzen dula
errexak jakiten
baina erabakia
hartu astakirten
ni nazkatua nago
antzerkia egiten! (bis)

An. Otamendi: Begiak diz-diz dauzkat
nik zu ikustian
konforme behar zenduke
aizu hainbestian!
Aktoreakin nahiz ta
ni era ez-tian
muturka ibiltzen gera
mairidire azpian (bis)

An. Otamendi

Kartzelako lana

Gaia: Gaur goizean burrunba handi batek esnatu zaitu. Dozenatik gora hegazkin militar pasatu dira zure etxe gainetik gerrara bidean.

Neurria: zazpi puntukoa

Doinua: *Neskazaharrak eta apaizak I / Historiaren hari zahar horri*

Hegazkin hoiek Irak aldera
doazela dirudite
munduarentzako kalte
ahal baldin banu zerbait gehiago
nik ere egingo nuke. (bis)
Bush jaunak badu petrolioan
horrenbeste borondate
saiatuko da jo ta ke
une batean Irak guztia
bonbaz nahiko dute bete
demokrazian izenean gaur
nahi duna egiten dute. (bis)

Txikiturikan, suntsiturikan
Irak aldeko bazterra
egin behar dute okerra
ta Espainian bibotedun bat
omen daukate liderra. (bis)
Euskal Herritik berarentzako
ez doa gure eskerra
baina ahalegin alperra
hegazkinekin egingo dute
krudelkeria ankerra
boto bakoitza bala bat baita
ta demokrazia gerra. (bis)

Harrigarria izan liteke
hildakoen kopurua
zer-nolako apurua!
Gaur egunean okzidentean
nun ote dugu burua? (bis)
Biblia hartu eskutan eta
sakratua liburua
suntsitzea helburua
hegazkinekin egingo dute
komeni zaien gudua.
Petrolioan ito dedila
lehendabiziko mundua! (bis)

E. Eizagirre

Kartzelako lana

Gaia: Gaur goizean burrunba handi batek esnatu zaitu. Dozenatik gora hegazkin militar pasatu dira zure etxe gainetik gerrara bidean.

Neurria: zortzi puntukoa

Doinua: *Haizea dator ifarraldetik*

Lanpara denak erori dira
eta mahaia dago dantzan
burura eraman eskuak eta
berehalaxe naiz etzan.
Aita ta amai deitu ohi diet
norbaitek lagundu nazan
eskuak ondo gurutzatuta
errezatuz esperantzan.
Hegazkin batzuk ikusten ditut
burnizko txorien trazan
misil batzuek bota dituzte
nola gaituzten erasan!
Ala jainkoa lagun zaidazu
nik ezin baitet hau jasan
zerua dator gainera edo
mundua dago zalantzan!

Amerikarrak mehatxatuaz
ari dira aspalditik
espainiarrak haiei lagunduz
eta inglesak bestetik.
Orain artean bezela ere
gero bizi nahi nuen nik
gu ondo gaude eta munduan
gertatuak ez dit inportik.
Gaur erasoka etortzen dira
eta ez dakit zergatik
diotenez guk buruzagi bat
txarra izateagatik
lepo gaineko burua berriz
nik ez det galdu oraindik:
hura hiltzaile izan liteke
ni ez naizela badakit.

Guregan dago gure arbaso
ta gudarien itzala
nik ere burka eramaten det
nere amonak bezala.
Europearrek ez dute ulertzen
guretzako da normala
baino hala're errespetua
ez ote da printzipala?
Jarri nahi dute euren txanpona
erlijio ta azala
horregatikan guri tratatu
arratoi zahar hoiek hala
zerura beida jarri naiz eta
hala eskatzen dizut Ala:
munduan bizi ezin bagera
lurrak tragatu gaitzala!

II. ABRA SARIA

GETXO (2003-03-29)

*Bertsolariak: I. Izagirre, J. Martin, M. Loizaga,
E. Larrazabal, M. Ibarluzea eta M. Agirre.*

Gai-emailea: Josu Esnaola.

Andres Isasi musika eskolako areto dotorean jokatu zen, aurreko urtean bezala. Entzule askorik ez, baina giro polita sortu zen.

I. Izagirre-J. Martin

Gaia: Orain herri guztietan ari dira gazte-gauak abian jartzen, aste-buru gauetako alternatiba osasuntsua ei da. Zuk, Iñigo, bertara joan nahi duzu; eta Jonek, aldiz, orain arte bezala jarraitu nahi du.

Neurria: zortziko handia

Doinua: *Ludi bizitza abesti gozoz I*

I. Izagirre: Nere bizitza irauli nahi dut
hortarako dut asmoa
ta horregatik gaztelekutan
izena ematera noa
gutxienean izan nahi nuke
mutil gazte bat sanoa
nahiz eta gazte sosoia izan
behintzat ez anonimoa!

- J. Martin: Alternatibak nahiz eta niri
sortzen didan mirespena
lagunarteko parrandak badu
ziria edo eztena
eta aukeran jarri ezkeru
nik nahiago dut azkena
dibertitua izaten baita
osasuntsua ez dena.
- I. Izagirre: Larunbatetan ibiltzen gara
mozkortuta ta parrezka
ez gera ohartu: gure bizitza
horretan doa iheska.
Parranda pixkat uztea ere
hain aukera txarra ez da
eta agian ligatuko det
nik *aerobic*-eko neska.
- J. Martin: Alternatibak jartzen nahiz eta
hasia zaren lehenbizi
gure gorputzak nahiz ta ez duen
trote haundirik merezi
nahiz ta parrandan gure bizitza
joan litekeen ihesi
luze ta gaizki bizitzea baino
nahio motz ta ongi bizi.
- I. Izagirre: Kalera irtenda sarri alkohola
izaten da gure xede
aje galanta hurrengo egunez
denok gaude nahiko grabe.
Gure bizitza galtzen dijoa
ta hori ez da mesede
ta nik bizitzen ikasi nahi det
igande goizetan ere.

J. Martin:

Beraz hasi da alternatiba
egokiaren eskale
ni berriz beti izan naiz alkohol
eta porroen maitale.
Nahiz igandean gure buruak
igual egingo dun kale
aurreko gauan oso ederki
pasatu degun seinale.



*Orixe Saria. E. Eizagirre.
(Añorga, 2003-03-16)
Argazkilaria: X. Gaztelumendi*

XI. BBK SARIKETA

Finala

BILBO (2003-04-12)

*Bertsolariak: BUSTURIALDEA: A. Jauregizar,
A. Uribe, J. Rementeria, I. Belaustegi,
A. Elortegi eta I. Muniategi.*

*ARRATIA: M. Sagarna, J. Zienkiewich,
Jn. Agirre, A. Arrizabalaga, I. Iturrioz
eta J. Olibares.*

Gai-emailea: Bernardo Mandaluniz.

BBK-k, Bizkaiko Bertsozale Elkartearen eta Bizkaiko Ikastolen Elkartearen lankidetzarekin, urtero antolatzen duen jaialdia. Kafe Antzokian izan zen, arratsaldeko zazpitan. Talde bakoitzak jarraitzaile talde handia eduki zuen, arratiarrek batez ere.

Jn. Agirre

Azken puntua emanda

Neurria: zortziko handia

Doinua: *Nafarroako mendi gainetan*

Askatasuna lortu bidean
euskaldunak ekinean
independentzi hori lortuko
dogula danok zinean
Euskal Herriak duen egoera
haxe da azken finean:
aldatz beheran danok galapan
aldatz goran ezinean. (bis)

I. Iturrioz

Lau oinak emanda

Neurria: zortziko txikia

Doinua: *Bautista Basterretxe*

Euskadin nagusi da
pena ta *ezina*
eta gu eiten gabiz
herriari *mina*
gero ez daigun esan
“Ai, izan *bagina...*”
Elkartzeko ein daigun (bis)
danok *ahalegina!*

J. Olibares

Bukaerako agurra

Neurria: zortziko handia

Doinua: *Ludi bizitza abesti gozoz I*

Finalerako txartela lortu
genduan egun berean
barri on hutsez ez zan beteko
eguaztena gurean:
amamak agur esan euskun ta
jarri zan gora bidean
nire saioa gorde dezala
Jainkoan eskoialdean!



*XI. BBK sariketa. Finala.
(Bilbo, 2003-03-26)*

Argazkia: BBE

XXXII. OSINALDE SARIA

Finala

GABIRIA (2003-04-26)

*Bertsolariak: I. Izagirre, O. Bartra, I. Apalategi,
B. Lizaso, I. Gurrutxaga eta M. Artetxe.*

Gai-emailea: Jokin Murua.

Gabiriako Osinalde Elkarteak bertsolari gazteentzat urtero antolatzen duen sariketa. Beti bezala, elkartearen erabat beteta eta bertsotan egiteko giro aparta. Aurreko urteetakoak baino maila apalagoko saioa aterata zen. Finalean norik kantatuko zuten erabakitzeke beste hiru sari jokatu ziren aurreko asteetan: Axari saria (Idiazabal), Argi Berri saria (Ordizia) eta Aztiri saria (Legazpi).

I. Izagirre-O. Bartra-I. Apalategi

Gaia: Zuek Gabiriko alkate izateko hiru hautagai zarete. Egin ezazue zuen kanpaina.

Neurria: seiko txikia

Doinua: *Bertsuak jarri dizkat*

I. Apalategi: Proposamen bakar bat
 ekarri det tinko:
 burrukan dabiltzanez
 hainbeste mutiko
 gaztelekurik behintzat
 ez degu jarriko! (bis)

- O. Bartra: Alkaterako ere
nik badaukat marka
ta proposamen onik
noski ez zait falta:
urte osoa izango da
Maiatzaren bata. (bis)
- I. Izagirre: Batek gaztelekurik
ez du nahi eratu
ta honek jaiegun hori
betiko hedatu...
Oso errexa dago:
ba ni aukeratu! (bis)
- I. Apalategi: Ez da barkagarria
Iñigoren falta
eta ezingo zaizu
zuri ere barka
listatara kanpotik
etorri zera-ta. (bis)
- O. Bartra: Herri hauxe joateko
oin baino hobeto
ni neu aukeratuta
benetan ederto
bizkaitar bat behar da
hauxe zuzentzeko. (bis)
- I. Izagirre: Gabirin izango naiz
ni neu alkatea
aukera egin nun ta
ez baita kaltea
listan sartzea edo
listoa izatea. (bis)
- I. Apalategi: Baina flojo zabilta
hemen abizenez:
lehenengo Del Olmo ta
ondoren Jimenez
zu bidali zaituzten
tokira joan zaitetz! (bis)

O. Bartra: Borroka egiten gabiltz
 hirurak tarteka
 baina alperrekoa
 zuen botaketa
 PPk dana aurretik
 amañatu du-eta. (bis)

I. Izagirre: Andaluzitik nator
 nolako balantzak!
 Nerekin larogei bat
 autobus dakartzat
 Gabirin izango naiz
 kontzejala behintzat! (bis)

M. Artetxe

Hitza gaitzat emanda: Maitasuna

Neurria: hamarreko handia

Doinua: *Gure aurreko guraso zaharrak*

Zu zara nere lokartu aurreko
une goxoen jabea
nire desiren, nire gogoen
nire nahien mirabea.
Dena argitu nahi nuke orain
nahiz lehen izan herabea
eta nik hitz lauz azaldu nahi dut
nere sentipen gordea
“maite zaitut” bat txikiegia
iruditzen zait ordea!

OIARTZUNGO BINAKAKO BERTSOLARI TXAPELKETA

Finala

OIARTZUN (2003-05-23)

*Bertsolariak: A. Goikoetxea eta A. Oiartzabal,
E. Zelaia eta A. Arzallus, I. Goñi eta J. Martin.*

Gai-emailea: Esteban Martiarena.

Girizia elkartean jokatu zen Binakako Txapelketa honetako finala. Elkartean afaltiar asko eta bertsotarako oso giro egokia.

A. Goikoetxea-A. Arzallus

Gaia: Arkaitz ama izango da, eta Amets semea. Semea telebistako Basetxea programan sartu da. Amak telebistan ikusi ondoren konturatu da semea orain hasi dela ezagutzen.

Neurria: zortziko txikia

Doinua: *Haizeak bidali du*

A. Goikoetxea: Ama batentzat ez da
samurra izaten
bere semea ttikia
etxean jasaten.
Orain konturatu naiz
hahaloren baten
telebistak ez dula
gezurrik esaten.

A. Arzallus: Hortan hasi behar dut
arrazoi ematen
etxean amarekin
beti halako baten
beti hau egin eta
beti hau esaten
ta ez didazu uzten
neroni izaten.

A. Goikoetxea: Dena gordetzea da
zure arazoa
izaera daukazu
nunbait'e jasoa.
Etxean otsoa ta
kanpoan usoa
amarentzako ez da
ikasgai gozoa.

A. Arzallus: Baina zeozer banaiz
ni nere xumean
semea otsoa omen
etxean denean
ta uso bihurtzen naiz
kanpo noanean
ta gustora tirorik
jo ez didanean.

A. Goikoetxea: Ondoan edukita
urterikan urte
ezagutzen dudanik
ez nezake uste.
Tiroa jotzeko nik
barrenik ez nuke
baina bizkarreko bat
merezi zenuke.

A. Arzallus: Eman behar det bata
ez bada bestea
baina aditu zazu
semean eskea:
onena duzu hona
etortzen hastea
aitak ezagutzeko
bere emaztea.

A. Goikoetxea-J. Martin

Gaia: Orain dela gutxi, Jon, munduko txapelduna izan da triatloian.
Etxera bueltan datorrenean, aireportuan, Arkaitz ama soilik
du zain.

Neurria: hamarreko txikia
Doinua: *Lagundurikan danoi I*

J. Martin: Beti desiatu dut
triatloiarena
ta izendatuko naute
munduko onena.
Honera etortzeko
zenuen ordena
ez dizut esango gaur
poztu ez naizena
baina hau soilik al da
merezi nuena?

A. Goikoetxea: Orain zerbait hasten da
ez da deus amaitu
zuk lehengo bidetikan
behar duzu jarraitu
jenderik ez dela-ta
ez zaite gogaitu
besarkatu nazazu
semea lasaitu
berriz ere txapeldun
amak egin zaitu.

- J. Martin: Denei aurea hartu
denei hartu gaina
triatloian egin dut
nik kriston *hazaina*.
Nola bilakatu zait
ordaina horbaina?
Zure besarkada hau
bakarra da baina
balio du milaka
pertsonek aina.
- A. Goikoetxea: Txapeldunarentzako
ospea ta fama
baina hori luzera
haizeak darama.
Ni maitasun beroak
zugana narama
noizbait heltzen bazaizu
azkenaren zama
aireportun batean
izango da ama.
- J. Martin: Berdintasunan alde
hamaika istori
futbolistak bagina
dena gori-gori
ongietorriaren
hamaika teori
aireportu honetan
ez gera asko bi
baina nik jarraitzeko
nahikoa det hori.
- A. Goikoetxea: Jende gutxi dagola
semea ohartu
ama gaur etortzera
egin da ausartu
zure animo hoiek
nahi ditut indartu
nahiz ta lehia itsuan
ez nukeen nahi sartu
noizbait harrotzen banaiz
zuk ez gaizki hartu.

XXVII. LIZARDI SARIA

Finala

ZARAUTZ (2003-09-05)

*Bertsolariak: E. Goikoetxea, J. Uranga,
A. Aranburu, J. Martin, I. Izagirre,
J. Zulaika, I. Zubeldia eta B. Lizaso.*

Gai-emailea: Arantza Laskibar.

Zinema pilotalekuan jokatu zen finala, gaueko hamar eta erdietan. Ekitaldi berean banatu ziren Basarri bertso-paper leihaketako sariak.

A. Aranburu-J. Martin

Gaia: Zuek emakumea eta medikua zarete, Aritz emakumea eta Jon medikua. Zu, Aritz, begia ubelduta duzula etorri zara berriro ere medikuarengana, berriro ere erori egin zarela esanez. Zuk, Jon, ordea, ez diozu sinesten; horrela etortzen zaizun laugarren aldia da, eta gainera, senarra ere ezagutzen duzu.

Neurria: zortziko handia

Doinua: *Beste bateko inularretan*

- A. Aranburu: Medikuana buelta egiteko
lehendik banuen premia.
Aizu mediku oraingo hau ere
esango dizut egia:
urteetan gora nijua eta
hanka dadukat nagia
berriro ere erori naiz ta
beira zaidazu begia. (bis)
- J. Martin: Lehengo urtean gai berdinakin
hemen egin nuen topo
zure senarrak ez zaitu ez jo
ta ez zaitu inoiz joko.
Iaz ez nizun ezer sinetsi
eta hau ez dut gustoko
berriro ere gaur sinistea
ez dezu ba esperoko? (bis)
- A. Aranburu: Kasurikan ez egitekotan
alperrik ez naiz etorri!
Ez didazula ezer sinisten
zer esan behar zaio horri?
Ta azkenean neu lotsatu naiz
bi masailak gorri-gorri:
bai gizonak jo eiten nau baina
ez iozu esan inorri! (bis)
- J. Martin: Hara senarrak jotzen zaitula
ta ematen dizu izu
horrelakotan ze egiten den
oso ondo ez al dakizu?
Nik inorri ez diot esango
hori egia da aizu
gaurtik aurrera mundu guztiai
zuk esan behar diozu! (bis)

A. Aranburu: Begi ondua ubeldurikan
edota bestela hortzak
bide hontara murgildu gaitu
etxeoandreen morrontzak.
Kontatuko det argi ta altu
nahiz ta orain egon lotsak:
nere begiak baino min gehio
daduka nere bihotzak. (bis)

J. Martin: Zure egia zabaldu zazu
zabaldu zazu mundura!
Nereganaino etorri izana
hori nahikoa pausu da.
Pomada batez baietz sendatu
begitako ubeldura
baina nik nekez sendatuko dut
bihotzean duzun hura. (bis)

SAIOEN AURKIBIDEA

Data	Herria	Bertsolariak	or.
2003-01-05	Oñati	U.Iturriaga, A.Mendiluze, S.Colina, J.M.Irazu, A.Arzallus	59
2003-01-10	Ondarroa	U.Iturriaga, M.Lujanbio	65
2003-01-25	Donostia	M.Lujanbio, X.Silveira	69
2003-01-25	Zubieta	J.Uranga, J.Agirre	73
2003-02-15	Bergara	X.Amuriza, U.Iturriaga	78
2003-02-22	Zegama	A.Egaña, J.M.Irazu	82
2003-03-08	Arrasate	J.Maia, A.Agirreazaldegui	85
2003-03-22	Dima	I.Elortza, U.Iturriaga	88
2003-03-29	Zarautz	S.Colina, A.Mendiluze, A.Egaña, U.Iturriaga, S.Colina	91
2003-03-30	Lesaka	A.Arzallus	99
2003-04-04	Lazkao	I.Murua, J.Soroazabal, S.Lizaso	100
2003-04-12	Bergara	J.L.Gorrotxategi, A.M.Peñagarikano, A.Mendiluze	104
2003-05-24	Iruraitz-Gauna	M.Mendizabal, A.Arzallus, I.Murua, A.Egaña, I.Elortza, A.Mendiluze	109
2003-05-31	Arrasate	J.Maia, A.Mendiluze, I.Elortza, A.Egaña	118
2003-06-01	Gasteiz	Z.Enbeita	124
2003-06-01	Oiartzun	S.Colina, A.Arzallus	125
2003-06-08	Bilbo	F.Paia	128
2003-06-24	Andoain	J.Soroazabal, I.Zelaia	130
2003-07-13	Donostia	A.Egaña, A.Arzallus	134
2003-07-26	Berango	F.Paia, I.Ibarra	136
2003-07-27	Gorliz	M.Artetxe, A.Egaña, I.Elortza	139
2003-07-30	Getxo	J.Maia	145
2003-07-30	Villabona	A.Mendiluze, A.Arzallus, A.Agirre	147
2003-07-31	Altzo	A.Arzallus, A.M.Peñagarikano, A.Egaña, M.Lujanbio	151
2003-08-05	Gasteiz	J.Maia, S.Colina	158
2003-08-07	Aia	A.Arzallus, M.Lujanbio, S. Lizaso, J.Agirre	161
2003-08-09	Gasteiz	M.Agirre, I.Izagirre	166
2003-08-10	Abadiño	M.Lujanbio, A.Arzallus, A.Egaña	169
2003-08-15	Zizurkil	J.M.Irazu, A.Mendiluze, J.Soroazabal, J.Agirre	175
2003-08-17	Bilbo	E.Intxaurraga, I.Ibarra	180

2003-08-22	Bilbo	X.Silvera, E.Arozena, As.Otamendi, Z.Enbeita	183
2003-08-23	Bilbo	A.M.Peñagarikano	186
2003-08-30	Bidegoian	S.Colina, J.M.Irazu	188
2003-09-05	Alkiza	S.Lizaso, S.Colina, A.M.Peñagarikano, A.Egaña, M.Lujanbio	191
2003-09-12	Mutriku	S.Lizaso, J.M.Irazu, A.Egaña	201
2003-09-13	Donostia	M.Lujanbio, A.Egaña, S.Lizaso, A.Mendiluze	205
2003-10-04	Iurreta	S.Lizaso, A.M.Peñagaikano, I.Elortza	215
2003-10-04	Usurbil	Mañukorta, J.M.Irazu, M.Lujanbio	220
2003-10-10	Aulesti	S.Lizaso, A.Egaña	225
2003-10-11	Hendaia	M.Lujanbio, A.Mendiluze, S.Lizaso	228
2003-10-18	Hernani	A.Egaña, M.Lujanbio	235
2003-10-25	Errenteria	A.Egaña, M.Lujanbio	239
2003-10-26	Mungia	U.Iturriaga, J.Enbeita	242
2003-11-08	Bilbo	A.Egaña, I.Elortza	245
2003-11-15	Villabona	A.Agirre, J.Agirre, S.Lizaso, A.M.Peñagarikano	247
2003-11-28	Gasteiz	A.Arzallus, S.Colina	253
2003-11-29	Donibane-Lohizune	M.Artetxe, S.Colina	256
2003-12-16	Irun	M.Lujanbio, I.Lazkano	259
2003-12-19	Zumarraga	A.M.Peñagarikano, A.Mendiluze	261
2003-12-21	Errenteria	J.Maia, A.Goikoetxea, N.Elustondo	266

Bat-bateko sariketak

2003-03-16	Donostia	Mantxi, An.Otamendi, E.Eizagirre	273
2003-03-29	Getxo	I.Izagirre, J.Martin	279
2003-04-12	Bilbo	Jn.Agirre, I.Iturrioz, J.Olibares	282
2003-04-26	Gabiria	I.Izagirre, O.Bartra, I.Apalategi, M.Artetxe	285
2003-05-23	Oiartzun	A.Goikoetxea, A.Arzallus, J.Martin	288
2003-09-05	Zarautz	A.Aranburu, J.Martin	292

BERTSO HAUTATUAK – KD

1 KD

1. 2003-01-05	Oñati	U.Iturriaga, S.Colina	63 or.
2. 2003-01-10	Ondarroa	U.Iturriaga, M.Lujanbio	65 or.
3. 2003-01-25	Donostia	M.Lujanbio	69 or.
4. 2003-01-25	Zubieta	J.Agirre, J.Uranga	73 or.
5. 2003-02-15	Bergara	X.Amuriza, U.Iturriaga	78 or.
6. 2003-03-16	Donostia	An. Otamendi	270 or.
7. 2003-03-29	Getxo	I.Izagirre, J.Martin	274 or.
8. 2003-03-29	Zarautz	A.Egaña, A.Mendiluze	93 or.
9. 2003-04-04	Lazkao	S.Lizaso	103 or.
10. 2003-04-12	Bergara	J.L.Gorrotxategi	108 or.
11. 2003-05-24	Iruraitz-Gauna	I.Elortza, A.Mendiluze	114 or.
12. 2003-05-31	Arrasate	J.Maia	122 or.

2 KD

1. 2003-06-01	Oiartzun	S.Colina, A.Arzallus	125 or.
2. 2003-07-27	Gorliz	A.Egaña, I.Elortza	141 or.
3. 2003-08-07	Aia	A.Arzallus, M.Lujanbio	161 or.
4. 2003-08-10	Abadiño	A.Egaña, M.Lujanbio	171 or.
5. 2003-09-12	Mutriku	J.M.Irazu, A.Egaña	202 or.
6. 2003-09-13	Donostia	M.Lujanbio, S.Lizaso	207 or.
7. 2003-10-04	Usurbil	Mañukorta, J.M.Irazu	220 or.
8. 2003-10-04	Usurbil	J.M.Irazu, M.Lujanbio	221 or.
9. 2003-10-10	Aulesti	A.Egaña, S.Lizaso	225 or.
10. 2003-10-11	Hendaia	M.Lujanbio, A.Mendiluze, S.Lizaso	228 or.
11. 2003-10-11	Hendaia	M.Lujanbio, A.Mendiluze	231 or.
12. 2003-12-19	Zumarraga	A.M.Peñagarikano, A.Mendiluze	262 or.

BERTSOLARIEN AURKIBIDEA

Agirre, A.	150 (BI), 247 (BI)
Agirre, J.	73 (BI), 163 (BI), 177 (BI), 247 (BI)
Agirre, Jn.	283 (PE)
Agirre, M.	166 (B), 167 (BI)
Agirreazaldegia, A.	85 (BI)
Amuriza, X.	78 (GL)
Apalategi, I.	285 (BI)
Aranburu, A.	292 (BI)
Arozena, E.	183 (BI)
Artetxe, M.	139 (BI), 256 (BI), 287 (H)
Arzallus, A.	59 (BI), 99 (H), 109 (BI), 125 (BI), 134 (GL), 147 (BI), 150 (BI), 152 (BI), 161(BI), 169 (BI), 253 (GL), 288 (BI)
Bartra, O.	285 (BI)
Colina, S.	63 (BI), 91 (BI), 96 (BI), 125 (BI), 158 (BI), 188 (BI), 191 (BI), 195 (B), 196 (BI), 253 (GL), 256 (BI)
Egaña, A.	82 (BI), 93 (BI), 112 (BI), 118 (BI), 120 (BI), 134 (GL), 139 (BI), 141 (BI), 155 (BI), 171 (BI), 193 (BI), 198 (H), 202 (BI) 205 (BI), 210 (BI), 225 (BI), 235 (BI), 239 (BI), 245 (GL)
Eizagirre, E.	277 (B)
Elortza, I.	88 (H), 114 (PE), 118 (BI), 120 (BI), 141 (BI), 218 (PE), 245 (GL)
Elustondo, N.	269 (B)
Enbeita, J.	242 (BI)
Enbeita, Z.	124 (H), 183 (BI)
Goikoetxea, A.	266 (BI), 288 (BI), 290 (BI)
Gorrotxategi, J.L.	104 (BI), 108 (PE)
Ibarra, I.	136 (BI), 180 (BI)
Intxaurreaga, E.	180 (BI)
Irazu, J.M.	59 (BI), 82 (BI), 175 (BI), 188 (BI), 202 (BI), 220 (BI), 221 (BI)
Iturrioz, I.	283 (GL)
Iturriaga, U.	61 (BI), 63 (BI), 65 (BI), 78 (GL), 88 (H), 96 (BI), 242 (BI)
Izagirre, I.	167 (BI), 279 (BI), 285 (BI)
Lazkano, I.	255 (H)
Lizaso, S.	103 (B), 163 (BI), 191 (BI), 198 (H), 201 (B), 205 (BI), 207 (BI), 210 (BI), 215 (BI), 225 (BI), 228 (BI), 250 (BI)
Lujanbio, M.	65 (BI), 69 (B), 155 (BI), 161 (BI), 169 (BI), 171 (BI), 196 (BI), 205 (BI), 207 (BI), 213 (B), 221 (BI), 228 (BI), 231 (BI), 235 (BI), 239 (BI), 259 (H)
Maia, J.	85 (BI), 118 (BI), 122 (B), 145 (B), 158 (BI), 266 (BI)
Mantxi	273 (BI)

Mañukorta	.220 (BI)
Martin, J.	.279 (BI), 285 (BI), 290 (BI), 292 (BI)
Mendiluze, A.	.61 (BI), 91 (BI), 93 (BI), 104 (BI), 109 (BI), 114 (PE), 118 (BI), 147 (BI), 175 (BI), 205 (BI), 228 (BI), 231 (BI), 263 (BI)
Mendizabal, M.	.109 (BI)
Murua, I.	.100 (BI), 112 (BI)
Olibares, J.	.284 (G)
Otamendi, An.	.273 (BI), 275 (B)
Otamendi, As.	.183 (BI)
Paia, F.	.128 (B), 136 (BI)
Peñagarikano, A.M.	.104 (BI), 152 (BI), 186 (B), 193 (BI), 215 (BI), 250 (BI), 261 (B), 262 (BI)
Silveira, X.	.71 (B), 183 (BI)
Soroazabal, J.	.100 (BI), 130 (BI), 132 (B), 177 (BI)
Uranga, J.	.73 (BI)
Zelaia, I.	.130 (BI)s

IKURRAK:

(B): Gaia emanda bakarka egindako saioa.

(BI): Gaia emanda binaka -edo talde handiagoan- egindako saioa.

(P): Puntutan egindako saioa.

(PE): Lehen edo azken puntua emanda egindako saioa.

(H): Gainerako ariketak

(GL): Gai librean egindako saioa.

Izen eta izengoitien deskribapena

Zerrenda hau, liburuan agertzen diren izen laburdura eta izengoitiei dagokio.

Liburuan	Izen deiturak	Herria
Agirre, A.	Amaia Agirre Arrastoa	Villabona
Agirre, J.	Joxe Agirre Esnal	Azpeitia
Agirre, M.	Manex Agirre Arriolabengoa	Aramaio
Agirreazaldeg, A.	Ainhoa Agirreazaldeg, Rekondo	Bergara
Amuriza, X.	Xabier Amuriza Zarraonaindia	Berriz
Arozena, E.	Estitxu Arozena Albizu	Lesaka
Artexe, M.	Miren Artetxe Sarasola	Hendaia
Arzallus, A.	Amets Arzallus Antia	Hendaia
Colina, S.	Sustrai Colina Akordarrementeria	Urruña
Egaña, A.	Andoni Egaña Makazaga	Zarautz
Elortza, I.	Igor ElortzaAranoa	Durango
Elustondo, N.	Nerea Elustondo Plazaola	Legazpi
Enbeita, J.	Jon Enbeita Ealo	Gernika-Lumo
Enbeita, Z.	Zigor Enbeita Zugasti	Abornikano
Goikoetxea, A.	Arkaitz Goikoetxea Arriola	Oiartzun
Gorrotxategi, J.L.	Jose Luis Gorrotxategi Zangitu	Azpeitia
Ibarra, I.	Iratxe Ibarra Foruria	Markina-Xemein
Intxaurreaga, E.	Eñaut Intxaurreaga Uriarte	Zeanuri
Irazu, J.M.	Jexux Mari Irazu Muñoa	Larraul
Iturriaga, U.	Unai Iturriaga Zuaza-Artaza	Durango
Izagirre, I.	Iñigo Izagirre Urteaga	Itziar (Deba)
Lizaso, S.	Sebastian Lizaso Iraola	Azpeitia
Lujanbio, M.	Maialen Lujanbio Zugasti	Hernani
Maia, J.	Jon Maia Soria	Zumaia
Mañukorta	Gregorio Larrañaga Mandiola	Markina-Xemein
Mendilluze, A.	Aitor Mendiluze Gonzalez	Andoain
Mendizabal, M.	Mikel Mendizabal Garmendia	Itsasondo
Murua, I.	Iñaki Murua Jauregi	Gabiria
Otamendi, As.	Asier Otamendi Alkorta	Urretxu
Paia, F.	Alfredo Paia Ruiz "Fredí"	Algorta (Getxo)
Peñagarikano, A.M.	Anjel Mari Peñagarikano	Anoeta
Silveira, X.	Xabier Silveira Etxeberria	Lesaka
Sorozabal, J.	Jokin Sorozabal Ansa	Andoain
Uranga, J.	Jokin Uranga Isuskiza	Azpeitia
Zelaia, I.	Iñaki Zelaia Irazusta	Hernani

